

# **EAEko ekonomiaren urteko txostena 2016**

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

**<http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es>**

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

[economia@euskadi.eus](mailto:economia@euskadi.eus)

[945-01 90 77](tel:945-01-90-77)

Argitaratzailea: Eusko Jurlaritzaren Ogasun eta Ekonomia Saila  
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: VI 501/06

ISSN: 1887-1526

## AURKIBIDEA

0. EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA .....	1
1. EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA .....	10
1.1 Munduko ekonomiaren bilakaera .....	10
1.2 Analisia herrialdeka .....	12
1.3 Espainiako ekonomia .....	16
2. EAE-KO BARNE PRODUKTU GORDINA.....	19
2.1 Ekoizpen arloak.....	19
2.2 Eskaria.....	26
3. LAN MERKATUA .....	40
3.1 Biztanleria eta jarduera.....	40
3.2 Enpleguaren erregulazioa eta kontratazioa.....	46
4. PREZIOAK.....	48
4.1 Deflatoreak.....	48
4.2 Kontsumo prezioak.....	49
4.3 Industria prezioak.....	53
5. LEHIAKORTASUNA ETA LAN KOSTUAK.....	54
5.1 Sarrera.....	54
5.2 Lan kostu nominalak.....	55
5.3 Produktibitatea.....	58
5.4 Lan kostu unitario nominalak eta errealak.....	61
5.5 BPG biztanlekoaren bilakaera eta bere determinatzaileak.....	63
6. ARLO PUBLIKOA .....	69
6.1 Itundutako zergen diru bilketa .....	69
6.2 Euskal administrazioen jarduera ekonomikoa .....	74
6.3 Zikloaren posizioa .....	80
7. FINANTZA ARLOA .....	86
7.1 Moneta politika.....	86
7.2 Truke tasak .....	89


7.3 Balore merkatua.....	91
7.4 Kredituak eta gordailuak .....	92
7.5 Familien finantza egoera .....	95
7.6 Gizarte aurreikuspena.....	101
8. AURREIKUSPENAK .....	103
8.1 Ingurunerako aurreikuspenak.....	103
8.2 EAeko ekonomiaren aurreikuspenak.....	107

## 0. EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA

Aurreikusi ez bazen ere, EAEko ekonomiak zertxobait bizkortu zuen bere hazkunde erritmoa 2016an eta %3,1 handitu zuen BPGa, aurreko datua bi hamarrenetan gaindituz. Beraz, oraingo ziklo ekonomikoaren puntu gorena 2016ra atzeratu da. Aipatu den tasa horrek aise gainditu du laurogeietan eta 2000ko hamarkadan lortu zen batez besteko balioa, baina ez zen iritsi laurogeita hamarretako batez bestekora (%3,6), hamarkada horretako hazkunde ezohikoa nekez berreskuratuko delako etorkizun hurbilean. 2016an eskuratu zen bultzadaren zati bat bizkarreko haizeen laguntzari zor zaio, baina haize horiek baretuko dira. Hori dela eta, hazkunde erritmo apalagoak iragartzen dira urte honetarako eta datozen urteetarako ere, %2,2ra hurbilduko baitira. 2015ean gertatu zen bezala, 2016an ere kanpo arloak ez zion inolako ekarpenik egin BPGaren gehikuntzari, zeren eta esportazioen bultzada inportazioen antzeko gehikuntza batek konpentsatu baitzuen.

EAEko eta munduko ekonomien hazkundea  
Urte arteko aldakuntza tasak

1. irudia



Iturria: Eustat eta NDF.

Oro har, munduko ekonomiak nolabaiteko ahultasuna erakutsi zuen berriro hazkundera eta %3,1eko tasa jaso zuen herrialde bakoitzaren datua erosteko ahalmenaren parekotasunean duen pisuarekin kalkulatzen denean, baina %2,4ra mugatzen da kalkulua txanpon bakoitzaren

truke tasaren arabera egiten denean. Azken metodo hori erabiltzen denean, garapen bidean dauden herrialdeek pisu gutxiago daukate. Tasa horiek argigarriak dira EAeko ekonomiaren emaitzak duen garrantzia azaltzeko, lehen metodoarekin munduko ekonomiaren batez bestekoa berdindu duelako, baina bigarrenarekin maila hori gaintitu duelako. Orobat, ekonomia aurreratuen multzoa (%1,6) eta Euroguneko gehikuntza (%1,7) gaintitu zituen.

## EKONOMIA EREMUEN PISUA, HAZKUNDEA ETA EKARPENAK

1. taula

	Pisua	Hazkundera	Ekarpena		Pisua	Hazkundera	Ekarpena
<b>Ekonomia aurreratuak</b>	<b>41,9</b>	<b>1,7</b>	<b>0,71</b>	<b>Garatu gabeak</b>	<b>58,1</b>	<b>4,1</b>	<b>2,40</b>
AEB	15,5	1,6	0,25	Txina	17,8	6,7	1,19
Eurogunea	11,8	1,7	0,21	India	7,2	6,8	0,48
Japonia	4,4	1,0	0,04	Errusia	3,2	-0,2	-0,01
Erresuma Batua	2,3	1,8	0,04	Brasil	2,6	-3,6	-0,09
Kanada	1,4	1,4	0,02	Mexiko	1,9	2,3	0,04
Besteak	6,5	2,0	0,14	Besteak	25,4	3,1	0,79

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, NDFren datuetan oinarrituta.

Dagoeneko adierazi denez, munduko ekonomia %3,1 hazi zen (EAPan neurtuta) 2016an, aurreko urtean baino zertxobait gutxiago eta 2009tik (%-0,1) inoiz jaso den txikiena baita. Tasa horrek agerian uzten du gaur eguneko ahultasun ekonomikoa. Dena dela, zenbaki hori ez dago urrun laurogeietan eta laurogeita hamarretan eskuratu ziren batez besteko balioetatik, nahiz eta 2008ko krisiaren aurreko urteetako gehikuntza baino apalagoa izan. Azaleratzen ari diren herrialdeek egin zioten ekarpen handiena hazkunderari, oro har, %4,1eko gehikuntza eskuratu zutelako, aurreko emaitzatik oso hurbil. Alde batetik, Txinak eta Indiak hazkunde erritmoa leundu zuten, lehen kasuan %6,7ra arte eta bigarrenean %6,8ra arte. Halere, Asiako erraldioen moteltzea Errusiaren (%-0,2) jaitsiera txikiagoak eta Ekialde Hurbileko zein Afrikako iparraldeko (%3,9) bizitasun handiak konpentsatu zuten. Adierazi behar da ekonomia petrolioaren ekoizpenean oinarritzen duten herrialdeek arazoak izan zituztela oraindik BPGa suspertzeko. Horixe gertatu zaio aipatu berri den Errusiari, baina baita Brasili (%-3,6), Nigeriari (%-1,5) eta Saudi Arabiari (%1,4) ere.

2016an bizi zen erritmo apaltzea neurri handiagoan gauzatu zen herrialde garatuetan, batez ere AEBetan. Hain zuzen ere, iparramerikar herrialde horrek puntu batean gutxitu zuen bere ekonomiaren hazkundera (%1,6), nahiz eta urte amaieran irudi sendoagoa erakutsi zuen, eroriko baten mehatxua uxatuz. Halaber, herrialde hartako presidente berriak agindu zituen inbertsio publikoko egitasmoek pentsarazten dute bultzada gehigarria emango zaiola ekonomia horri, jarduera areagotuz. Aitzitik, moneta politikak urrats batzuk eman ditu egoera neutralago batera itzultzeko, hainbat urtez hedaldiari laguntza eman eta gero.

**BPG ERREALAREN BILAKAERA****2. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2013	2014	2015	2016
<b>Munduko ekonomia</b>	<b>4,2</b>	<b>3,5</b>	<b>3,4</b>	<b>3,5</b>	<b>3,4</b>	<b>3,1</b>
AEB	1,6	2,2	1,7	2,4	2,6	1,6
Japonia	-0,1	1,5	2,0	0,3	1,2	1,0
Txina	9,5	7,9	7,8	7,3	6,9	6,7
Europar Batasuna	1,7	-0,4	0,3	1,7	2,4	2,0
- Alemania	3,7	0,7	0,6	1,6	1,5	1,8
- Frantzia	2,1	0,2	0,6	0,6	1,3	1,2
- Erresuma Batua	1,5	1,3	1,9	3,1	2,2	1,8
- Italia	0,6	-2,8	-1,7	0,1	0,8	0,9
- Espainia	-1,0	-2,9	-1,7	1,4	3,2	3,2
- EAE	0,2	-2,0	-1,8	1,6	2,9	3,1

Iturria: NDF (munduko ekonomia, Txina eta Japonia), BEA (AEB), Eurostat eta Eustat (EAE).

Bigarren atzeraldia gertatu zenetik lehenengo aldiz, Europar Batasunaren BPGa AEBetakoa baino gehiago hazi zen, hark ere moteltzeko joera leuna bizi zuen arren. Zehazkiago adierazita, 2016an %2,0 hazi zen, aurreko urtean baino lau hamarren gutxiago. Herrialdeka egiten den analisisian, Erresuma Batuak pairatu zuen moteltzea nabarmendu behar da, erreferendum batean Europar Batasunetik irteteko erabakia hartu zuen urtean. Hala ere, erabaki horren eraginak datozen urteetan handiagoak izango direla aurreikusten da. Ereku horretako herrialde handien artean, Italiak erakutsi zuen portaera ahulena eta oraindik ez du %1,0ko hazkunde tasa lortu. Beste muturrean, espainiar ekonomiaren bultzada sendoa (%3,2) nabarmendu zen berriro, aurreko urteko gehikuntza berdinduz. Euroguneko bi motor


handienek ia ez zuten aldatu beren hazkunde erritmoa, Alemaniak hiru hamarren gehiago (%1,8) hazi zelako eta Frantziak (%1,2) bat gutxiago.

2016an, EAEko ekonomia Europako herrialde askok erakutsi zuten moteltze leuneko joera hartatik aldendu zen eta %3,1eko hazkundera eskuratu zuen, hots, 2015ean lortutako emaitza garrantzitsua baino bi hamarren gehiago. Bizkortze hori ez zegoen Eusko Jaurlaritzako aurreikuspenetan, susperraldian lagunduko zuten arrazoietakoz batzuek indarra galduko zuten heinean bizitasuna motelduko zela espero baitzen. Horri esker, EAEko ekonomiak, zortzi urte beranduago, krisiaren aurrean zeukan jarduera maila gainditu zuen, hala termino nominaletan nola errealetan neurtuta.

**BPG errealaren eta enpleguaren bilakaera EAEn 2. irudia**

BPG. 2008 = 100

Enplegua. 2008 = 100



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.

Ekoizpenaren bilakaera onak eragin nabarmena utzi zuen lan merkatuan, urteko batez bestekoan %1,9ko gehikuntza izan zuelako, aurreko urteko emaitza hiru hamarrenetan hobetuz. Horri esker, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua 16.000 lagunetan baino gehiagotan hazi zen eta guztira 900.000 langileetara hurbildu zen. Halere, oraindik 86.000 lanpostu inguru berreskuratu behar dira oraindik krisiaren aurreko zenbakietara iristeko. BPGaren eta enpleguaren arteko diferentzia urte horietan pilatu den produktibitate irabaziaz azaltzen du, hamar puntuetara hurbildu baitzen. Sortutako enplegu ia gutzia zerbitzuetan




(13.000 baino gehiago) eta industrian (gainontzeko 3.000) gauzatu ziren. Horri esker, langabezia tasak bilakaera ona izan zuen eta %13,4an kokatu zen, hots, 2015ekoa baino bi puntu beherago.

Eskariaren ikuspegitik egiten den hazkundearen banaketak aurreko txostenetan deskribatu zen modelo baieztazen du. Modelo horretan, EAEko ekonomiaren bultzada guztia barne eskariaren ekarpenetik etortzen da eta kanpo saldoak berriro jarrera neutroa erakutsi zuen. Kanpo eskariaren ekarpenaren murrizketa ia etengabea izan da 2009tik eta garrantzi handiagoa hartu du barne eskaria suspertu den heinean. Horrek ez du adierazi nahi kanpo merkataritza ez dela esanguratsua EAEko ekonomiarentzat. Hain zuzen ere, bi fluxuen batuketak 2016an BPGaren %130 inguru izan zen. Baina esportazioek urte horretan lortu zuten bultzada (%2,2) konpentsatuta geratu zen inportazioen antzeko bizitasunarekin (%2,2).


## EAEko BPGari eginiko ekarpenak

3. irudia

Barne eskaria



Kanpo eskaria



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egin, Eustaten datuak erabilia.

Barne eskariaren barruan, bi osagai nagusiek antzeko hazkunde tasak eskuratu zituzten, aurreko urtean bezala, nahiz eta kapital eraketa gordinak bizitasun handixeagoa izan zuen. Zehazkiago adierazita, azken agregatu hori %3,3 handitu zen eta kontsumoan eginiko gastua, berriz, %3,0. Inbertsioaren bi atalen artean, ekipamendurako ondasunetan eginikoak berriro eskuratu zituen

emaitza bizienak (%7,5). Enpresen igurikimenek izan zuten hobekuntzak, interes tasa txikiek, ekoizteko ahalmenaren erabilera altuak eta eskarien gorakadak, beste arrazoi batzuen artean, lagundu zuten bultzada horretan. Hala eta guztiz ere, gainontzeko inbertsioaren hazkundera, eraikuntzan eginikoa barnean hartzen baitu, apalagoa izan zen (%1,4). Kontsumoaren osagaien artean, kontsumo pribatuak bilakaera hedakorrari eutsi zion (%3,1), enpleguaren gehikuntza garrantzitsuari, inflazio apalari, soldata errealean gehikuntza txiki bati, konfiantzaren hobekuntzari, aktiboek sortutako aberastasunari eta zuhurtziazko aurrezki txikiagoari esker. Aurreko bi urteetan ez bezala, 2016an kontsumo pribatua BPGaren hazkunde tasari egokitu zitzaion.

## EAE-KO TAULA MAKROEKONOMIKOA

3. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Barneko azken kontsumoa	-0,9	-1,4	-1,2	1,9	2,8	3,0
Familien kontsumoko gastua	-1,3	-1,6	-1,1	2,2	3,1	3,1
Herri administrazioen kontsumoa	0,7	-0,9	-1,8	0,7	1,8	2,2
Kapital eraketa gordina	-1,3	-7,0	-4,9	-0,5	2,8	3,3
Ekipamenduko ondasunak	3,7	-4,9	-3,4	3,3	6,5	7,5
Gainontzeko inbertsioa	-2,9	-7,7	-5,5	-2,0	1,2	1,4
Barne eskaria	-1,0	-2,8	-2,1	1,4	2,8	3,0
Esportazioak	1,4	-4,7	0,9	5,8	0,6	2,2
Inportazioak	-0,6	-5,7	0,3	5,3	0,6	2,2
<b>BPG</b>	<b>0,2</b>	<b>-2,0</b>	<b>-1,8</b>	<b>1,6</b>	<b>2,9</b>	<b>3,1</b>
Lehen arloa	7,6	10,9	-3,5	-19,8	13,4	1,6
Industria	1,3	-5,2	-2,7	2,0	3,9	3,3
Eraikuntza	-7,6	-7,6	-4,6	-1,7	0,5	1,6
Zerbitzuak	0,8	-0,4	-1,1	1,7	2,9	3,2
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-0,8	-2,5	-1,4	1,9	4,5	3,6
AA. PP., hezkuntza eta osasuna	3,4	0,4	0,6	2,6	2,5	2,4
Gainontzeko zerbitzuak	0,6	0,5	-1,9	1,0	2,0	3,3
Balio erantsi gordina oinarritzko preziotan	0,3	-2,1	-1,8	1,4	3,1	3,1
Ekoizkinean gainera zerga garbiak	-0,1	-1,1	-1,6	3,8	1,1	3,1

Iturria: Eustat.

Eskaintzaren ikuspegitik, adierazi behar da bi sektore nagusiek erakutsia zuten oreka areagotu dela, bi kasuetan gehikuntza tasa %3,0aren zertxobait gainera kokatu zelako. Hala eta guztiz ere, sektore bakoitzaren bilakaera kontrajarria izan zen. Izan ere, industriak bere balio erantsiaren gehikuntza %3,3ra moteldu zuen, aurreko datua baino sei hamarren gutxiago, eta zerbitzuek hiru hamarrenetan hobetu zuten 2015eko emaitza, %3,2an utzi arte. Eraikuntzak, berriz, bigarren urtez jarraian balio erantsia handitu zuen eta 2015eko emaitza ahula finkatu zuen, %1,6ko gorakada jaso arte. Beraz, sektore horrek berriro galdu du pisua EAEko ekoizpen egituran eta gero eta hurbilago dago Europako herrialdeetan, batez beste, dagoen balioetatik.

Zerbitzuetako jarduerak biltzen dituzten atalek bat egiteko prozesua bizi zuten 2016an eta beren gehikuntza tasak aurreko urteetakoak baino homogeneousagoak izan ziren. Esate baterako, merkataritza, ostalaritza eta garraioa (%3,6) ia puntu bat gutxiago hazi zen. Administrazio publikoari lotuta daudenek (%2,4) ia berdindu zuten aurreko datua. Azkenik, gainontzeko zerbitzuek erritmoa indartu zuten (%3,3).

**EAE-KO EKONOMIAREN BESTE ALDAGAI NAGUSI ZENBAIT**
**4. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Biztanleko BPG EAPan neurtuta (EB28=100)	120,8	119,6	117,6	118,4	119,1	121,5
Biztanleko BPG EAPan neurtuta (EB15=100)	99,9	98,5	97,0	97,7	98,9	100,7
BPG erreala merkatu prezioetan	0,2	-2,0	-1,8	1,6	2,9	3,1
Enplegua	-0,9	-3,3	-3,0	0,2	1,6	1,9
Lan faktorearen itxurazko produktibitatea	1,2	1,4	1,3	1,4	1,3	1,2
BPG nominala merkatu prezioetan	0,7	-1,9	-1,3	2,0	3,0	3,4
BPGaren deflatoea	0,4	0,1	0,5	0,4	0,1	0,3
KPI (urteko batez bestekoak)	3,1	2,3	1,6	0,2	-0,3	0,0
Kostu guztiak langile bakoitzeko	0,6	0,7	1,7	-1,0	-0,6	-0,9
Langabezia tasa	10,8	11,8	15,1	16,1	15,4	13,4

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Eurostaten eta INEren datuetan oinarrituta.

BPGak 2016an izan zuen hazkundeak aukera eman zuen Europarekiko egoera erlatiboa hobetzeko. Izan ere, eta erosteko ahalmenaren parekotasunean (EAP) neurtuta, EAEko

biztanleko BPGa Europako batez bestekoaren %121,5ean kokatu zen eta eremu horretako 15 herrialde garrantzitsuenak bakarrik kontuan hartzen badira, %100,7an. Bi alderaketa horietan begi bistakoa da bigarren atzeraldian galdutako zatia berreskuratu dela, baina oraindik ahalegin handiak egin beharko direla krisiaren aurreko mailara itzultzeko.

BPGaren gehikuntzak ez du tentsiorik sortzen prezioetan eta hala deflatoreak nola KPI indizeak oso balio apalak jaso zituzten urteko batez bestekoan. Hala ere, urtean zehar jaitsiera nabarmeneko egoera batetik gero eta garrantzitsuagoak diren gehikuntza batzuetara igaro zen urte amaieran. Petrolioaren salneurriak nazioarteko merkatuetan izan zuen bilakaerak eragin zuen aldakuntza hori, Brent motako upelaren prezioa urtarrilean 30 dolar (ia 29 euro) inguru izatetik abenduan 53 dolar (50 euro) izatera igaro zelako. Azken prezio hori da 2017ko lehen hilekoetan ere dagoena.

Lan faktorearen itxurazko produktibitate irabazia nabarmen igo zen langileko kalkulatzenean (%1,2), baina askoz ere txikiagoa da aldagai horren zenbatespena lan egindako orduko egiten denean (%0,1). Horrek garrantzia dauka lan kostu unitarioen (LKU) bilakaerari begira, lehiakortasuna aztertzeke orduan eskuarki erabiltzen diren moduetako bat baita. Izan ere, azken urteetan Euskadik lehiakortasuna hobetu du LKU gutxituz, lan kostuak igo ez direlako eta produktibitatea asko areagotu duelako. Litekeena da 2016an bilakaera onuragarri hori bertan behera geratu izana.

EAEko ekonomiaren hobekuntzak itundutako zergen bidezko diru bilketa %2,7 handitzea ahalbidetu zuen 2016an, aurreko urteko datua zertxobait hobetuz, baina urte horretako BPG nominalaren hazkundera (%3,4) iritsi gabe. Diru bilketaren hazkundera handiagoa izan zen zuzeneko zergetan (%3,5), PFEZri esker (%4,1), zeren eta Sozietateen zergaren diru bilketa berriro gutxitu zelako, hirugarren urtez jarraian. Beste aldetik, zeharkako zergek %2,3 gehiago bildu zuten.

EAEko administrazioek portaera ezberdinak erakusten dute finantzatzeko ahalmenaren eremuan. Alde batetik, Eusko Jaurlaritza ahaleginak egiten ari da bere defizita murrizteko eta erakundeen arteko konpromisoak betetzeko. Beste aldetik, foru aldundiek eta udalek aurrekontu superabitei eusten diete. Administrazio guztiak batuta, 2016an aurrekontu saldo positiboa lortu zela espero da, lehenengo aldiz 2008tik.

Moneta politikari dagokionez, bide ezberdinak hartu zituzten Europako Banku Zentralak, ekonomia bultzatzeko erabakiak hartu baitzituen, eta Erreserba Federalak, AEBetako interes tasak hainbat aldiz igo dituelako jadanik. Bilakaera kontrajarri horrek ez du euroaren truke tasan eraginik izan eta nahiko egonkor ibili zen 1,11 dolarretan, hala 2016an nola 2017ko lehen erdian.

EAEko arlo pribatua zorgabetzeko joera garbia erakusten ari da eta emandako kredituen pilaketak oso jaitsiera garrantzitsua izan zuen. Adierazle hori BPGaren %128,5 izatera iritsi zen 2010ean, baina 2016an %100aren inguruan kokatu zen. Azken urteetan, gehikuntza txiki-txiki bat hauteman da, higiezinaren merkatuak hobera egin duelako eta finantzazioa lortzeko orduan erraztasun handiagoa dagoelako. Aitzitik, arlo publikoak zorpetzea areagotu zuen berriro, nahiz eta kantitate horiek arlo pribatuarenak baino askoz ere txikiagoak diren eta hazkunde erritmoa zertxobait apaldu den.

Munduko ekonomiarentzat aurkeztu diren aurreikuspen berriek seinalatzen dute BPGaren gehikuntza bizkortuko dela 2017an eta 2018an. EAEko kasuan, bizitasun handiko abiapuntua duenez, 2017-2020 epealdirako aurkeztu den taula makroekonomikoak moteltze leuna iradokitzen du, 2017ko tasa %2,7an kokatuko duena, urtetik urtera apalduko dena 2020ean %2,2ra iritsi arte. Ekoizpenaren bilakaera on horrekin batera enpleguaren hazkundera eta langabezia tasaren jaitsiera etorriko dira, azken hori %9,1ean kokatuko baita 2020an, aurreikuspen horren arabera, Eusko Jaurlaritzak legealdirako ezarri duen helburua betez.

Aurreikuspen horiek kontuan hartuta, EAEko ekonomiaren BPG potentzialaren kalkuluak 2013an kokatzen du balio txikiena, hortik aurrera gorantz egiteko, eta 2017an maila bat jaitsiko den arren, epealdiaren amaieran (2020an) %2,0an kokatuko da. Beraz, potentziala baino gehiago hazita, *output gap*-a edo produkzio arraila positiboa izango da, baina gutxituz joango da 2020an %0,2 izan arte. Eusko Jaurlaritzako saldoa 2019an bertan nulua izango den arren, egiturazko defizita negatiboa izango da oraindik eta neurri gehiago beharko dira defizit hori ezabatzeko.

## 1. EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA

### 1.1 Munduko ekonomiaren bilakaera

Munduko ekonomiak pixkanaka-pixkanaka suspertuz joan zen 2016an aurreko urtekoan baino erritmo zertxobait apalago batean, bereziki ekonomia aurreratuetan bizi zen moteltzearen ondorioz. Izan ere, ekonomia jarduerak 2016ko bigarren erdian bakarrik hartu zuen bultzada, batez ere azaleratzen ari diren ekonomien hobekuntzari esker. Oro har, BPGaren hazkunde tasa %3,1 izan zen, 2015ekoa baino hiru hamarren txikiagoa, eta krisiaren aurretik zeuden mailen azpitik.

#### EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK

5. taula

	BPG erreala		Inflazioa		Langabezia tasa	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016
Mundua	3,4	3,1	2,8	2,8	---	---
Ekonomia garatuak	2,1	1,7	0,3	0,8	6,7	6,3
AEB	2,6	1,6	0,1	1,3	5,3	4,9
Japonia	1,2	1,0	0,8	-0,1	3,4	3,1
Europar Batasuna	2,2	1,9	0,0	0,2	9,4	8,5
Alemania	1,7	1,9	0,1	0,4	4,6	4,2
Frantzia	1,3	1,2	0,1	0,3	10,4	10,0
Erresuma Batua	2,2	1,8	0,1	0,6	5,4	4,9
Italia	0,8	0,9	0,1	-0,1	11,9	11,7
Espainia	3,2	3,2	-0,5	-0,2	22,1	19,6
Garapen bidean daudenak	4,2	4,1	4,7	4,4	---	---
Asia	6,7	6,4	2,7	2,9	---	---
Txina	6,9	6,7	1,4	2,0	4,1	4,0
Amerika Latinoa eta Karibea	0,1	-1,0	5,5	5,6	---	---
Trantsizioan dauden herrialdeak	4,7	3,0	3,2	3,2	---	---


Iturria: NDF, Txinako National Bureau of Statistics eta Eurostat.

Gertakari politiko garrantzitsu batzuek markatu eta baldintzatu zuten 2016. urtea, munduko ekonomiaren aurreikuspenak ilunduz. Ekainean, Erresuma Batua Europar Batasunetik irteteko erabakia hartu izanak ziurgabetasuna sartu zuen herrialde horretako eta Europar Batasun osorako aurreikuspen ekonomikoetan, nahiz eta une hartan ekonomian eta finantzian izan zuen eragina iragankorra izan. Harez geroztik, 2016ko azken hilekoetan, estatubatuar hauteskondeen Donald Trumpen aldeko emaitzak ziurgabetasun ekonomikoko beste pasarte garrantzitsu bat ekarri zuen, nahiz eta horrek ere, oraingoz, ez duen eragin esanguratsurik izan emaitza ekonomikoetan.


#### Barne produktu gordina Urte arteko aldakuntza tasak

4. irudia


Ekonomia garatuak




Azaleratzen ari diren ekonomiak



Europar Batasuna



AEB



Iturria: NDF eta Eurostat.

Lan merkatuaren hobekuntzak, finantzaziorako baldintza oso egokitzailak eta oraindik oso txikiak diren lehengaien prezioek, bereziki petrolioarenak, lagundu zuten ekonomia jarduera. Hala eta guztiz ere, ekonomia aurreratuek 2012an hasi zuten goranzko joera bertan behera utzi zuten. Zehazkiago adierazita, ekonomia horiek, oro har, %1,7 hazi ziren, 2015ean baino lau hamarren gutxiago. AEBetako bizitasun apalagoak, hazkunde tasa puntu batean murriztu baitzuen, eta Europar Batasuneko moteltzeak argitzen dute gehikuntza txikiago hori. Datu horien irakurketa positiboa Kontinente Zaharretik dator, 2011tik lehen aldiz AEBek baino gehiago hazi zelako. Dena dela, iparramerikar herrialdeak %1,6 handitu zuen bere ekonomia, azken hamasei urteko batez bestekotik (%1,8) hurbil.

Bost urtez jarraian gero eta gutxiago hazi ondoren, azaleratzen ari diren ekonomiek nahiko bilakaera egonkorra izan zuten 2016an, aurreko urteko emaitzarekin alderatuta, eta %4,1 hazi ziren. Tasa hori aurreko urtekoa baino hamarren bakar bat txikiagoa da eta pentsarazten du 2010ean hasitako beheranzko ibilbidea agian amaitu egin dela. 2010etik bi faktorek garrantzia berezia izan dute azaleratzen ari diren ekonomien bilakaeran: Txinako ekonomiak bizitasuna galdu izana eta lehengaiak esportatzen dituzten herrialde nagusietan bizi diren atzeraldiak. Bi joera horien egonkortzeak azaltzen du jaitsiera txikiago hori. Hala ere, oraingo hazkundera krisiaren aurrean lortzen zutena baino askoz ere murriztagoa izan zen berriro. Tentsio geopolitikoek, gehiegizko zorpetzeak eta, lehengaiak esportatzen dituzten herrialdeen kasuan, diru sarreren jaitsieratik eratorri den doikuntza motelak azaltzen dute hazkunde txikiago hori.

Beste aldetik, nazioarteko merkataritzak portaera ahula izan zuen 2016an, baina nolabaiteko hobekuntza hauteman zen urteko azken hilekoetan. Munduko inflazioa, berriz, neurritzeko hazi zen, petrolioaren salneurriaren aurreko beherakaden eragina desagertuz joan zelako eta ekoizteko ahalmenaren zati bat erabili gabe dagoelako.

## 1.2 Analisia herrialdeka

2011 arte, industriaren ekoizpenak Txinako BPGaren ia %50 ordezkatzeko zuten eta zerbitzuak ez ziren %40ra iristen. Familien aurrezki tasa oso altua zen eta kontsumoa BPGaren %35 zen, oso partaidetza txikia dena herrialde gehienekin alderatzen denean. Eredua aldatzea nahitaezkoa zen epe luzerako hazkunde orekatua eta iraunkorra lortzeko. Trantsizioa eta hazkunde gero eta txikiagoko urte batzuen ondoren, 2016an ekonomia jarduera egonkorra zen, kontsumoaren sendotasunak eta azpiegiturretan eginiko gastuak lagunduta. Hain zuzen ere, kontsumoa berriro izan zen hedaldiaren motor nagusia eta %64,6ko ekarpena egin zion BPG



nominalari. Orobat, zerbitzuek guztizkoaren %51,6 ekarri zuen, industriaren (eraikuntza barne dagoela) %39,8aren eta nekazaritzaren %8,6aren gaintik.

Zehazkiago adierazita, Txinak %6,7ko hazkunde ekonomikoa lortu zuen 2016an aurreko urtearen aldean. Datu hori 2015eko emaitza baino bi hamarren txikiagoa da, baina urteko azken zatian analisigileen aurreikuspenak gainditu zituen bizkortzea jaso zuen. 2016ko urte osoan, Asiako erraldoiaren hazkunde tasa berriro izan zen txikiena 1990tik, 2014an eta 2015ean bezala, baina bat etorri zen Pekineko helburuarekin, hots, BPGaren gehikuntza tasa %6,5aren eta %7,0aren artean kokatzeko xedearekin. Urrun daude iraganean lortzen ziren bi zenbakiko hazkunde tasa haiek. Hala eta guztiz ere, datu horiek baieztatzen dute ekonomia ereduaren aldaketa finkatuta dagoela eta ondo dabilela, eta motela izan arren Txinako ekonomiaren hazkundera sendoa eta indartsua dela.

AEBetan, ekonomia jarduerak moteltzeko joera garbia pairatu zuen. Lehen seihilekoa espero zena baino apalagoa izan zen, baina 2016ko bigarren erdian hazkundera bizkortu zen. Barne eskariak bakarrik bultzatu zuen herrialde hartako BPGa, kanpo arloak hamarren bat kendu ziolako jarduerari. Enpleguaren gehikuntzak eta familien balantzen sendotzeak kontsumo pribatuari bultzada eman zioten. Aldi berean, gehiegizko izakinek eta energian eginiko inbertsio txikiagoak inbertsio pribatuari kalte egin zioten, 2009tik lehen aldiz behera egin baitzuen, eta inbertsio publikoa murriztu zuten. Aurreko guztiaren ondorioz, estatubatuar BPGa %1,6 hazi zen, aurreko urtean baino puntu bat gutxiago.

Lan merkatuaren dinamismoak bizia izaten jarraitu zuen eta langabezia tasa berriro jaitsi zen, %4,7ra arte. Orobat, soldaten hazkundera suspertu zen urte amaieran. 2017ko lehen hilekoetan ere langabezia tasak maila horretan segitu du. Beste aldetik, seigarren urtez jarraian, bi milioi lanpostu berri sortu ziren herrialde horretan. Prezioen bilakaerari dagokionez, 2016ko erdialdetik, AEBetako inflazioa bizkortu da eta Erreserba Federalak ezarri zuen %2,0ko helburura hurbildu da. Hain zuzen ere, 2016ko amaieran inflazioa %2,1ean kokatu zen, 2011tik inoiz jaso den tasarik gorena baita. Gorakada horren atzean energiaren salneurrien garestitzea dago.

Japoniako ekonomiak egiturazko ahultasunak erakusten jarraitu zuen, bertako hazkunderaren sendotasuna zalantzan utziz. Izan ere, kontsumo pribatua, BPGaren %60 inguru biltzen baitu, ia aldaketarik gabe geratu zen, %0,4 bakarrik hazita. Adituen ustez fruten eta barazkien garestitzeak eragin du bilakaera hori. Ekonomia jardueraren hazkundera esportazioetan eta

inbertsioan oinarritu zen, bereziki egoitzetan eginikoan. Txinaren eskaria neurri batean suspertu izanak, hori baita Japoniaren lehen merkataritza bazkidea, kanporako bidalketak areagotu zituen. Halaber, yenak dolarraren aldean bizi zuen balio galera handiak japoniar produktuen lehiakortasuna handitu zuen, bereziki urte amaieran, Japoniako txanpona %15 merkatu zelako. Aurreko guztiaren ondorioz, BPGa %1,0 hazi zen.

Petrolioaren salneurriak nazioarteko merkatuetan izan zuen jaitsierak eragina izan zuen Japoniako KPIan eta kontsumoko prezioak beherantz eramane zituen, tasa negatibotan kokatu arte. Zehazkiago, 2016an KPIaren balantzea %-0,1ean itxi zen. Bilakaera horrek herrialde hartako banku zentrala behartu du inflazioa %2aren inguruan kokatzera zeukan helburua 2018tik harago atzeratzera. Datu positiboa lan merkatuaren eskutik iritsi zen, langabezia tasak beheranzko joerari eutsi ziolako eta urte amaieran %3,1era jaitsi zelako, azken 21 urteko mailarik apalena baita (2017ko lehen hiruhilekoan %2,9an kokatu zen).


Europar Batasuneko ekonomia hazkundera aurrera egin zuen 2016an ere, mundu mailan ziurgabetasun handia zegoen arren. EBZren moneta politika oso egokitzailerak ondorioak utzi zituen ekonomia errealean eta laguntza eman zion barne eskariari, 2013tik BPGaren hazkundera bultzatzeko papera betetzen ari den osagaia baita. Enpresen errentagarritasunaren hobekuntzak eta finantzatzeko baldintza onak inbertsioa sustatu zuten. Orobat, enpleguaren hazkundera iraunkorrak, errenta erreal eskuragarriaren gorakada ahalbidetu baitzuen, eta lehengaien prezio nahiko txikiak kontsumo pribatua sendotu zuten. Aurrekoaz gain, adierazi behar da kontsumoaren gehikuntza ez zela familien zorpetzean oinarritu eta horrek susperraldiaren iraunkortasuna eta sendotasuna indartzen du. Esportazioak, ordea, moteldu ziren, kanpo eskariak ahul segitu zuelako, inguruneke ziurgabetasunaren ondorioz. Aldi berean, euroak izan zuen balio galeraren eragin positiboak poliki-poliki desagertuz joan ziren. Oro har, Europar Batasuna %1,9 hazi zen 2016an, hots, aurreko urtean lortutako emaitza baino hiru hamarren gutxiago.

Zehatz-mehatz adierazita, Alemaniak eta Frantziak ez zuten aldakuntza handirik izan beren bilakaeran. Bi kasuetan, kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren sendotasunak barne eskaria bultzatu zuen, kanpo arloaren kenketa konpentsatuz. Izan ere, Alemaniaren BPGa %1,9 handitu zen, 2015ean baino bi hamarren gehiago, eta Frantziarena hamarren bat moteldu zen, %1,2ra arte. Italiak aurreko urteko datua hobetu zuen eta kontsumo publikoak jarduerari hamarren batzuk ekartzea lortu zuen, bost urtez etengabeko jaitsierak jaso ondoren. Hala ere, herrialde hartako hazkundera erritmoa eremuko herrialdeen atzeko aldean dago, BPGaren gehikuntza ez baitzen %1,0ra heldu.


**BPGaren bilakaera zenbait herrialdetan**  
Urte arteko aldakuntza tasak

**5. irudia**


Frantzia




Alemania




Erresuma Batua




Japonia



India



Txina



Iturria: NDF, Txinako Estadistika Erakunde Nazionala, Japoniako Estadistika Erakundea eta Eurostat.

Erresuma Batuak ere hazkunde biziari eutsi zion. Herrialde hartako gastua ez zen moteldu 2016ko ekaineko erreferendumean Europar Batasunetik irteteko erabakia hartu eta gero. Izan ere, kontsumo pribatua %2,8 areagotu zen, 2007tik inoiz eskuratu duen tasarik gorena delarik. Hala eta guztiz ere, britaniar ekonomiaren etorkizunaz hedatu den ziurgabetasunak inbertsioa kaltetu zuen, batez ere enpresena, aurreko urteetan, batez beste, %4,0tik hurbil zeuden hazkunde tasak bildu ondoren, %0,5era murriztu baitzen 2016an. Beraz, Erresuma Batuko BPGa %1,8 hazi zen urte horretan, 2015ean baino lau hamarren gutxiago, eta beheranzko joera horrek datozen urteetan ere jarraipena izango duela espero da.

Lan merkatuari dagokionez, Europar Batasuneko langabezia tasa berriro gutxitu zen 2016an eta %8,5ean kokatu, 2009ko erdialdetik jaso den txikiena baita (2017ko martxoan %8,0an zegoen jadanik). Tasa horrek esan nahi du lanik gabeko lagunen kopurua ia bi milioitan jaitsi zela. Nabarmenezkoak dira Alemania, Txekiar Errepublika, Hungaria eta Polonia, beraien lan merkatua onbideratuago dagoelako orain krisi ekonomikoaren aurretik baino. Beste muturrean, langabezia tasa altuenak izan zituzten berriro Greziak (%23,5) eta Espainiak (%19,6), nahiz eta Kroaziarekin (%12,8) batera beherakada bizienak jaso zituzten. Azkenik, inflazioak, KPI indizearen bitartez neurtuta, energiaren salneurrien eragina islatu zuen nagusiki. Beraren bilakaerak azaltzen du interes tasek 2016ko lehen hilekoetan izan zituzten maila txikiak, baita negatiboak ere. Halaber, inflazioa suspertu zen energiaren ekarpen negatiboak gutxitu ziren heinean. Izan ere, 2016ko KPIa %0,3an kokatu zen, 2015eko %0,0aren aldean. 2017ko lehen hilekoetan, energiaren etengabeko hazkundea gorantz bultzatu zuen KPIa, apirilean %2,0an kokatu arte, Europako banku zentralak ezarritako helburua betez.

### **1.3 Espainiako ekonomia**

2016an, Espainia nabarmendu zen berriro Europako herrialde nagusien artean, %3,2 hazi zelako, 2015eko erritmoa berdinduz. Tasa horri esker guztiz finkatuta geratu da 2014an hasitako susperraldia. Espainiako BPGa 1,113 bilioi eurora iritsi zen 2016an, Europar Batasuneko ekonomiaren %7,5 delarik. Beraz, hogeita zortzi kideen artean, bosgarren tokian dago. Beherantz zihon petrolioaren prezioak eta maila minimoetan zeuden interes tasa batzuek tipo aldakorreko hipoteken finantza zama gutxitu zuten eta zorgabetzeko prozesua erraztu zuten. Orobat, errenta sartu zuten espainiarren poltsikoetan eta horrek kontsumo pribatua eta, neurri txikiagoan, inbertsioa bultzatu zituen. Aldi berean, esportazioen bilakaera onak, lehiakortasuna bilatzen zuen balio galerak lagunduta, atzerriko merkatuen bilaketak eta

europar ekonomiak azken boladan izan duen hobekuntzak bide eman zioten kanpo saldoari ekonomia jarduerari lau hamarren ekartzeko.

**ESTATUKO TAULA MAKROEKONOMIKOA** **6. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2013	2014(B)	2015(A)	2016(A)
Azken kontsumoko gastua	-1,8	-3,8	-2,9	1,1	2,6	2,6
-Familien gastua kontsumoan	-2,4	-3,6	-3,2	1,6	2,8	3,2
-Administrazioaren gastua kontsumoan	-0,3	-4,7	-2,1	-0,3	2,0	0,8
Kapital eraketa gordina	-6,9	-8,6	-3,4	3,8	6,0	3,1
Esportazioak	7,4	1,1	4,3	4,2	4,9	4,4
Inportazioak	-0,8	-6,4	-0,5	6,5	5,6	3,3
<b>BPG</b>	<b>-1,0</b>	<b>-2,9</b>	<b>-1,7</b>	<b>1,4</b>	<b>3,2</b>	<b>3,2</b>
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza	4,4	-9,7	13,6	-1,6	-2,9	3,4
Erauzketa industriak eta manufaktura industriak	-0,2	-4,9	-3,9	1,8	5,5	2,4
Eraikuntza	-12,8	-8,8	-10,5	-1,2	0,2	2,5
Zerbitzuak	0,7	-1,5	-0,6	1,4	2,6	3,4
-Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	-0,1	-1,9	-1,7	1,8	4,6	4,4
-Informazioa eta komunikabideak	-0,2	1,6	3,3	5,7	5,0	5,6
-Finantza eta aseguru jarduerak	-2,4	-5,8	-7,1	-3,6	-7,5	-0,6
-Higiezinen jarduerak	2,8	2,4	1,3	0,3	-1,1	1,3
-Jarduera profesionalak	2,3	-3,8	-0,7	7,3	9,7	6,9
-Administrazio publ., osasuna eta hezkuntza	0,9	-1,8	0,1	-0,5	1,7	2,5
-Jarduera artistikoak eta olgetak	-0,2	-3,2	-0,2	0,0	0,6	1,1
Produktuen gaineko zerga garbiak	-5,6	-4,0	-4,3	2,9	6,7	4,2
Gogoratzekoak:						
-Kontsumo prezioen indizea	3,2	2,4	1,4	-0,2	-0,5	-0,2
-Enplegua	-2,8	-4,8	-3,4	1,1	3,0	2,9

(B) Behin-behinekoa (A) Aurrerapena.

Iturria: INE.

Eskaintzaren ikuspegitik, turismoaren portaera bikainak, beste helburu lehiakideren arriskuek lagunduta, petrolio gordinaren prezio apalak eta dolarraren aldean euroak daukan balio txikiak

mesedea egin zioten zerbitzuen sektoreari. Beste aldetik, eraikuntza bizkortu zen eta lehen arloak tasa positiboak berreskuratu zituen. BPGaren aurrerakada horri esker, espainiar ekonomia galdutako produkzio maila berreskuratzeko puntuan dago, ia hamarkada bat beranduago, baina oraingo egitura eta garai hartakoa oso ezberdinak dira. Alde batetik, esportazioek pisua irabazi dute eta 2007an BPGaren %25 baziren, 2016an %33 baino gehiago dira. Aitzitik, gaur egun enplegu, soldata masa eta inbertsio gutxiago dago, azken hori oso urrun baitago ekonomia jardueraren bultzagile nagusietakoa eraikuntza zen garai hartatik. Hain zuzen ere, 2007ko inbertsioa BPGaren %31 baino gehiago zen eta 2016an, berriz, ez zen %20,5era iritsi. Beste aldetik, langileen kopurua gaur egun 17,4 milioi pertsonatan dago, maximoa baino 2,5 milioi beherago, kontabilitate nazionalak kalkulatzen dituen lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta. Falta diren lanpostu haietatik 1,3 milioi eraikuntza alorrekoak dira.

## 2. EAE-KO BARNE PRODUKTU GORDINA

### 2.1 Ekoizpen arloak

EAEko ekonomiak oso bilakaera ona izan zuen 2016an eta ekonomia susperraldiaren finkatzea eta sendotasuna baieztatu zuen. Barne produktu gordinaren urte osorako batez besteko hazkunde tasa %3,1 izan zen bolumen kateatuko indizearen arabera eta %3,4, berriz, unean uneko prezioetan kalkulatu bada. Hainbat faktorek lagundu zuten EAEko ekonomiaren gehikuntza bizi horretan, hala nola petrolioaren prezio apalak, euroaren ahultasunak eta Europako Banku Zentralaren moneta politika egokitzailak.

Eskaintzaren ikuspegitik, jarduera adar guztiek ekarpen positiboak egin zizkioten EAEko balio erantsiaren hazkundeari. Alde batetik, industria eta zerbitzuak hazkunde globalaren bultzagile nagusiak izan ziren, hurrenez hurren %3,3 eta %3,2ko aldakuntza tasak eskuratuta, urteko batez bestekoan kalkulatu. Beste aldetik, nekazaritza eta arrantza biltzen dituen sektoreak, gorabehera handiak izaten dituen portaera batean, %1,6ko gehikuntza lortu zuen, eraikuntzarako zenbatetsi den tasa bera delarik. Eraikuntzak urte askoan pairatu zuen narriadura etengabea atzean geratu da eta sektore horren hazkundera, ahula izan arren, iraunkorra izango dela ematen du.

Lehen arloak %1,6 areagotu zuen bere balio erantsia 2016an, aurreko urtean %13,4ko hazkunde aparta lortu ondoren. Unean uneko terminoetan, 2016ko aldakuntza tasa %6,0ra iritsi zen, 2015ean lortutako %10,6ko bizkortzearen aldean. Horrek adierazten du sektorearen prezioak, deflatorearen bitartez kalkulatu, %4,4 igo zirela.

#### LEHEN ARLOKO ADIERAZLE NAGUSIAK

7. taula

Urte arteko aldakuntza tasak	2012	2013	2014	2015	2016
BEG bolumeneko indizea	10,9	-3,5	-19,8	13,4	1,6
BEG uneko prezioak	16,1	0,1	-8,9	10,6	6,0
Deflatorea	4,7	3,8	13,5	-2,4	4,4
Enplegua	0,8	-5,4	-1,3	-1,9	1,0
Produktibitatea	10,1	2,0	-18,7	15,6	0,6

Iturria: Eustat.

Lehen alorreko jardueran, 2016ko azken ekoizpena hazi egin zen nekazaritzan eta abeltzaintzan, baina jaitsi basozaintzan. Izan ere, nekazaritzaren ekoizpena azken lau urteko handiena izan zen, zerealen eta mahatsaren produkzioaren gorakada esanguratsuari esker. Aitzitik, beroak eta lehorteak beherakada garrantzitsuak ekarri zituzten fruta, barazki eta ekilorearen ekoizpenean. Beste aldetik, abeltzaintzaren ekoizpenak hazkunde hutsala lortu zuen, eta prezioak jaitsi zirenez, ekoizpenaren balioa murriztu zen. Basogintzari dagokionez, 2016ko ezaugarri esanguratsuenak mozketen jaitsiera izan zen, bereziki mendi publikoetan eta intsinis pinuarena. Basogintzaren azken ekoizpen horren balioak behera egin zuen, egurraren salneurriak goranzko joera neurritsua izan zuen arren. Basogintzaren azpiatal horretan, berrikuntza, garapena eta merkatu berriak bilatzea erronka handiak dira higiezinaren krisiaren aurreko jarduerak maila berreskuratzeko.

Arrantzari dagokionez, 2016ko kanpainaren ezaugarri nagusiak harrapaketen batez besteko bolumen egonkorra eta lortutako balioaren gorakada esanguratsua dira. Diru sarreren hazkundeak ekarri zuten faktoreak hegaluzearen eta bokartaren kanpaina onean oinarritzen dira. Bi espezie horiek pisu handia daukate EAEko ontzien jardueran eta arrain horien enkanteak, aurreko urteetako egoeraren aldean, hobekia izan ziren, hala bolumenean nola, bereziki, salmenten balioan.

2016an, EAEko industriaren susperraldia finkatuta geratu zen, jarduerak %3,3 gehitu zelararik. Datu hori esanguratsua izan arren, aurreko datuaren (%3,9) azpitik kokatu zen. Emaitza horri esker, sektoreak dagoeneko hiru urte kateatu ditu hazkunde positibo garrantzitsuak biltzen. Bizitasun horren oinarrian, EAEko barne eskariaren beraren hazkunde sendoa eta merkataritzako bazkideen goranzko joera ekonomikoa, bereziki EAEko esportazioak jasotzen dituzten herrialdeena, daude. 2016an portaera onena erakutsi zuen industria osagaia ekipamendurako ondasunena izan zen, inbertsio erabakiei oso lotuta baitago. Aitzitik, gainontzeko taldeek bilakaera motelagoa izan zuten.

EAEko industriari buruz eskura dauden koiunturako adierazleek erakutsi zuten norabidea koherentea da balio erantsiak izan duen bilakaerarekin. Izan ere, Eustatek zenbatetsi duen IPIaren seriearen joerak inguruneke ekonomia nagusiek eskainitakoa baino bizitasun handiagoa erakutsi zuen 2016an zehar, 2015ean baino hazkunde erritmo txikiagoko testuinguru orokor batean.

Ondasunak helburu ekonomikoaren arabera sailkatzen dituzten IPIaren talde gehienek hazkunde tasa positiboak eskuratu zituzten 2016an, salbuespen bakarra energiaren ekoizpena



izan zelarik. Hain zuzen ere, ekipamendurako ondasunen ekoizpenak sendotasun handiena erakutsi zuen eta bizkortze garrantzitsua jaso zuen. Ondoren, bitarteko eta kontsumoko ondasunen produkzioaren gehikuntza hutsalak etorri ziren.

**EAE-KO INDUSTRIAREN BEG-AREN BILAKAERA****8. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak.

	2012	2013	2014	2015	2016
BEG bolumeneko indizea	-5,2	-2,7	2,0	3,9	3,3
BEG uneko prezioetan	-4,3	-2,7	0,8	3,8	3,3
Deflatoarea	0,8	0,0	-1,2	-0,1	0,0
Enplegua	-5,4	-4,3	-1,6	-1,1	1,6
Produktibitatea	0,2	1,6	3,7	5,1	1,6
Industria produkzioaren indizea	-5,9	-3,1	1,4	3,5	2,3
Industria giroaren indizea	-23,0	-21,2	-12,6	-3,9	-4,9
Ekoizteko ahalmenaren erabilera	74,2	71,7	76,1	79,7	81,1


Iturria: Eustat eta Energia, Turismo eta Agenda Digitalaren Ministerioa.

Era berean, Energia, Turismoa eta Agenda Digitalaren Ministerioak argitaratzen duen enpresen iritzien inkesta erabilita osatzen den industria giroaren indizeak (IGI) IPIaren bilakaera bera erakutsi zuen. Hain zuzen ere, IGIaren hilekoko datuek hobekuntza joera markatu zuten krisi garaia aldean, baina oraindik balio negatiboko eremuan kokatuta daude. Beste aldetik, industria alorreko establezimenduen ekoizteko ahalmenaren erabilera %81,1ean kokatu zen 2016an. Ehuneko hori 2008tik EAeko industriarako inoiz zenbatetsi den daturik gorena da.

Informazio kualitatibo hori osatzeko, azpimarratu behar da udaberrian egin zen Industria Koiunturaren Behatokia parte hartzen duten klusterren balorazioak oso positiboak izan zirela, fakturazioan eta I+G+b ataletan igurikimen bereziki baikorrak azaldu baitzituzten. Eskari zorroz, esportazioez eta enplegu sorreraz eman zituzten erantzunak ere baikorrak izan ziren. Are gehiago, parte hartzaile batek ere ez zuen uste hasi berria zen seihilekoan jarduera okertuko zenik.

Industriaren portaera Eustatek hamabost jarduera azpisektoretan argitaratzen duen balio erantsiaren zenbatespenetik zehazkiago aztertzen denean, garraio materialak eta produktu informatiko eta elektronikoen ezagutu duten bizkortze handia hautematen da. Aitzitik, beherakada handienak erazketa industriaren eta material eta ekipamendu elektrikoan gertatu ziren.

**EAEko industria ekoizpenaren ziklo bilakaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera** **6. irudia**  
 Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Industriaren lan merkatuari dagokionez, nabarmendu behar da sektorea lanpostuak sortzen hasi zela. Izan ere, enpleguaren hazkunde tasa %1,6an kokatu zen, zortzi urtez jarraian lanpostuak etengabe galdu ondoren lortzen den lehen datu positiboa delarik. Datu horrek eta balio erantsi gordinaren gehikuntzarenak iradokitzen dute lan faktorearen itxurazko produktibitatearen irabazia %1,6 izan zela 2016 industrian, EAEko ekonomiaren batez bestekoa baino gehiago, baina sektore horretarako nahiko apala dena.

Eraikuntza jarduerak susperraldia finkatu zuen eta ekarpen positiboa egin zion EAEko balio erantsiari 2016an. Urteko batez bestekoa, sektorearen hazkundera %1,6an kokatu zen, 2008tik inoiz eskuratu duen emaitzarik onena baita. Sektorearen azpiatalak aztertuta, portaera ezberdina hautematen da. Izan ere, hobekuntza eraikinen atalean bakarrik gauzatu zen, obra zibilak nariadura sakonean murgilduta jarraitu zuen bitartean. Zehazkiago adierazita, Eustatek argitaratzen duen eraikuntzaren koiuntura indizearen arabera, eraikinen arloaren 2016ko gorakada %3,9ra iritsi zen eta obra zibilaren jaitsiera, ordea, %10,9an. Beste aldetik, etxebizitzaren salneurriak pairatu zuen jaitsierak sektorean gertatu den doikuntza agerian uzten du, neurri batean eraikinen atala bultzatu duena.

**ERAIKUNTZA ARLOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK****9. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2014	2015	2016
BEG bolumeneko indizea	-7,6	-4,6	-1,7	0,5	1,6
BEG uneko prezioak	-11,4	-8,0	-2,1	0,7	2,0
Deflatorea	-4,0	-3,6	-0,4	0,2	0,4
Enplegua	-12,9	-11,9	-3,4	-0,4	0,0
Produktibitatea	6,0	8,4	1,8	0,9	1,5
Etxebizitzaren salerosketak	-17,2	-12,4	8,8	21,1	11,6
Prezioa €/m <sup>2</sup>	-3,5	-20,8	4,4	-3,7	-18,1
Hasitako etxebizitzak	-43,7	-21,8	-7,6	-16,9	---
Amaitutako etxebizitzak	-24,5	-32,9	-16,8	15,4	-37,4
Bisatuak. Etxebizitzaren kopurua	-36,4	-10,2	0,6	40,1	-14,0
Zementuaren itxurazko kontsumoa	-28,0	-23,2	11,8	-4,9	-3,1

Iturria: Eustat, INE, Oficemen eta Sustapen Ministerioa.

Lan merkatuaren ikuspegitik, 2016an eraikuntzaren balio erantsiak izan zuen hazkundeak ez zuen enpleguan inolako aldakuntzarik ekarri. Hala eta guztiz ere, iazko bigarren seihilekoan lanpostuen sorreran tasa positiboak jaso ziren jadanik, nahiz eta tamaina hutsalekoak ziren. Hori ez zen sektorean gertatzen 2007tik eta iradokitzen du eraikuntzaren doikuntza luzea amaitzen ari dela.

Zerbitzuen urte arteko hazkunde tasa 2016an %3,2 izan zen. Emaidza horrek hiru hamarrenetan hobetu zuen aurreko urtean eskuratutako balio erantsiaren datua. Zerbitzu jardueraren hobekuntza hori orokorra izan zen jarduera adarra osatzen duten azpiatal guztietan. Hain zuzen ere, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldeak bizitasun handia erakutsi zuen bere jardueran eta hazkunde tasa %3,6an kokatu zen. Beste aldetik, administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak barnean hartzen dituen atala %2,4 areagotu zen. Hirugarren multzoan, gainontzeko zerbitzuak batzen baititu, urte arteko hazkunde tasa %3,3 izan zen.

**ZERBITZU ARLOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK****10. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2014	2015	2016
BEG bolumenen indizea	-0,4	-1,1	1,7	2,9	3,2
BEG uneko prezioak	0,1	-0,6	2,0	3,1	3,8
Deflatoarea	0,5	0,6	0,3	0,2	0,6
Enplegua	-1,6	-1,6	1,1	2,6	2,1
Produktibitatea	1,2	0,4	0,5	0,3	1,1
Bidaiarien gaualdiak	1,0	-3,1	4,0	8,2	8,9
Batez besteko egonaldia (egunak)	1,91	1,89	1,92	1,91	1,94
Plazen betetze maila (ehunekoak)	46,10	44,30	46,40	49,80	53,00
Zerbitzuen koiuntura indizea	-6,2	-5,0	1,3	2,5	2,7

Iturria: Eustat.

Merkataritzako azpiatalari dagokionez, jarduera horretarako eskura dauden adierazleek bizitasun esanguratsua irudikatzen dute. Esate baterako, Eustatek argitaratu duen zerbitzuen koiuntura indizeak hazkunde ibilbide sendoa deskribatzen du motorra duten ibilgailuen

salmentan eta konponketan, handizkako merkataritzan eta txikizkoan. Merkataritzako jardueraren hedatze horrek enpleguaren hazkundera ekarri zuen txikizkakoan 2016an.

## ZERBITZUEN BEG-AREN BILAKAERA AZPISEKTOREKA. BOLUMENAREN INDIZE KATEATUA

11. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2014	2015	2016
<b>Zerbitzuak guztira</b>	<b>-0,4</b>	<b>-1,1</b>	<b>1,7</b>	<b>2,9</b>	<b>3,2</b>
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-2,5	-1,4	1,9	4,5	3,6
AA. PP., hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak	0,4	0,6	2,6	2,5	2,4
Gainontzeko zerbitzuak	0,5	-1,9	1,0	2,0	3,3

Iturria: Eustat.

Ostalaritzak ere hobekuntza erakutsi zuen 2016. urtean. Hala zerbitzuen koiuntura adierazleak nola Eustatek argitaratzen duen establezimendu turistiko hartzaileen inkestak ostalaritzaren goranzko joera bera azaltzen dute. Are gehiago, 2016an inoizko daturik onena lortu zen Euskadi bisitatu zuten turistak batez besteko egonaldian, 1,94 egunetara iritsi zelako. Oro har, establezimendu turistikoaren inkestak aztertzen dituen aldagai guztiek hobera egin zuten aurreko urteko datuen aldean. Izan ere, plazaka neurtutako betetze maila %53,0ra iritsi zen eta gaualdien kopurua %8,9 handitu zen urte arteko tasan. Aurreko datu guztiek 2015eko emaitzak gainditu zituzten.

EAEko turismoak bizi duen une gozoa agerian uzten duen beste datu bat hotelen eskaintza da, 2016an handitu zelako, turismo alorreko inkestak berak jasotzen duenez. Estatistika iturri horretan ere bidaiarien sarrera zenbatzen da eta 2016ko batez bestekoa %7,6 hazi zen aurreko urteko datuaren aldean. Hazkunde hori orokorra izan zen eta Estatuko gainontzeko erkidegoetatik etorritako turistetara (%5,9) nola atzeritik iritsitakoetara (%10,4) hedatzen da. Goranzko joera horrek baieztatzen du Euskadi helburu erakargarria dela turismo zirkuituetan.

Beste aldetik, lanbide, zientzia eta teknika jarduerak eta jardura administratibo eta zerbitzu laguntzaileak ere beren jardura areagotu zuten. Zerbitzuen koiuntura adierazleak hazkunde positiboak eta garrantzitsuak erakutsi zituen horietarako guztietarako. Garraioari dagokionez, AENAK 2016rako argitaratu dituen datuek jardueraren gorakada garrantzitsua erakusten dute


EAEko aireportuetan, programatutako hegaldietan, bidaiarietan eta garraiatutako salgaien bolumenean.

## 2.2 Eskaria


2016an zehar, EAEko ekonomiak goranzko joera garbia bizi zuen, neurri handi batean, barne eskariaren bizitasunari esker. Barne eskariaren osagai guztiek parte hartu zuten ekonomia jardueraren bizkortze horretan. Bilakaera positiboa kapital eraketa gordinaren bultzada sendoan, batez ere ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioaren atalarenean, eta familiek azken kontsumoan eginiko gastuak izan zuen mantentzean oinarritu zen. Hain zuzen ere, familien kontsumoak %3,1ari eutsi zion, 2015ean eskuratu zuen aldakuntza tasa berdinduz. Beste aldetik, hazkunde handiena lortu zuen osagaia inbertsioa izan zen, %3,3ko gehikuntza bat eskuratuta, aurreko urteko emaitza bost hamarrenetan gaituz. Kontsumitzaileen eta enpresarien igurikimeneak baikortasun esanguratsuko mailan jarraitu zuten, ekonomia hazkundera biziagotu zuten kontsumo zein inbertsioko erabakiak ekarri zituztenak. Halere, Estatuan zegoen ziurgabetasun politikoak eta Brexitak neurri batean ekonomia eragileen konfiantza kaltetu zuten.

**Barne eskariaren osagaien hazkundera** **7. irudia**  
**Urte arteko aldakuntza tasak**

Barneko azken kontsumoa



Kapital eraketa gordina



Iturria: Eustat.

Familiak azken kontsumoan eginiko gastua %3,1 hazi zen 2016an, aurreko urteko tasa berdinduz. Kontsumitzaileek portaera baikorra erakutsi zuten erosteko erabakietan. Aberastasunaren igoera, finantzaziorako erraztasuna, petrolioaren prezio merkea eta enpleguaren hobekuntza dira kontsumoaren gorakada lagundu duten faktore nagusiak. Beste aldetik, administrazio publikoen gastuak hazkunde moteleko ibilbide batean murgilduta jarraitu zuten eta %2,2ko urte arteko tasa eskuratu zuten.

Arlo pribatuan, kontsumoaren adierazle guztiek gastuaren aldeko joera erakutsi zuten. Esate baterako, txikizkako merkataritza indizeak, Eustatek argitaratu dituen datuen arabera, hazkunde tasa positiboak jaso zituen 2016an eta 2015ean markatu zuten jarduera mailari eutsi zion. Ondasun iraunkorrei dagokienez, turismoen matrikulazioak gora egin zuten berriro, nahiz eta hazkunde tasak aurreko bi urteetakoak baino txikiagoak izan ziren. Ibilgailu zaharrak ordezkatzeko PIVE 8 plana urteko lehen seihilekoan egon zen indarrean. Beste aldetik, Espainiako Bankuak arlo pribatuari 2016an emandako banku kredituaz eman dituen datuek hazkunde positiboa erakusten dute, hainbat urtez aldakuntza tasa negatiboak biltzen egon ondoren.

## ERRENTEN ADIERAZLEEN BILAKAERA

12. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2014	2015	2016
Soldatapekoen ordainketa	-3,6	-1,8	0,2	2,1	---
Urtean indarrean dagoen soldata igoera	2,7	1,3	0,7	0,6	1,0
Enplegua	-3,3	-3,0	0,2	1,6	1,9
Pentsioen kopurua (*)	1,3	1,7	1,4	1,2	1,2
Batez besteko pentsioa (*)	2,9	3,2	1,8	2,0	2,0
PFEZren diru bilketa	0,2	-1,5	2,9	5,9	4,1
Banku arteko interes tasa (urte baterako euriborra)(**)	1,1	0,5	0,5	0,2	0,0
KPI	2,3	1,6	0,2	-0,3	0,0

(\*) Hilabeteko lehen eguneko datuen arabera kalkulaturako urteko batez besteak. (\*\*) Hilabeteko batez bestekoekin osaturako urteko batez bestekoak. Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioaren, Lan Harremanen Kontseilua, INEren eta Espainiako Bankuaren datuetan oinarrituta.

Kontsumitzailearen konfiantzak hobekuntza neurrtsua izan zuen 2016an aurreko urtearekin alderatuta. Laboral Kutxak eginiko indizearen arabera, EAeko familiak aurreikuspen hobek

zituzten beren egoera ekonomikoari eta enpleguaren hobekuntzari buruz. Elementu horiek bultzada eman zioten azken kontsumoan eginiko gastuari.

**EGINDAKO KONTSUMOAREN ADIERAZLEEN BILAKAERA****13. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2014	2015	2016
Kontsumo pribatua (bolumen indizea)	-1,6	-1,1	2,2	3,1	3,1
Kontsumo publikoa (bolumen indizea)	-0,9	-1,8	0,7	1,8	2,2
IPI kontsumo ondasunak. EAE	-4,1	-5,1	-2,2	5,2	0,2
IPI kontsumo ondasunak. Estatua	-5,0	-2,1	1,7	1,4	2,1
Automobilen matrikulazioa	-13,3	7,9	18,7	18,5	4,9
Txikizkako merkataritzaren indizea	-4,7	-3,9	0,0	1,7	1,6

Iturria: Eustat, INE eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Kapital eraketa gordinak aurreko urteko hazkunde positiboa finkatu zuen eta %3,3ko aldakuntza tasa lortu zuen epealdi horren aldean. Ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioa izan zen osagai dinamikoena. Barneko azken eskariaren hazkundeaz zeuden igurikimen onek, inguruneko herrialdeen hobekuntzak eta finantzaziorako baldintza egokiek oinarri bikaina sortu zuten enpresen inbertsioko egitasmoak aurrera ateratzeko.

**KAPITAL ERAKETA GORDINAREN ETA BERE ADIERAZLEEN BILAKAERA****14. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2014	2015	2016
Kapital eraketa gordina (bolumenen indize kateatua)	-7,0	-4,9	-0,5	2,8	3,3
- Ekipamendurako ondasunak	-4,9	-3,4	3,3	6,5	7,5
- Gainontzeko inbertsioa	-7,7	-5,5	-2,0	1,2	1,4
IPI ekipamendurako ondasunak:	-6,2	-3,2	1,6	7,4	8,7
- IPI garraio materiala	-10,3	-2,9	0,3	3,8	16,6
- IPI makineria eta ekipamendua	-1,1	-0,1	1,3	6,9	2,6
Ekipamendurako ondasunen inportazioak	2,3	-7,2	-2,3	40,9	12,7
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	-18,5	-3,0	13,3	32,4	6,2

Iturria: Eustat eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.



Kapital eraketa gordinaren hedaldia begi bistan geratu zen agregatuaren adierazle nagusiek erakutsi zuten norabidean. Ekipamendurako ondasunen adarrari dagokionez, inbertsioaren sendotasuna areagotu zen 2016an. Izan ere, ekipamendurako ondasunen barneko ekoizpenak bizitasun esanguratsua jaso zuen, bereziki garraio materialaren adarrean. Beste aldetik, ekipamendurako ondasunen inportazioek ere goranzko bilakaera horrekin bat egin zuten. Inbertsioaren beste adierazle bat, zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa, sendo hazi zen, baina nolabaiteko moteltzea erakutsi zuen, neurri batean, aurreko urteko emaitza apartekin alderatzen delako.

Tradizionalki, salgaien munduko merkataritzak munduko BPGa baino 1,5 aldiz bizkorrago hazteko joera erakutsi du. Baita bi aldiz bizkorrago ere, laurogeita hamarretako hamarkadan gertatu zen bezala. Hala ere, finantza krisiaren ondoren, munduko merkataritza eta ekoizpena antzeko erritmoan hazten ari dira. 2016an, Txinako ekonomia bat-batean hoztuko zelako beldurrari, petrolio ekoizleen hondoratzeari eta Amerika Latinoko hainbat herrialdetan, Brasiletik hasita, hauteman ziren desoreka larriei Europar Batasunak eta AEBek urteko lehen hilekoetan izan zuten erritmo galera gehitu zitzaien. Aurreko guztiak merkataritzaren hazkundera apaldu zuen eta erlazio hori 1aren azpian kokatu zen. Atzera egin behar da 35 urtez orain bizi den antzeko bilakaera bat edo okerrago bat aurkitzeko.

**MUNDUKO ONDASUNEN MERKATARITZA BOLUMENEAN ETA BPG ERREALA**

15. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016
<b>Ondasunen munduko merkataritza.</b>	<b>2,4</b>	<b>2,7</b>	<b>2,6</b>	<b>1,3</b>
Esportazioak				
Herrialde aurreratuak	1,7	2,4	2,7	1,4
Garapen bidean dauden herrialdeak	4,0	3,0	2,0	1,3
Inportazioak				
Herrialde aurreratuak	0,0	3,6	4,7	2,0
Garapen bidean dauden herrialdeak	4,6	1,7	0,5	0,2
BPG erreala merkatuko truke tasan	2,2	2,6	2,6	2,3
Merkataritza eta BPG* arteko erlazioa	1,1	1,0	1,0	0,6

(\*) BPGaren datuak NDF, ELGE eta Nazio Batuen erakundearen batez besteko estimazioan arabera kalkulatu da. Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundera (MMA).

Salgaien merkataritzaren bolumena gutxiago hazi zen 2016an, baina tasa positiboa eskuratu zuen. Aitzitik, merkataritzaren balioa dolarretan %3,3 jaitsi zen 2015eko datuaren aldean eta 15,8 bilioi dolarretan kokatu zen, 2010etik jaso den zenbaki txikiena delarik. 2014an bezala, oinarritzko produktuen salneurriek eta truke tasek lagundu zuten, neurri handi batean, 2016ko merkataritzaren emaitza txar horiek eskuratzen. 2014tik bizi den petrolioaren eta metalen merkatzeak eskualde esportatzaileen diru sarrerak gutxitu zituzten, inportatutako produktuen erosketa murriztuz. Horri gehitu behar zaio inbertsioaren bizitasunaren galera, BPGaren osagaien artean gehien inportatzen duena baita, ekonomia aurreratuetan zein garapen bidean daudenetan eragina izan zuena.


Hala eta guztiz ere, datu horrek (%-3,3) nazioarteko salmenten beste beherakada bat jasotzen duen arren, hobekuntza bat da 2014an jaso zen %13,5eko amiltzearen aldean. Prezioen susperraldiak eta ekonomia nagusiek 2016ko amaieran erakutsi zuten ezusteko sendotasunak bide eman zieten esportazioei gora egiteko iazko azken hilekoetan eta, neurri batean, aurreko hilekoetako jaitsierak konpentsatzeko. 2017ko lehen hiruhilekoan jaso den bilakaera ikusita, badirudi txarrena atzean geratu dela.

Eskualdeka aztertuta, atzerakada orokorra izan zen, baina energiako produktuak eta, neurri txikiagoan, produktu naturalak esportatzen dituzten eskualdeek kalte handiagoa pairatu zuten. Hain zuzen ere, petrolio esportatzen duten herrialde afrikarrak %27,6 murriztu ziren eta Ertaineko zein Hego Amerikako ekonomiak %5,6. Tamaina handikoa izan zen Errusiaren beherakada ere (%-17,5); petrolioaren ekoizle handienetako bat izanik, lehengai horren merkatzeak eragin zuzena izan zuen bertako ekonomian.

Orobat, hogeitaz ondusun saltzaile nagusien artean agertzen diren Asiako sei herrialdeen artean, Japoniak bakarrik lortu zuen emaitza positibo bat (Txinak %-7,7, Koreak %-5,9, Singapurrek %-4,9, Indiak %-1,3, Japoniak %3,2 eta Taiwanek ez du daturik). Horrek erakusten du merkataritzako salerosketen bultzadan oinarritutako eredu batetik barne eskarian oinarritutako beste batera pasatzeak Txinaren bazkide nagusien artean izan duen eragina, Txina munduko lehen esportatzailea eta bigarren inportatzailea baita. Azkenik, Europar Batasuneko salmenten %63 eremuaren barnean egiten dira. Horren ondorioz, Kontinente Zaharrak kalte gutxien izan zuen eskualdea da. Are gehiago, Europar Batasunaren barruko esportazioak %1,1 areagotu ziren, baina ez ziren nahiko izan munduko gainontzeko tokietan izan zuten jaitsiera konpentsatzeko. Oro har, Europar Batasuneko esportazioak %0,3 murriztu ziren.

**Ondasunen esportazioak dolarretan**  
**Urte arteko aldakuntza tasak**

8. irudia




Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA).

EAEko merkataritzari dagokionez, munduko esportazioan duen kuota, EAEk atzerrian saltzen duenak munduko salmenten guztizkoan duen partaidetza neurtzen baitu, %0,16an kokatu zen. Ehuneko hori eta 2015ean lortutakoa (%0,15) oso antzekoak dira eta urrun daude oraindik 2008an eskuratu zen %0,19 hartatik. Maila hori krisian galdu zen eta oraingoz ez da berreskuratu. Seria 1995ean hasi zenetik 1998an bakarrik gainditu da %0,20ko langa. Inportazioei dagokienez, antzeko joera bizi da. 2006tik 2008ra doan epealdian gehienezko datua (%0,18) lortu ondoren, krisia piztu zenetik ehuneko hori nabarmen murriztu zen %0,11 arte; 2012tik ia aldakuntzarik gabe mantendu da maila horretan. Egonkortasun horrek

iradokitzen du EAEko ekonomiak atzerriko produktuekiko daukan mendekotasuna gutxitu duela.

**EAEko ondasunen esportazio eta inportazioen merkatu kuota munduko merkataritzarekiko** **9. irudia**  
**Ehunekoak**



Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA) eta Eustat .

Merkataritza salerosketak (ondasunak eta zerbitzuak) kanpoarekin (atzerria gehi Estatuko gainontzeko erkidegoak) eta bolumenean neurtuta aztertzen direnean, EAEko ekonomiak %2,2ko gehikuntza jaso zuen, hala esportazioetan nola inportazioetan. Tasa horrek hobekuntza garrantzitsua ekarri zuen 2015ean pairatutako moteltze biziaren ondoren (%0,6). Bi aldagai horiek eurotan kalkulatu badira, antzeko joera ikusten da, nahiz eta aldatzeko bizitasuna nabarmen geldotzen den. Izan ere, esportazioak %0,9 hazi ziren eta inportazioak, berriz, %0,6, bi kasuetan tasa positiboak berreskuratuz. Prezioen beherakadak azaltzen du bi neurri horien arteko aldea.

Euskadik Estatuko gainontzeko erkidegoekin (erkidegoen arteko merkataritza) eta hiru lurralde historikoen artean (erkidegoaren barneko merkataritza) eginiko ondasunen (zerbitzurik gabe) merkataritza fluxuak aztertzeke orduan, C-Interreg-eko informazioa dago eskuragarri. Azken bi urteetarako datuak aurreikuspenak dira, koiunturako adierazleetan oinarrituta. Bada, datu horiek iradokitzen dute Estatura esportatutako ondasunen balioa %3,2 gutxitu zela 2016an,

aurreko urteko emaitzarekin alderatuta. Beste aldetik, gainontzeko erkidegoetatik ekarritako inportazioak %5,3 murriztu ziren. Bi bilakaera horiek ikusita, 2016ko merkataritza saldoa -64 milioi eurokoa zen. Horrek esan nahi du gainontzeko erkidegoekiko merkataritza defizita txikiagoa izan zela 2016an aurreko bi urteetakoa baino, 2012an eta 2013an superabita lortu ondoren.

**EAE-KO ONDASUNEN MERKATARITZA ERKIDEGOEN ARTEAN ETA ERKIDEGOEN BARNEAN** **16. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2011	2012	2013 (B)	2014 (A)	2015 (*)	2016 (*)	Milioi € 2016(*)
<b>Erkidegoen arteko merkataritza</b>							
Esportazioak	-2,9	-10,1	-12,0	-0,5	3,6	-3,2	13.498,9
Inportazioak	-4,5	-21,4	-5,7	7,8	4,3	-5,3	13.562,7
Saldoa guztira (milioi €)	-102,7	1.863,6	788,2	-276,0	-377,4	-63,8	-63,8
<b>Erkidegoen barneko merkataritza</b>							
Guztira	9,2	-0,7	-1,0	0,9	-22,1	5,1	7.663,5

(B) Behin-behineko datuak. (A) Aurrerapena (\*) Aurreikuspena.

Iturria: C-interreg proiektua.

Kanpo merkataritzaren ahultasun hori are argiagoa da atzerriarekin eginiko ondasunen salerosketak aztertzen badira, Eustatek argitaratutako informazioa erabiliz. Kasu horretan, esportatutako produktuen balioa %1,6 gutxitu zen 2015ean jasotakoaren aldean. Joera hori bat dator merkataritzak oro har izan duenarekin. 2015ean bezala, energiako produktuen beherakadak paper garrantzitsua jokatu zuen salmenten guttizkoaren bilakaeran, zeren eta energiaren bestelako esportazioak areagotu baitziren. Zehazkiago adierazita, erregai mineralen balioa eurotan %29,2 jaitsi zen. Halako beherakadarik 2009an bakarrik gáinditu zen (%-30,5), nazioarteko merkataritza hondoratu zen urtean. Petrolioaren salneurriak izan zuen jaitsiera handiak eragin zuen hondoratze hori. Izan ere, esportatutako energia tonatan %14,4 gutxitu zen, eurotan murriztu zenaren erdia. Horrek agerian uzten du prezioek izan zuten beherakada handia.

Zehatz-mehatz adierazita, energiaren bestelako produktuen multzoak %1,7ko hazkundera lortu zuen. Tasa hori txikia da eta urrun dago krisiaren aurretik eskuratu ziren bi zenbakiko gehikuntza haietatik, baina aurreko urteko geldotasunarekin apurto du. Produktu horien artean,

garraio materialaren bilakaera bikaina nabarmendu zen, bereziki automobilena, EAEko egitura esportatzailean pisu gehien duten taldeetako bat baita, atzerrian saldutakoa %24,7 areagotu zuelako. Neurri txikiagoan, paperaren salmenta ere (%6,8) nabarmendu behar da. Halere, bultzada handi hori gainontzeko talde handiek konpentsatu zuten, bereziki metal arruntek eta beren manufakturek (%-10,7), jaitsiera areagotu zutelako, eta makinek eta tresnek (%-3,6).

Inportazioei dagokienez, bigarren aldiz jarraian balioa galdu zuten (%-8,0). Esportazioetan gertatu zen bezala, inportazioetan ere erregai mineralen merkatzeak guztiz baldintzatu zuen jaitsiera hori. Hain zuzen ere, inportatutako erregaien balioa %29,6 murriztu zen aurreko urteko datuaren aldean. Aldakuntza horretatik, %14,1 erositako kantitateari dagokio eta gainontzekoa salneurriaren aldakuntzari. Inportatutako gainontzeko produktuek %0,2ko gehikuntza hutsala jaso zuten eta hazkunde positiboak paperak (%5,2) eta ekipamendurako ondasunek, hala makinek eta tresnek (%13,2) nola garraio materialak (%13,1), bakarrik lortu zituzten.

## ONDASUNEN MERKATARITZA ATZERRIAREKIN

17. taula

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2011	2012	2013	2014	2015	2016 (*)	Milioi € 2016(*)
<b>Esportazioak</b>							
Guztira	14,6	2,4	-1,6	9,1	-2,9	-1,6	21.595,6
Ez-energetikoak	14,4	0,6	-0,8	4,1	0,4	1,7	19.926,1
Energetikoak	16,7	20,8	-8,7	57,5	-23,4	-29,2	1.669,5
<b>Inportazioak</b>							
Guztira	12,2	-8,6	0,9	7,4	-1,8	-8,0	15.483,8
Ez-energetikoak	11,6	-7,3	-1,9	4,2	12,4	0,2	12.233,4
Energetikoak	13,4	-11,2	6,6	13,4	-26,3	-29,6	3.250,3
<b>Saldoa</b>							
Guztira (milioi €)	3.178,5	5.146,6	4.670,3	5.377,1	5.032,1	6.111,9	6.111,9
Ez-energetikoak (milioi €)	7.236,8	8.185,0	8.234,6	8.556,5	7.284,6	7.692,7	7.692,7

(\*) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioeko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Salerosketa horien guztien ondorioz, merkataritza saldoa EAEren aldekoa izan zen eta 6.112 milioi eurora iritsi zen, aurreko erregistro guztiak gainditzen duen kopurua delarik. Saldoaren hobekuntza energiaren defizitak izan zuen murrizketa biziaren ondorioz iritsi zen, beraren saldo negatiboa 2015eko 2.360 milioi euroetatik 2016ko 1.674 milioietara gutxitu zelako. Energiatz bestelako saldoa 7.693 milioi eurora igo zen, 2015eko kopurua gaindituz, nahiz eta 2014an eskuratu zen maximotik (8.556 milioi euro) urrun.

2016an, EAEko salmenten igoerak herrialde garatuetan gauzatu ziren (%1,0), garapen bidean dauden helburuek erosketak berriro murriztu zituzten bitartean (%11,8). Horren ondorioz, Euskadik esportatu zuen guztiaren %81,5 ELGEko herrialde batera joan zen. Halako ehunekorik ez zen 2007tik lortzen. Aipamen berezia merezi du erregai mineralen datuak, saldutako guztiaren %92,7 herrialde garatuetara bideratu zelako, garapen bidean dauden ekonomietara gainontzeko %7,3 bakarrik eramanez. 2009an, berriz, azaleratzen ari diren herrialdeetara %28 bidali zen. Ekonomia horiek azken urteetan pairatu duten ahultasunak azaltzen du pilaketa hori. Garapen bidean dauden herrialdeetara batez ere makinak eta ibilgailuak bideratu ziren.

Herrialde garatuen artean, AEBetara bidalitako esportazioen beherakada (%-10,5) nabarmendu behar da. 2015ean hasi zen beheranzko joerak indar handiagoa hartu zuen 2016an, batez ere energiaren prezioen beherakadak eraginda. Hain zuzen ere, herrialde horrek Euskadin egiten dituen erosketak guztietatik %40 inguru erregai mineralak izaten dira eta produktu horiek %22,3ko jaitsiera izan zuten. Beherakada horri gehitu zitzaizkion beste produktu esanguratsu batzuen murrizketa, hala nola makineriarena eta galdaketa manufacturena, biek jaitsiera handiak ezagutu zutelako, bai bolumenean bai prezioan. Beste muturrean kokatu ziren Japoniara bidalitako salmentak, nahiz eta herrialde horrekin dagoen merkataritza harremana oso txikia den. Ibilgailu automobilen salmentak azaltzen du gorakada bikain hori (%192,0), esportatutako guztiaren %73,2 produktu horiek direlako.

Europar Batasunak, oro har, aldeko portaera erakutsi zuen EAEko produktuen salmentarekin, %0,7 areagotu zirelako. Hazkunde hori ez da bereziki handia, baina garrantzia dauka 2015ean pairatu zen %1,6ko jaitsieraren ondoren. Aurreko urteetan eremuko lau ekonomia nagusiek erosketak areagotu bazituzten ere, 2016an Alemaniak bakarrik hobetu zituen aurreko urteko emaitzak. Herrialde horretara bideratutako esportazioak %4,4 hazi ziren, ibilgailu automobilen merkataritzari esker, %22,7 hazi zelako eta salmenta guztien %51 bereganatu zuelako. Produktu kimikoen erosketak ere areagotu zen.

Aitzitik, Frantzia, Erresuma Batua eta Italia saldutakoa murriztu zen, azken bi herrialde horietan nabarmenago (%-9,4 eta -%9,0, hurrenez hurren). Frantzia, ekipamendurako ondasunek eta paperak eta bere manufakturrek bakarrik lortu zituzten hazkunde positiboak, baina ez ziren nahiko izan gainontzeko atalen jaitsierak konpentsatzeko. Italiako merkatuak makinak eta tresnak zein plastikoak erosi zituen, baina gehikuntza horrekin ez zuen berdindu gainontzeko taldeen jaitsiera. Azkenik, Erresuma Batua, esportazioen beherakada orokorra izan zen eta produktu kimikoen eta kautxuaren salmenta bakarrik hazi zen, baina pisu txikia daukate gutzizkoan eta ez zuten datu globala balio positiboetara eramanez.

## EAE-REN ETA ATZERRIAREN ARTEKO MERKATARITZAREN HELBURUA

18. taula

	Urte arteko aldakuntza tasak						Milioi €
	2011	2012	2013	2014	2015	2016(*)	2016(*)
<b>Esportazioak</b>	<b>14,6</b>	<b>2,4</b>	<b>-1,6</b>	<b>9,1</b>	<b>-2,9</b>	<b>-1,6</b>	<b>21.595,6</b>
ELGE	17,6	2,1	-1,0	9,0	-0,7	1,0	17.603,2
Europar Batasuna	18,2	-0,1	-3,6	12,3	-1,6	0,7	14.178,9
Alemania	23,9	-1,8	-0,4	4,8	3,2	4,4	3.360,0
Frantzia	12,1	8,0	-7,2	1,3	3,2	-1,4	3.583,9
Erresuma Batua	24,9	14,8	-13,8	14,0	2,3	-9,4	1.296,7
Italia	9,6	-19,7	-3,7	9,9	13,0	-9,0	1.077,6
AEB	13,8	0,9	12,4	15,0	0,6	-10,5	1.573,0
Japonian	28,8	43,3	20,4	-60,4	90,8	192,0	183,2
Errusia	26,7	-8,8	4,6	-3,6	-12,3	13,4	191,6
Txina	16,1	-11,1	18,1	28,5	-30,5	20,0	530,1

(\*) Behin-behineko datuak.


Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioeko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Garapen bidean dauden herrialdeen artean, EAEko esportazioen helburu behinena Txina izan zen berriro, 530 milioi euro baino gehiago gastatu zuelako bertoko produktuetan, 2015ean baino %20,0 gehiago. Horri esker, EAEko esportazioen bederatzigarren merkatu nagusia da gaur egun. Diru kopuru horretatik, 160 milioi euro metalak eta beren manufakturrak erostera bideratu ziren, gaur arteko kopururik handiena baita. Esportazioen bultzada sendo horrek atzean uzten du 2015eko jaitsiera garrantzitsua eta Asiako erraldoiak 2016an lortu zuen egonkortasunari esker, badirudi salmentek berreskuratu dutela aurreko urtean galdutako merkatu kuotaren zati bat. Halere, Txinara bidalitako esportazioek gorabehera handiak izan



dituzte serie historikoan zehar eta, horren ondorioz, zaila da bilakaera aurreikustea. Errusiaren bilakaera Txinarena bezalakoa izan zen, baina kasu horretan ibilgailuen salmentak bultzatu zituen esportazioak. Txanponaren ifrentzua Brasilek eskaini zuen, bertako zailtasun ekonomikoen ondorioz EAEko produktuen erosketa %35,2 murriztu zuelako. Eremu horretako helburu nagusien artean, Mexikora esportatutakoa %6,3 hazi zen eta Turkiara bidalitakoa, berriz, %9,0. Bi tasa horiek garrantzitsuak dira, baina 2015eko emaitzen azpitik daude.

**Ondasunen esportazioak eta inportazioak ekoizkin motaren arabera** **10. irudia**  
**Ehunekoak**



Iturria: Eustat. 2016eko datuak behin behinekoak dira.

Dagoeneko aipatu denez, inportazioen beherakada are biziagoa izan zen. Murrizketa hori herrialde garatuen multzora (%-7,7) eta azaleratzen ari direnen taldera (%-8,5) iritsi zen. Lehenengoan artean jaitsiera 2016ra mugatu bazen, garapen bidean dauden herrialdeena hirugarren urtez jarraian gauzatu zen. Bi kasuetan, energiako produktuen merkatzeak baldintzatu zuen osorik beherakada hori, esportazioen kasuan baino are gehiago inportazioetan, energiaren atalak inportazio guztien %22 bereganatzen duelako, esportazioen kasuan %8,0 besterik ez den bitartean.

Europar Batasunetik ekarritako inportazioak %8,1 murriztu ziren. Kontinente Zaharretik batez ere galdaketa manufakturak eta makina eta tresna mekanikoak inportatu dira historikoki. Horiei 2014an eta 2015ean energiako produktuak gehitu zitzaizkien, zeren eta Europar Batasunetik 2013an energiako produktuen %2,2 inportatzenetik 2014an %18,0 eta 2015ean %14,0 ekartzera pasatu zelako. Produktu horien jatorria batez ere Erresuma Batua da. Dolarrak balio asko irabazi izanak eta aurreko urteetan bizi ziren gatazka geopolitikoek energiako produktuen erosketa tokiz aldatu zuten eta Erresuma Batua bihurtu zuten EAEn eragileen hornitzaile nagusia erregai mineralen atalean. 2016an, truke tasaren egonkortzeak eta gatazkek baretu izanak Erresuma Batuari kendu zioten hornitzaile nagusiaren papera eta erosketak %52 inguru gutxitu ziren. Beraz, Euskadik erosi zuen energia guztiaren %25 hornitzetik zenbaki horren erdia bakarrik bidaltzera pasa zen herrialde britainiarra. Errusiak berreskuratu zuen bere papera hornitzaile nagusi gisa, 2002tik betetzen zuen tokia baitzen, eta EAEn saldutakoa oso nabarmen areagotu zuen. Zehazkiago adierazita, Errusiatik inportatutakoa %33,4 hazi zen.

EAEn ekonomiaren hornitzaile nagusia Alemania izan zen eta atzerrian erositako guztiaren %16,8 herrialde hartatik etorri zen (gutxienez 1990etik jaso den ehunekorik handiena da hori). Inportazio horietan oso pisu esanguratsua dute makinek eta tresna mekanikoek, eta ibilgailu automobilek. Are gehiago, harreman hori biziagotu zen, jatorri horretako inportazioak %9,5 hazi zirelako. Frantzia joera horretatik urrun geratu zen, erosketa guztien %10,4 bereganatuta, metal arruntak eta manufakturak, eta tresna mekanikoak nagusiki direlarik. Bi talde horien murrizketa garrantzitsuak erosketen %8,9ko jaitsiera eragin zuen.

AEBek, Errusiak bezala, energia hornitzaile gisa galdu zuten eremuaren zati bat berreskuratu zuten. Hala ere, energiako produktuen erosketa %19,3 hazi zen arren, igoera hori ez zen nahiko izan gainontzeko taldeen jaitsiera orokorra konpentsatzeko. Beraz, AEBetatik ekarritako inportazioak %3,9 gutxitu ziren. Energiaren erosketak lortu zuen gehikuntza kenduta, inportazioen beherakada %8,4ra iritsiko zen.

Garapen bidean dauden herrialdeek hobekuntza arina erakutsi zuten 2015eko emaitzaren aldean eta jaitsiera leundu zuten. Ere horretako salmentak neurri handi batean energiako produktuak dira. Hain zuzen ere, azaleratzen ari diren herrialdeetan erosten diren produktu guztien ia erdia (%45,8) erregai mineralak dira. Emaitza horretan garrantzia handia dute lehenago aipatu den Errusiak energiaren alorrean berreskuratu duen merkatu kuota eta, neurri txikiagoan, Brasilen hobekuntza. Dena dela, Txinako inportazioen jaitsierak, dagoeneko

Errusiakoek duten pisua ia berdindu baitute, eta eremuko gainontzeko herrialdeenak hobekuntza hori konpentsatu zuten eta eremu osotik inportatutakoa %8,5 murriztu zen.

## EAE-REN ETA ATZERRIAREN ARTEKO MERKATARITZAREN JATORRIA

19. taula

	Urte arteko aldakuntza tasak						Miloi €
	2011	2012	2013	2014	2015	2016(*)	2016(*)
<b>Inportazioak</b>	<b>12,2</b>	<b>-8,6</b>	<b>0,9</b>	<b>7,4</b>	<b>-1,8</b>	<b>-8,0</b>	<b>15.483,8</b>
ELGE	8,0	3,9	-0,5	11,9	4,0	-7,7	10.909,4
Europar Batasuna	7,7	-4,7	-2,8	25,5	7,8	-8,1	9.311,5
Alemania	19,2	1,9	-6,2	5,2	19,4	9,5	2.606,8
Frantzia	8,7	-6,1	-1,4	-2,2	11,1	-8,9	1.618,0
Erresuma Batua	2,1	-30,6	-5,2	187,8	14,8	-51,7	814,1
Italia	1,6	4,0	-16,1	2,8	2,2	3,5	863,7
AEB	65,3	-12,9	40,8	-52,5	3,1	-3,9	374,4
Japonian	-2,8	1,7	-14,6	-1,0	2,1	58,5	201,5
Errusia	15,6	-24,3	19,0	-36,0	-47,2	33,4	1.126,8
Txina	2,7	-7,6	-3,3	15,7	25,0	-11,1	1.042,9

(\*) Behin-behineko datuak.


Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

### 3. LAN MERKATUA

#### 3.1 Biztanleria eta aktibitatea

Etorkizunean lan merkatuak izango duen bilakaera aurreikusteko behar diren gakoetako bat lan egiteko adinean dagoen biztanleriaren bilakaera aurreratzea da, bereziki 20 urtetik 64ra doan zatiarena. Biztanleriaren piramidea kontuan hartuta, Lanbidek eta Cepredek prospektiba ariketa bat egin dute 2030 arte egongo den biztanleria potentzialki aktiboa zenbatesteko. Azterlan horren arabera, biztanleria hori gutxituko da epealdia aurrera joango den heinean, batez ere erdialdeko taldeak -35etik 49 urtera doana- aktiboak galduko dituelako urte horietan, laurogeietan gertatu zen jaiotzeen beherakadaren ondorioz.

**EAEko aktiboen eta landunen bilakaera** 11. irudia  
**Lagunak**



Iturria: CEPREDE, Eustat eta Lanbide.

Biztanleriaren piramidetik eta bertan hautematen den zahartzetik eratortzen den beste alderdi garrantzitsu bat da 2017-2030 erreferentzia epealdian erretiroa hartuko duten langileak ordezkatzeko beharra. Aipatu den azterlan horren arabera, ordezkapenerako eskaria 19.000 lagunena da aurten, baina 25.000 pertsonatara areagotuko da epealdi horren azken urteetan. Horri gehitu behar zaio ekonomiaren hazkundetik eratortzen den langileen beharra. Aurreko

guztiak pentsarazten du urte gutxiko epean langabezia altuko eszenategi batetik hutsik dauden lanpostuak betetzeko langileak beharko direlako beste batera igaroko dela. Irtenbidearen zati bat lan merkatuaren partaidetza (aktibitate tasa) handitzea izango da, baina kanpotik talentua erakartzea ere beharrezkoa izango da.

Testuinguru horretan, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lan merkatuak 2015ean izan zuen hobekuntza baieztatuta geratu zen 2016. urtean ere, lau urtez jarraian, hain zuzen ere 2009tik 2013ra doan epealdi luzean, lanpostuak etengabe galdu eta gero. Aipatu berri den enplegu sorrera horri esker lanik gabe zeuden pertsonen kopurua nabarmen gutxitu zen, langabezia tasa beherantz eramanez. Halaber, bilakaera on horrek jarraipena izan du 2017ko lehen hilekoetan ere.


Aipatu den bilakaera on hori egiaztatuta geratu da lan merkatua aztertzen duten estatistika iturri guztietan. Zehazkiago azalduta, aldakuntza tasak BJA inkestak zenbatetsi zuen %1,2aren eta BAI inkestak kalkulatu zuen %2,9aren artean kokatu ziren. Bi estatistika horiek langile kopuru berdintsua eman zuten, bietan 900.000 lagunen langa gutxigatik gaingaitzen baitzen. Bi tasa horien artean geratu ziren Eustatek osatzen dituen kontu ekonomikoen datua (%1,9) eta Gizarte Segurantzako erregistroa (%2,0), nahiz eta balio absolutuetan azken hori nabarmendu baitzen landun gehien jaso zuelako.

Afiliazioaren gehikuntza tasa %2aren inguruan egonkoritu da azken hiruhilekoetan, bizitasun handia iradokiz. Zerbitzuen sektoreko hainbat adarretan lortu zen enplegu sorrerak azaltzen du bereziki bultzada hori. Adar horien artean, ostalaritza nabarmendu behar da, turismoaren hazkunde garrantzitsuari esker. Halaber, arlo publikoak garrantzia duen beste adar batzuek ere, hala nola hezkuntzak eta osasun arloko jarduerak, hazkunde bizia izan zuten, azken horiek biztanleriaren zahartzearen ondorioz.

Eustaten kontu ekonomikoen arabera, jarduera arlo guztiek enplegua sortu zuten 2016an, aurreko urteetan ez bezala. Hala eta guztiz ere, sektore bakoitzak bizitasun eta hazkunde profil ezberdina erakutsi zuen. Esate baterako, eta eraikuntzarekin hasita, azpimarratu behar da jarduera horrek aldakuntza tasa ia hutsala (%0,0) aurkeztu zuela, baina aurreko urtekoa baino lau hamarren altuagoa, 2015ean hasi zen eta urte amaierara luzatu zen bizkortze bati esker. Azken hiruhilekoetan, tasa positiboak berreskuratu zituen. Industriak, berriz, %1,6 areagotu zuen langileen kopurua, neurri handi batean kostu txikiagoak zituelako, euroak balioa galdu zuelako eta finantzaziorako erraztasunak zeudelako. Azkenik, zerbitzuak, enplegua sortzeko

erritmoa leundu zuten arren (%2,1), berriro izan ziren enpleguaren bilakaera onaren arduradun behinenak.

**Enpleguaren bilakaera EAEn Pertsonak** **12. irudia**



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantzak eta INE.

Eustaten kontu ekonomikoen datuek agerian uzten dute zerbitzuek 2014an eta 2015ean izan zuten bilakaera onari industriaren bultzada gehitu zitzaiola 2016an. Hain zuzen ere, sektore

horrek bere enplegua %1,6 areagotzea lortu zuen, etengabeko jaitsierak biltzen zortzi urtez igaro eta gero. Urte horietan, zeuzkan langile guztien laurdena galdu zuen. Eraikuntzak ezin izan zuen enplegurik berreskuratu, baina gutxienez ez zuen gehiago galdu.

## ENPLEGUA SEKTOREKA

20. taula

Urte arteko aldakuntza tasak


	2011	2012	2013	2014	2015	2016
<b>Enplegua guztira</b>	<b>-0,9</b>	<b>-3,3</b>	<b>-3,0</b>	<b>0,2</b>	<b>1,6</b>	<b>1,9</b>
- Enplegua lehen arloan	-4,9	0,8	-5,4	-1,3	-1,9	1,0
- Enplegua industrian	-1,3	-5,4	-4,3	-1,6	-1,1	1,6
- Enplegua eraikuntzan	-9,9	-12,9	-11,9	-3,4	-0,4	0,0
- Enplegua zerbitzuetan	0,5	-1,6	-1,6	1,1	2,6	2,1

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustateko datuetan oinarrituta.


## Enplegu tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn

13. irudia

Gizonak



Emakumeak



Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.

Iturria: Eustat.


Analisia BJA inkestan fokutzen bada, nabarmendu behar da landunen kopurua berriro hazi zela, 2015ean bezala, eta emakumeek portaera hobea erakutsi zutela, aurreko urteetan gertatu

zen modu berean. Hori horrela izanda, bi generoen artean dagoen lan arraila berriro murriztu zen. Dena dela, egia da arrail hori oraindik garrantzitsua dela, enplegu tasek agerian uzten dutenez. Izan ere, 2016an gizonen enplegu tasa %53,9an kokatu zen eta emakumeena, berriz, %45,0an zegoen, oraindik ia bederatzita puntu beherago, nahiz eta hobekuntza handia izan eta historiako erregistrorik gorena lortu.


Prestakuntzak eta giza kapitalak aipamen berezia merezi dute lan merkatuaren analisiaren barruan. Izan ere, biztanleria aktiboaren gaineko inkestek eskura jarri duten informazioak agerian uzten du ikasketa maila altuagoa duten pertsonen aukera gehiago dauzkatela lanpostu bat lortzeko. Zehazkiago, BAIren 2016ko datuek adierazten dute goi mailako ikasketak zituzten pertsonen enplegu tasa %73,7ra iritsi zela, gainontzeko taldeen tasaren gainetik. Orobat, ikasketa altuena duten lagunen langabezia tasa %8,3 zen, biztanleria osoarena %12,6 izan zen bitartean.

**Enpleguaren bilakaera hezkuntza mailaren arabera** **14. irudia**

Enplegu tasa



Langabezia tasa



Iturria: INE.

Enpleguaren bilakaera onak lanik gabeko pertsonen kopurua 2015ean baino gehiago murriztea ahalbidetu zuen, langabezia tasa gutxituz (%13,4ra jaitsi zen 2015eko %15,4tik). Hala eta guztiz ere, neurri batean langabeziaren jaitsiera biztanleria aktiboaren murrizketak ekarri zuen, biztanleriaren zahartzearen ondorioz. Gertakari hori partaidetza tasaren jaitsieran hauteman





zen (%57,0an kokatu zen 2016an eta %57,6an zegoen 2015ean). Halaber, langabezia tasa oraindik Euroguneko batez bestekoa baino hiru puntu gorago dago eta gazteenen kolektiboaren langabezia tasa %30aren inguruan dago, aldibaterakotasun handiarekin.

## Langabezia tasaren bilakaera EAEn

15. irudia

BJA

BAI





Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.  
Iturria: Eustat eta INE.

## Langabezia tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn

16. irudia

Gizonak

Emakumeak



Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.  
Iturria: Eustat.

Langabezia tasaren bilakaeran, azken hamarkadetan bi generoen artean gauzatu den bat egitea nabarmendu behar da. Izan ere, 2005aren eta 2014ren artean langabezia tasa oso antzekoa izan zen, batez bestekoa hartuta, gizonen eta emakumeen taldeetan (%8,8). Azken urteetan, emakumeen tasa gizonena baino zertxobait txikiagoa izan zen, baina 2016an hobekuntza handiagoa izan zen azken horien artean, nahiz eta alde handirik ez egon (%13,3 gizonentzat eta %13,6 emakumeentzat).

### 3.2 Enpleguaren erregulazioa eta kontratazioa

Beste aldetik, enplegua erregulatzeko dosierrek aurreko urteetan erakutsitako beheranzko joerari segida eman zioten eta dosierren kopurua jaitsi zen modalitate guztietan. Orobat, dosierren eragina pairatzen duten langileen kopurua ere murriztu zen. Hobekuntza hori lortu zen enplegua erregulatzeko prozedura azken urteetan sustatu den arren. Izan ere, lan agintarien alde aurreko kontrola bertan behera geratu zen eta dosierra justifikatzen duten argudio ekonomikoak zabaldu ziren.

#### ENPLEGUA ERREGULATZEKO EUSKADIN BAIMENDU DIREN DOSIERRAK 21. taula

	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Dosierren kopurua	1.560	2.636	2.426	1.434	695	446
Eragindako langileak	22.072	37.429	31.790	16.747	8.108	6.283
<i>Dosier mota</i>						
- Lanaldia murriztekoa	2.203	5.466	5.814	3.196	1.530	1.172
- Behin-behineko etetea	17.991	28.627	24.104	12.091	5.718	4.473
- Kontratua amaitzekoa	1.878	3.336	1.872	1.460	860	638

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikak Saila.

Hala ere, ekonomiaren susperraldi nabarmenak bidea itxi zion dosierren igoerari. Beraien artean, nabarmendu behar da kontratua amaitzeko dosierretan zeuden langileen kopuruak izan zuen jaitsiera. Horrek adierazten du enpresak lanpostu gutxiago kentzen ari direla mekanismo horren bitartez.

Azkenik, erregistratutako kontratueta aldakuntza positiboa lortu zen berriro, baina aurreko bi urteetako baino txikiagoa. 2016an, kontratu mugagabeek protagonismoa galdu zuten lan harremanetan. Hain zuzen ere, %0,2 gutxitu ziren 2015ean egindako kopuruaren aldean. Halakorik ez zen 2011tik gertatu. Urte horretan beherakada askoz ere handiagoa (%-13,4) gertatu zen.

## ERREGISTRATUTAKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA

22. taula

	Kontratuak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2016	2011	2012	2013	2014	2015	2016
<b>Guztira</b>	<b>905.528</b>	<b>2,2</b>	<b>-6,6</b>	<b>1,1</b>	<b>12,1</b>	<b>14,1</b>	<b>6,5</b>
Lanaldi osoko mugagabeak	24.774	-13,4	5,4	5,4	34,0	12,4	-0,2
Obra edo zerbitzukoak	156.823	4,0	-11,8	-3,1	8,7	9,2	1,3
Abagunekoak	231.322	-2,9	-12,5	2,1	13,9	20,5	10,9
Lanaldi laburrekoak	361.012	5,0	1,1	5,3	12,3	12,8	8,6
Prestakuntzakoak (*)	8.284	2,7	-13,7	14,3	36,3	29,8	-11,6
Gainontzekoak	123.313	4,8	-8,9	-6,5	8,5	13,2	2,8

(\*)Prestakuntzako kontratueta, lanaldi laburreko praktika kontratuak sartzen dira.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Enplegurako Estatuko Zerbitzu Publikoaren (SEPE) datuak erabiliz.

## 4. PREZIOAK

2016an zehar, petrolioaren prezioak nazioarteko merkatuetan izan zuen bilakaerak inflazioaren norabidea baldintzatu zuen. Izan ere, petrolio gordinaren salneurria hazten hasi zenean, prezioak aztertzen dituzten adierazle guztiek aurreko urtekoak baino balio altuagoak markatu zituzten. Goranzko joera hori 2017ko lehen hilekoetara ere hedatu zen, baina martxotik aurrera berriro apaldu ziren.

### 4.1 Deflatoreak

Analisia BPGaren deflatorearekin hasita, seinatu behar da adierazle horrek oso gehikuntza apala aurkeztu zuela 2016. urtean, nahiz eta esportazioen deflatoreak eta inportazioenak berriro balio negatiboak jaso zituzten. BPGaren deflatorea aurreko urtean nabarmen gehiago haziko dela aurreikusten da, behin kanpo arloarekin zerikusia duten aldagaien deflatoreak (esportazioena eta inportazioena, hain zuzen ere) igotzen hasten direnean, petrolioaren eta beste lehengai batzuek oraingo mailaren aldean biziko duten garestitzeak bultzatuta.

#### DEFLATOREEN BILAKAERA

23. taula

	2011	2012	2013	2014	2015	2016
<b>BPGaren deflatorea</b>	<b>0,4</b>	<b>0,1</b>	<b>0,5</b>	<b>0,4</b>	<b>0,1</b>	<b>0,3</b>
Barne eskariaren deflatorea	1,1	0,0	0,8	0,0	0,1	0,1
Kontsumo pribatuaren deflatorea	2,5	2,0	1,6	0,2	-0,1	-0,1
Kontsumo publikoaren deflatorea	-1,3	-3,4	0,3	0,1	0,2	0,4
Inbertsioaren deflatorea	-0,6	-2,7	-0,8	-0,5	0,5	0,5
Esportazioen deflatorea	6,9	1,2	-1,3	-2,0	-1,4	-1,3
Inportazioen deflatorea	7,5	0,9	-0,7	-2,5	-1,3	-1,5

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta

## 4.2. Kontsumo prezioak

Kontsumoko prezioen indizeari dagokionez, urte arteko tasa gorantz joan zen urtea amaitu arte, urte osoko batez bestekoa %0,0an utzita, aurreko urteko %-0,3aren aldean. Petrolioaren garestitzeak azaltzen du bilakaera hori. Hain zuzen ere, lehengai horren upelaren prezioa 2016ko urtarrilean 31 dolarretan zegoen, baina urtea amaitu zenean 53 dolarretara iritsi zen. Prezioak gorarazi zituzten arrazoien artean, petrolioaren alorreko estatubatuar enpresen inbertsioen murrizketa, petrolio gordina esportatzen duten herrialdeetan bizi zen nahasmenduaren larriagotzea eta LPEEek eta Errusiak ekoizpena murrizteko sinatu zuten akordioa seinalatu behar dira.

Energiaz bestelako gainontzeko lehengaiak ere gora egin zuten 2016an, baina bilakaera ezberdinak erakutsi zituzten. Alde batetik, nekazaritzako lehengaiak iazko lehen zatian garestitu ziren, eguraldi ezegokiaren ondorioz, baina udan hazkunde horiek apaldu ziren gariaren eta beste zerealen uzta onek eraginda. Beste aldetik, metalen prezioak maila apaletan egon ziren denbora batez, etorkizunerako eskariaren igurikimenez hobera egin zuten arte, buruan Txina eta AEB zeudelarik.

### KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

24. taula

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2012	2013	2014	2015	2016	Ekarpena
<b>Inflazioa guztira (%100)</b>	<b>2,3</b>	<b>1,6</b>	<b>0,2</b>	<b>-0,3</b>	<b>0,0</b>	<b>0,0</b>
<b>Azpiko inflazioa (%82,6)</b>	<b>1,5</b>	<b>1,6</b>	<b>0,3</b>	<b>0,7</b>	<b>0,9</b>	<b>0,7</b>
KPI landutako elikagaiak (%14,1)	3,3	3,1	0,0	1,1	0,9	0,1
KPI industriako ondasunak (%26,6)	0,3	0,5	0,1	0,3	0,8	0,2
KPI zerbitzuak (%41,9)	1,7	1,8	0,6	0,8	1,1	0,4
<b>Hondarreko inflazioa (%17,4)</b>	<b>6,1</b>	<b>1,4</b>	<b>-0,6</b>	<b>-4,5</b>	<b>-4,2</b>	<b>-0,7</b>
KPI landugabeko elikagaiak (%6,8)	2,7	3,7	-1,2	1,9	2,6	0,2
KPI energia (%10,6)	8,3	0,0	-0,1	-8,4	-8,2	-0,9

Iturria: INE.

Azpiko inflazioak, berriz, ez zuen goranzko joera argirik erakutsi 2016an eta %0,8aren eta %1,0aren artean mugitu zen oraindik, beraren batez besteko historikotik oso beherago. Hala

ere, indize orokorraren gaintik kokatu zen, petrolioaren prezioaren gorabeheretatik salbu dagoelako. Osagai nagusi guztiek 2015ekoak baino emaitza altuagoak aurkeztu zituzten, salbuespen bakarra landutako elikagaiak izan zirelarik, urtea aurrera zihoan heinean gero eta balio apalagoak jaso zituelako, baita negatiboak ere. Bitartean, energiaz bestelako industria ondasunen prezioak igo ziren, neurri batean euroaren truke tasaren bilakaerarengatik. Azkenik, zerbitzuak berriro garestitu ziren, nahiz eta beraiek jasotako tasak oraindik apalak ziren.

Aitzitik, inflazioaren beste osagai handiak, hots, hondar inflazioak, ez zituen aldakuntza tasa negatiboak alboratu. Bilakaera horretan batez ere energiako produktuek lagundu zuten, lehenago ere aipatu den petrolioaren salneurriaren bilakaerak eraginda. Landu gabeko elikagaiak, ordea, berriro garestitu ziren. Hain zuzen ere, urteko lehen hilekoetan, beraien prezioek gorakada nabarmenak izan zituzten, gorago seinalatu diren meteorologia baldintza negatiboek kaltetuta.

## EAE-KO KONTSUMO PREZIOEN INDIZEA

25. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2013	2014	2015	2016
<b>Indize orokorra</b>	<b>3,1</b>	<b>2,3</b>	<b>1,6</b>	<b>0,2</b>	<b>-0,3</b>	<b>0,0</b>
- Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,2	2,7	2,9	-0,6	1,4	1,6
- Edari alkoholodunak eta tabakoa	9,8	5,8	6,0	1,0	0,9	0,4
- Jantziak eta oinetakoak	0,3	0,2	0,1	0,2	0,4	0,8
- Etxebizitza	7,8	5,7	1,1	2,0	-1,7	-4,1
- Etxeko hornidura	1,5	1,1	2,0	-0,4	0,0	0,5
- Medikuntza	-0,6	-0,7	7,5	4,3	0,1	1,0
- Garraioa	7,7	4,3	0,3	-0,5	-4,1	-1,8
- Komunikazioak	-0,8	-3,4	-4,3	-6,1	-1,7	2,6
- Aisia eta kultura	0,3	1,0	1,6	-1,2	-0,2	-1,0
- Irakaskuntza	1,3	2,8	3,0	2,7	2,2	0,6
- Hotelak, kafeak eta jatetxeak	1,7	1,0	1,1	0,7	0,3	1,0
- Besteak	2,7	2,4	2,1	1,2	1,7	1,7

Iturria: INE.


Espero zitekeen bezala, petrolioaren salneurriaren bilakaerak gehien baldintzatzen dituen taldeak, hots, etxebizitza eta garraioa, izan ziren KPIak urteko lehen seihilekoan bizi zuen moteltzea eragin zutenak. Iazko azken hilekoetan eta 2017ko hasieran, ordea, prezioek gora egin zuten, petrolio gordinaren salneurriak gora egin zuen heinean. Hori horrela izanda, talde horiek balio negatiboenak markatu zituzten 2016an inflazioa osatzen duten talde guztien artean. Aitzitik, 2017ko lehen hilekoetan joera osorik aldatu zen eta beraiek izan ziren talde inflaziogileenak.

Beste aldetik, gainontzeko taldeetatik gehienek aldakuntza tasa positiboak jaso zituzten, baina igoera horiek oso txikiak izan ziren, ia guztiak Europako Banku Zentralak ezarri zuen %2aren azpian kokatu baitziren. Salbuespen bakarra komunikazioen atalak (%2,6) protagonizatu zuen, baina gorakada horrek ez du jarraipenik izan 2017ko lehen hilekoetan eta maiatzean %2,1era apaldua zen. Beraz, lehenago aipatu zen inflazioaren aurtengo hasierako igoera iragankorra da eta, neurri handi batean, argindarraren eta erregaien salneurrien goranzko bilakaerak azaltzen du.


#### KPIaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

17. irudia

Indize orokorra: EAE




Indize orokorra: Europar Batasuna



Iturria: INE eta Eurostat.

Kontsumoko prezioek 2016. urtean izan zuten moteltze horri esker, Eurogunearekiko inflazio tartearen berriro EAEren aldekoa izan zen eta dagoeneko hiru urtez jarraian lortu da eszenategi positibo hori. Hala eta guztiz ere, 2017ko lehen hilekoetan joera osorik alderantzikatu zen, petrolioaren upelak goranzko norabidea hartu zuelako. Horren ondorioz, erregaien salneurriek ere gora egin zuten eta igoera horrek eragin handiagoa izaten du Euskadin Europako gainontzeko eremuan baino, produktu horiek herrialde bakoitzaren KPI indizean pisu ezberdina dutelako.

**EAEren eta Eurogunearen arteko inflazio tartearen 2016ko batez besteko balioak** **18. irudia**



Iturria: INE eta Eurostat.

Datozen hilekoei begira, inflazioaren igurikimenez iradokitzen dutenez, kontsumoko prezioen igoera egonkortuko da eta urteko batez bestekoan %2,0aren inguruan kokatuko dira, EBZren helburua betetz. Hala eta guztiz ere, indize orokorrak balio txikiagoak izango ditu 2017ko bigarren erdian lehenengo seihilekoan baino, energiaren prezioaren igoerak inflazioan izan duen goranzko eragina, bai zuzena bai zeharka, urtea aurrera joan ahala desagertuko denean. Horrek kontsumoko prezioen indizea %2,0 hori baino nabarmen beherago eramango du hileko batzuetan.



### 4.3 Industria prezioak

Industriaren prezioei dagokienez, nabarmendu behar da KPIaren antzeko portaera erakutsi zutela. Izan ere, 2016an zehar aldakuntza tasa negatibotan jarraitu zuten eta 2017ko lehen hilekoetan gora egin zuten, energiaren prezioen hazkunde biziaren ondorioz. Petrolio gordinaren prezioen eragina bitarteko ondasunek ere pairatu zuten, energiaren ondoren beherakada handienak izan zituztenak izan zirelako. Aitzitik, kontsumoko ondasunek eta ekipamendurako ondasunek prezioak igo zituzten aurreko urteko emaitzaren aldean eta balio positiboak jaso zituzten.

#### EAE-KO INDUSTRIAKO PREZIOEN INDIZEA 26. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2013	2014	2015	2016
<b>Indize orokorra</b>	<b>8,1</b>	<b>2,4</b>	<b>-0,7</b>	<b>-1,1</b>	<b>-2,6</b>	<b>-3,0</b>
- Kontsumoko ondasunak	3,1	1,8	0,1	-0,2	-0,6	0,7
- Kontsumo iraunkorrak	0,6	0,5	0,2	-1,2	-0,3	-0,3
- Kontsumo iragankorrak	4,0	2,3	0,0	0,1	-0,7	1,0
- Ekipamendu ondasunak	1,5	1,2	1,3	-0,4	0,3	0,9
- Bitarteko ondasunak	6,5	0,2	-1,4	-0,7	-0,8	-2,2
- Energia	21,7	7,8	-1,8	-3,6	-11,6	-11,3

Iturria: Eustat.

## 5. LEHIAKORTASUNA ETA LAN KOSTUAK

### 5.1 Sarrera

Kapitulu honen helburua EAeko ekonomiaren lehiakortasunaren portaera aztertzea da, Europar Batasuneko testuinguruan. Horretarako, adierazle batzuen bilakaera aztertuko da, eremu osoarekiko; hau da, EB28aren aldean, EB15aren aldean, azken hori eremu aurreratuagoa delako, eta Espainia, Alemania, Austria, Txekiar Errepublika eta AEBen aldean. Eremu eta herrialde haietako bakoitza aukeratzeko arrazoï handiak daude, ondoren labur zehaztuko direnak, aipatu diren ordena berean: Europako oinarrizko erreferentzia izatea, EAek bat egin duen herrialde historikoen multzoa izatean, EAeko ekonomiak integrazio maila handiena herrialde horrekin duelako, industrian oinarritutako herrialde aurreratuak direlako, bata handia eta bestea txikia, kostuetan abantaila duen eta bat egiteko prozesu azkarrean dagoen ekonomia bat delako, eta zalantzarik gabe munduko erreferentzia delako.

Beste aldetik, lehiakortasun hitza *management*-eko literaturan jaio zen eta garapenaren kontzeptu zaharra ordezkatzera etorri da. Garapenaren ideiak alderdi kualitatiboak barne hartzen dituen arren, zalantzarik gabe produktibitatea da kontzeptualki esan nahi dena, epe luzean bizi maila, biztanleko BPGarekin neurtuta, benetan zehazten duen aldagaia delako. Horrela aitortzen du enpresa estrategiari lotutako literatura horrek lehiakortasuna bizi maila altua lortzeko eta berau areagotzeko ahalmentzat jotzen duenean, nazioarteko merkatuei irekita dagoen testuinguru batean.

Baina produktibitatea, biztanleko, edo are hobeto orduko, balio erantsi gisa ulertuta, lehiakortasunaren neurri onena bada, emaitzen adierazlea den aldetik, horrek ez du esan nahi kostuen adierazleek interesik ez dutenik. Bereziki lan kostuen adierazleak esanguratsuak dira ekoizpenaren eta lokalizazioaren erabakietarako, nahiz eta horrek ez adierazi lan kostuak gakoak direnik; izango lirakeke gainontzeko gauzek garrantzirik ez balute, baina hori ez da horrela, noski. Beste gauza horiek kontuan hartzea produktibitatea kontuan hartzea da eta hortik sortzen da lan kostu unitarioen kontzeptua, LKUn, laukian azaltzen dena eta lan kostu nominalak LKn produktibitate errearekin zatitzetik eratortzen dena. Ekoiztako unitate bakoitzaren lan kostua garrantzitsua da enpresen posizio lehiakorra zehazteko, are gehiago moneta eremu baten barruko mugimenduak kontuan hartzen direnean, non ezinezkoa baita aldakuntza horiek txanponaren truke tasarekin konpentsatzea.

### Lan kostu unitarioak

Lurralde baten lehiakortasun irabazia edo galera neurtzeko orduan gehien erabiltzen diren adierazleetako bat lan kostu unitarioen (LKU) bilakaera da, hots, lan kostuen aldakuntza produktu unitateko. BPGa prezioetan eta ekoizpen errealean banatzen badugu eta soldatak, berriz, batez besteko soldatan eta enpleguan, modu honetan:

$$BPG = P \cdot BPG_{05}$$

$$W_{tr} = w \cdot L$$

Lan kostu unitario nominalak honako formulazio honetan azaltzen dira:

$$LKU_n = w / (BPG_{05}/L) = (W_{tr} / L) / (BPG_{05}/L) = W_{tr} / BPG_{05}$$

Edo gauza bera dena, soldata nominala zati batez besteko produktibitate erreala. Horretarako, autonomoei esleitzen zaien batez besteko ordainketa soldatapekoena bezalakoa da. Hala ere, kontuan hartzen ditugunak lan kostu unitario errealak badira, orduan soldatak prezioen mailarekin zuzendu behar dira, honako ekuazioa lortuz:

$$LKU_r = (w / P) / (BPG_{05}/L) = (w \cdot L) / (P \cdot BPG_{05}) = W_{tr} / PIB$$

Ez badira desberdintzen landunak eta soldatapekoak, aurreko ekuazioak lan errentek BPGan duten partaidetza adierazten du. Bigarren neurri hori esanguratsua da produktuaren banaketaren inguruan dauden tentsioak aztertzeko, zeren eta soldaten igoera nominal batek konpentsatuta gera baitaiteke prezioen igoeraren ondorioz, beraiek BPGan duten partaidetza murriztuz. Soldata errealak produktibitate errealaren arabera mugitzen badira, BPGaren banaketak ez du aldakuntzarik izango. Baina urrezko arau delako horrek ez du nahitaez bermatzen lehiakortasuna, gainontzeko ekonomien hazkunde nominala txikiagoa bada.

Horregatik, neurri horietako lehena, hots, LKU<sub>n</sub>, garrantzitsua da lehiakortasunaren bilakaera aztertzeko orduan: euroa jaio zenetik gertatu den bezala, bertoko LKU<sub>n</sub> Europako batez bestekoa baino gehiago igotzen badira lehiakortasuna galtzen da; aitzitik, gutxiago hazten badira, abantaila erlatiboa lortzen da, esportazioei mesede egiten diena.


## 5.2 Lan kostu nominalak

Kontzeptuak definitu ondoren, unea iritsi da lan kostuekin hasteko, AMECO datu base europarrak eskaintzen dituenetatik abiatuta, Eustateko serieekin eta beraien eguneraketarekin

batera, horretarako Euskadi S21 ereduaren erabilera (datu horiek berrikusiko dira Eustatek datu eguneratuagoak eskainiko dituen heinean). Halaber, adierazi behar da EAEko ekonomiarentzat erabili den erosteko ahalmenaren parekotasun indizea EB15arena izan dela, eta ez Espainiarena, azken hau gehien erabiltzen dena izan arren, bi eremuen arteko garapen mailan ezberdintasun handia dagoelako.

Badirudi 2016an EAEko ekonomiaren lan kostuen bilakaera Austriaren bizi zenaren oso antzekoa dela. Hala eta guztiz ere, bilakaera hori perspektiban jarri behar da, gorakada txiki hori 2008-2016 epealdi osoan hedatzen den moteltze handiko joera baten barruan gertatu delako. Izan ere, epealdi luze horretan, bai Espainiako hazkundera bai EAEn jasotakoa apalak izan dira.

Lan kostu nominalak orduko. 2008-2016 (euroak) 19. irudia




Iturria. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina EuskadiS21 ereduaren, Eustaten eta AMECOn datuetan (2017ko otsailan eguneratuta) oinarrituta

Balio absolutuetan (19. eta 20. irudiak), lan kostuen mailak 2008-2016 epealdian erakusten du AEBetako lan kostuak gainontzekoenak baino handiagoak direla, Alemanian izan ezik orduko kostua 18-25 eurotan mugitzen baita epealdi osoan. Txekiar Errepublika salbuespena da

beheko aldetik, beraren soldata kostuak oraindik oso urrun daudelako eta ordu bakoitzeko 12-14 euroko urkila batean daudelako. EAERI dagokionez, lan kostuak bat datoz EB15ekoekin eta Alemaniaren azpitik daude garbi; Espainia, ordea, EB28tik hurbil dago.

Tasatan (20. irudia) garbi ikusten da moteltze hori, hala krisi garaian nola susperraldian, Alemaniarekiko, Austriarekiko eta EB15arekiko. AEBak azkar irten ziren krisitik eta epealdiaren bigarren zatian berreskuratu zuten lehen zatiaren soldata austeritatea (%0,2). Txekiar Errepublikak, berriz, beste eredu bati jarraitu dio soldaten kostuen igoeran, gainontzekoekin daukan soldata arraila ixtera doana.

Lan kostu nominalak orduko. 2008-2016 EAP(2008=100) 20. irudia



Iturria. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina EuskadiS21 ereduaren, Eustaten eta AMECOREn datuetan (2017ko otsailen eguneratuta) oinarrituta

Aztertu berri dugun perspektiba makroekonomikotik lortzen den lan kostuen ikuspegiak hazkunde leuna iradokitzen du, erregistratutako lan hitzarmenetan adostu diren soldata igoerek islatzen duten bide beretik doana. Hitzarmenek urte arteko tasa txikiak (%1,0) jaso zituzten eta are txikiagoak izan ziren lan egindako ordu bakoitzeko gehikuntza (%0,4) kontuan hartzen denean.

Datu horiek ez datoz bat lan kostuen inkestak eman dituenekin. Estatistika horrek azken hiru urteetan %1aren inguruko jaitsierak jaso ditu. Hala ere, analisi honetan lehentasuna eman zaio kontu ekonomikoetatik eratorzen diren datuei, soldatapekoen ordainketa eta lan egindako orduak eskaintzen dituelako.

**HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK**

27. taula

	2011	2012	2013	2014	2015	2016
<b>Indarrean dauden hitzarmenak</b>	<b>3,6</b>	<b>2,7</b>	<b>1,3</b>	<b>0,7</b>	<b>0,6</b>	<b>1,0</b>
- Urtean zehar sinatutakoak	3,4	2,0	1,0	0,5	0,9	1,2
Negoiazio esparruaren arabera:						
- Sektoreko hitzarmenak	3,8	2,7	1,3	0,8	0,6	1,0
- Enpresako hitzarmenak	3,1	2,6	1,2	0,6	0,6	1,2

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.


### 5.3 Produktibitatea

Aipatua izan denez, lan kostuak garrantzitsuak dira, baina gainontzeko guztia ere kontuan hartu behar da KLUaren kontzeptua ematen zuen balantzaren beste platerean jartzeko. Eta horixe da ekonomiaren produktibitatea. Berehala ikusiko dugunez, aldagai horretan ere diferentzia garrantzitsuak daude herrialdeen artean.

21. eta 22. irudietan hautematen den bezala, ekonomia bakoitzaren produktibitate maila lan kostu nominalarena baino are desberdinagoa da. Bilakaera aztertzen denean, egonkortasun handia eta, gehienez ere, bat egiteko prozesu arinak ikusten dira. Adibide horietako bat EAEk Atzeraldi Handiko lehen zatian bizi zuena da. Garai hartan EB15eko eta Austriako mailetara hurbildu zen, epealdiaren gainontzeko denboran posizio horiei eusteko. Izan ere, etapa horretan ordu bakoitzeko produktibitatea nabarmen areagotu zen bai Espainian bai EAEn, lortutako tasak, hurrenez hurren, %1,9 eta %1,4 izan zirelarik. Aitzitik, munduko ekonomietan, oro har, produktibitate apaleko joera zen nagusi garai hartan.

## Lan produktibitatea orduko. 2008-2016 (euroak)

21. irudia




Iturria. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina EuskadiS21 ereduaren, Eustaten eta AMECOren datuetan (2017ko otsailan eguneratuta) oinarrituta

Hala ere, egiaztapen horrek berak iradokitzen du krisiaren une sakonenean lortu ziren produktibitate irabaziek lotura zeukatela enpleguaren galerarekin, zeren eta hazteko bidea berreskuratu zenean, irabazi hori moteldu zen, desagertu ez zenean. Izan ere, baieztatu dugunez, hazkunde tasak AEBetakoak baino are handiagoak izan ziren (%1,3), baina hazkunde hori eragin zituen arrazoiak, hala Espainian nola EAEn, 2008-2013 epealdian, langileen murrizketan eta lanaldia edo pertsonala gutxitzeko dossierretan oinarritu ziren, lan egindako orduen kopurua jaitsi zenez produktibitatea igo baitzen. Aitzitik, 2014tik 2016ra doan epealdian, produktibitatearen hazkundea osasuntsuagoa izan zen (%0,9), Austrian, Alemanian eta EB15ean gertatu zenaren antzekoa, non BPGaren gehikuntzek sobera konpentsatu baitzuten lan orduen igoera.

Ekonomien artean agertzen diren arrailak egiturazkoak dira, zalantzarik gabe, eta denboran zehar bildu eta mantendu egiten dira. Espainia hurbil dago EBtik; Euskadi, berriz, Austria eta EB15 ditu bidelagun; Alemaniak nolabaiteko bat egite lortu du AEBekin, horretan liderra baita; eta azkenik Txekiar Errepublikak zailtasunak izaten ditu herrialde garatuetako mailara hurbiltzeko.

Lan produktibitatea orduko. 2008-2016 EAP(2008=100)

22. irudia



Iturria. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina EuskadiS21 ereduaren, Eustaten eta AMECOren datuetan (2017ko otsailen eguneratuta) oinarrituta


Bi epealdi horietan lortu ziren goranzko tasa horien ondorioz, 2016an Espainian eta EAEn eskuratu ziren produktibitate mailak, 2008an zeudenekin alderatuta, alderaketarako aukeratu diren gainontzeko ekonomietan jaso zirenak baino askoz ere handiagoak izan ziren. Izan ere, ekonomia horiek hazkunde tasa apalak eskuratu zituzten eta 2008-2013 epealdian lortu zituzten produktibitate hazkunde handienak.

Langileko produktibitatea kalkulatzenean (23. irudia), orduko kalkulatu den hazkundearen joera baieztatzen den arren, epealdi bakoitzaren bizitasuna aldatzen da. Alde batetik, krisiaren etapan jasotako datua (EAErako %0,78, %1,38aren ordez) apaltzen du eta susperraldiaren datua areagotu (%1,42 da, %1,0aren ordez). Hala ere, produktibitatea nabarmen areagotu zen epealdi osoan.



## Lan produktibitatea langileko (urte arteko tasak 2008-2016)

23. irudia



Iturria. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina EuskadiS21 ereduaren, Eustaten eta AMECOren datuetan (2017ko otsailean eguneratuta) oinarrituta


#### 5.4 Lan kostu unitario nominalak eta errealak

Laukian azaldu den kontzeptuzko planteamenduari jarraituz, kostuak eta produktibitatea harremanetan jarri behar dira LKU nominalen eta errealen bilakaera 2008-2016 epealdian aztertzeko, hala ekonomia osoarena nola manifakturen arloarena. Epealdi horren barruan Atzeraldi Handia (2008-2013) eta irteteko aldia (2014-2016) kokatzen dira. Ez da bakarrik ekonomia osoa aztertzen, manufakturak ere analizatzen dira, EAeko ekonomian garrantzia handia dutelako, bai balio erantsian bai enpleguan, eta gainontzeko sektoreak bultzatzeko orduan, baita eskariaren osagaietan eta I+G jardueretan ere.

Aukeratu diren herrialdeen laginaren lan kostu unitario nominalen bilakaerak portaera duala erakusten du 2008-2016 epealdian. Alde batetik, Europako ekonomia aurreratuek, hala nola Alemaniak, Austriak, EB15eko eremuak eta Txekiar Errepublikak, krisiaren une gogorrean (2008-2011) igoera arinak jaso ondoren, LKU nominalen hazkunde sendoa eskuratu zuten, oro har produktibitateak oso gutxi hazi zirelako (urteko tasatan %1,0aren inguruan) eta lan

kostuak %2 baino gehiago hazi zirelako urte bakoitzean. Beste aldetik, oso doikuntza eredu ezberdina dago, EAEk eta Espainiak izan dutena, non lan kostuen jaitsierak LKU nominalen doikuntza garrantzitsua ekarri baitzuten. Eredu hori 2015etik bakarrik aldatu da, bereziki produktibitatea gutxiago hazi zelako.

**LKU<sub>n</sub> eta LKU<sub>er</sub> orduko. Ekonomia osoa** **24. irudia**  
 2008=100




Iturria. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina EuskadiS21 ereduaren, Eustaten eta AMECOren datuetan (2017ko otsailean eguneratuta) oinarrituta.

Aitzitik, lan kostu unitario errealeen bilakaerak, laukian erakusten denez balio erantsiaren banaketa islatzen baitute, portaera egonkorragoa izan du kontuan hartu diren ekonomia guztietan. Espainia, EAE eta Txekiar Errepublika urkilaren beheko aldean daude kokatuta eta Austria eta Alemania, berriz, goiko aldean.

Manufakturen arloko LKU nominalen bilakaerak 2008-2016 epealdian fideltasun handiz islatzen ditu kanpora irekita dagoen sektore baten ezaugarriak, enpresaren kostuak behera presionatzen dituen lehia global batekin. Izan ere, manufakturen LKU nominalak, ekonomia osoarena ez bezala, kontrolpean daude balio erantsi altuko produktuak ekoizteko eta saltzeko ahalmena duten herrialdeetan, non prezioak bigarren mailako ezaugarria baitira. Horregatik ikusten dugu nola Alemaniak, Austriak eta, oro har, EB15ek, kostu handiak eduki arren, LKU

nominalak egonkor mantentzen duten, produktibitatearen hazkunderari esker, %2,0aren ingurukoak baitira. Aitzitik, EAEk eta Espainiak LKU nominalak beheratu zituzten, krisian lortutako produktibitate handiei esker eta lan kostuak mantentzeari esker.



Iturria. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina EuskadiS21 ereduaren, Eustaten eta AMECOren datuetan (2017ko otsailean eguneratuta) oinarrituta.


LKU errealen kasuan, nominaletan hauteman zen patroi bera ikusten da, baina kasu honetan Austriak eta, batez ere, EAEk nolabaiteko egonkortasunari eusten diote. Izan ere, bi epealdi ezberdin nabaritzen dira: lehenengoan (2008-2013) manufaktura industriaren lehiakortasuna gelditzen da, baina lan errentak handitzen dira; eta 2013tik aurrera, krisitik ateratzen ari den heinean, sektorearen lehiakortasuna ia esponentzialki igotzen da eta lan errentak gelditzen dira eta baita behera amildu ere, Espainian gertatu den bezala.

### 5.5. BPG biztanlekoaren bilakaera eta bere determinatzaileak

Txosten honetan dagoeneko azaldu denez, 2016an, lehenengo aldiz EAEko ekonomiak krisiaren aurreko gehieneko datuak lortzea eta gaintzea lortu du, hala unean uneko BPGan nola BPG errealean.

Zortzi urte igaro behar izan dira, bost Atzeraldi Handikoak (2008-2013) eta hiru krisitik irteteko eta suspertzeko (2014-2016), hori lortzeko. Berreskuratze hori, oro har, lehenago lortu zen Europako beste herrialde eta eremu batzuetan. Erreferentzia gisa, Alemania, Espainia, AEB, Txekiar Errepublika, Austria, EB15 eta EB28 hartu dira kontuan. Herrialde eta eremu haietako batzuetan 2008ko BPG maila bost urte lehenago lortu zen, 2011n, eta hiru urte bakarrik behar izan zuten krisiaren aurreko zenbakietara itzultzeko. Estatuabatu ekonomia lehenago sartu zen atzeraldian, 2007an, baina azkar irten zen ere, 2010ean. EAerako erreferentzia den beste herrialde batek, Txekiar Errepublikak, 2014an lortu zuen. Espainiar ekonomia hurbildu da, baina 2017ra arte itxaron behar izan du 2008ko sabaia berriro ukitzeko.

**BPG erreala EAPan. 2008-2013 eta 2013-2016** **26. irudia**  
 BPGaren %a




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, EuskadiS21 eredu, Eustaten eta AMECOn (2017ko otsaileko eguneraketa) datuak erabilia.

2008-2016 epealdian, ekonomien hazkunde tasek bilakaera ezberdina izan zuten bi denbora tarteetan, hots, Atzeraldi Handian (2008-2013) eta krisiaren irteeran (2014-2016). Horrek azaltzen du EAeko eta Espainiako ekonomien atzerapena gainontzekoen aldean. Izan ere, 2008-2013 epealdian, espainiar ekonomiaren BPG errearen hazkundera %-1,8 izan zen urteko

batez bestekoan, eta EAEkoa, berriz, %-1,4. Aitzitik, garai hartan Alemania, Austria eta AEB suspertzeko bidean zeuden eta %0,6, %0,3 eta %1,0ko hazkunde tasa positiboak lortu zituzten, hurrenez hurren.

BPG biztanleko  
EB15=100

27. irudia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egin, EuskadiS21 eredu, Eustaten eta AMECOn (2017ko otsaileko eguneraketa) datuak erabilia.


Biztanleko BPGak, ia maximoetan egon arren, oraindik ez du berreskuratu 2008ko maila. Aurreko irudian ikusten den bezala, EAEko biztanleko BPGak EB15arenaren antzeko maila eta traiektoria erakusten ditu. Krisiaren eragina oso sakona izan den arren, albiste ona da baieztatzea EAEko ekonomiak Europa aurreratuaren hazkunderari eusten diola. Aitzitik, aitortu behar da lorpen hori aspaldikoa dela eta, beraz, bat egiteko joera geldirik dagoela. Biztanleko BPGan benetako bat egitea gauzatzen ari da EB28aren eta EB15aren artean, epe luzera begira, baina lortutako hobekuntza hain da txikia ezen zaila egiten baita hurbiltzeko prozesuaz hitz egitea.

Biztanle bakoitzeko BPGa ekonomiaren jardueraren adierazle nagusia da, baina interesgarria da beraren portaeraren determinatzaileak ere aztertzea, hau da, zer neurritan oinarritzen da bere hazkundera lan partaidetza handiago batean, lanaldiaren igoera batean edo ordu bakoitzeko produktibitatearen hobekuntzan.

Aurrekoari dagokionez, azpimarratzekoa da produktibitateak izan zuen protagonismoa atzeraldian eta doikuntza garaian, %2,0aren inguruko hazkundera lortuta. Susperraldia 2014an hasi zenean ere paper garrantzitsua jokatu zuen, baina urte horretan lanaldi laburragoak konpentsatu zuen lan partaidetzaren pisu handiagoa, enpleguaren hobekuntzari lotuta. Lan egindako orduen zenbakiak urte horretan gelditzen dira Eustaten estatistika ofizialetan, baina zeharkako iturrietan oinarrituta egin diren proiektzioek, irudian aurkeztu ez baitira, adierazten dute orduko produktibitateak nabarmen murriztu dela eta enplegua zein lanaldia izan direla bizi maila igotzeko bideak.

**BPG biztanlekoaren hazkunderaren banaketa. EAP. EAE**  
Urte arteko aldakuntza tasak


28. irudia



Iturria. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak eginia Eustaten datuetan oinarrituta.

**BPG biztanlekoaren hazkundearen banaketa. EAP. Espainia**  
Urte arteko aldakuntza tasak


29. irudia



Iturria. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina AMECOn datuetan (2017ko otsailean eguneratuta) oinarrituta.

**BPG biztanlekoaren hazkundearen banaketa. EAP. Alemania**  
Urte arteko aldakuntza tasak

30. irudia



Iturria. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina AMECOn datuetan (2017ko otsailean eguneratuta) oinarrituta.

EAEko ekonomiaren hazkunderako egin den banaketa hori espainiar ekonomiarentzat eginikoarekin alderatzen bada, begi bistakoa da horretan ere langileen doikuntza biziak produktibitatearen hazkundera ekarri zuela 2008-2014 epealdian. Orobat, espainiar ekonomiak produktibitatearekin duen arazoa agerian gelditu da hazkundera 2014an berreskuratu zenean, beraren hazkundera nagusiki lan partaidetzan oinarritzen delako eta produktibitatearen hobekuntzek toki txikia dutelako. Egoera horrek, AMECO datu basearen informazioaren arabera, 2015ean eta 2016an bere horretan jarraitu zuen eta produktibitatearen gehikuntza txikia izan da, baina enpleguaren eraginak askoz ere eragin handiagoa izan du.

Azkenik, Alemaniaren adibidea hartzen bada, biztanle bakoitzeko BPGaren hazkunde tasa egonkor dagoela %1,0aren inguruan ikusten da, non produktibitatea baita urtero ekarpenak egiten dituen faktore oinarritzkoena. 2014ko makalaldiaren ondoren, eraginkortasunaren hobekuntza garbi berreskuratu da 2015ean eta 2016an.



## 6. ARLO PUBLIKOA

### 6.1. Itundutako zergen diru bilketa

Itundutako zergen bidez lortutako diru bilketak aurreko hiru urteetako bilakaera positiboari jarraipena eman zion eta 2016an 12.951 milioi euro bildu ziren, %2,7ko gehikuntza delarik, aurreko urtean lortutako %2,4 arinki gaituz. Aurreko ekitaldian ez bezala, 2016. urtean lortutako diru bilketaren hazkundera zuzeneko zergen portaera hobean oinarritu zen, %3,5 gehitu baitzen. Zeharkako zergek, berriz, emaitza motelagoa eskuratu zuten eta %2,3 hazi ziren.

Zuzeneko zerga nagusiak, hots, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergak (PFEZ), bere hazkunde tasa apaldu zuen, 2015ean lortutako %5,9tik 2016ko %4,1era. Gehikuntza tasa hori zergaren barruan pisu gehien duen osagaiaren bilakaeran oinarritu zen, hau da, lanaren etekinarenean, %2,8 gehitu baitziren. Hazkunde horren oinarrian, alde batetik, lan merkatuaren pausukako hobekuntza eta, beste aldetik, soldatek lortu zuten gehikuntza txikia daude. Baina gehikuntza hori gainontzeko ataltxoaren bilakaera negatiboak indargabetu zuen neurri batean. Izan ere, kapital higigarriaren etekinek %13,8 egin zuten behera aurreko urteko emaitzaren aldean, atxikipen tipoa %19ra murriztu zelako eta finantza produktu batzuek errentagarritasun txikia eskaini zutelako. Kapital higiezinaren etekinek ere narriadura txikia izan zuten (%-2,9), baita ondarearen irabaziek ere, 2015eko portaera bikainaren ondoren (%59,7 areagotu ziren), %44,5eko beherakada izan zuten, 2016ko finantza zurrumbilok diru bilketa kaltetu zutelako.

Sozietateen zergak, berriz, %3,5 gutxitu zuen bere diru bilketa, iazko azken hilekoetan zerga horrek bilakaera ona izan zuen arren, lurralde erkideko araubidepean dauden entitateek konturako sarrera kontzeptuan eginiko diru sarrerei esker. Zerga horren diru bilketaren jaitziera ulertzeko gorago aztertu diren atalak hartu behar dira kontuan, bi erditan banatzen baitira PFEZren eta Sozietate zergaren artean. Hala eta guztiz ere, kuota diferentzial garbiak portaera positiboa izan zuen (%1,9), urte amaieran zerga tipo aplikagarriek izan zuten igoerak eta neurri iragankor batzuk desagertu izanak lagunduta.

## ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA

28. taula

Mila euro


	Zergak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2016	2011	2012	2013	2014	2015	2016
PFEZ	4.839.847	6,3	0,2	-1,5	2,9	5,9	4,1
- Lanaren eta lanbide jard. etekinen atxikipenak	4.597.695	3,2	-1,0	-1,8	1,8	1,6	2,8
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	150.658	-3,0	11,0	-11,1	-8,7	-11,0	-13,8
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	79.468	3,1	3,0	-1,8	-3,3	-1,8	-2,9
- Ondare irabazien atxikipenak	29.460	-19,0	36,1	47,6	11,9	59,7	-44,5
- Esp. zergak hainbat loteria sarien gain	15.347	---	---	---	---	25,5	-63,8
- Prof. eta enpresarien ordainketa zatikatuak	148.841	-3,6	-1,9	-5,1	-2,6	3,8	2,3
- Kuota diferentzial garbia	-181.621	17,7	3,8	7,2	6,9	35,1	43,9
Sozietateen gaineko zerga	1.002.703	17,5	-2,5	7,5	-4,7	-10,4	-3,5
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	150.658	-3,0	11,0	-11,1	-8,7	-11,0	-13,8
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	79.468	3,1	3,0	-1,8	-3,3	-1,8	-2,9
- Ondare irabazien atxikipenak	29.460	-19,0	36,1	47,6	11,9	59,7	-44,5
- Kuota diferentzial garbia	743.117	27,3	-7,2	13,3	-4,5	-13,8	1,9
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	-2.389	-37,5	-60,1	31,6	-77,8	-669,3	95,6
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	110.978	9,4	16,1	17,7	6,6	1,2	-2,4
Ondarearen gaineko zerga	161.328	-5,8	---	19,6	10,4	-0,9	6,8
Kreditu entitateen gordailuen gaineko zergak.	24.323	---	---	---	---	98,6	-0,4
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	32.135	---	---	---	15,1	32,2	-13,9
<b>ZUZENENKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>6.168.926</b>	<b>7,3</b>	<b>1,0</b>	<b>1,7</b>	<b>1,2</b>	<b>1,6</b>	<b>3,5</b>
BEZaren bertoko kudeaketa	3.676.456	-10,9	-4,4	6,0	13,2	2,5	0,9
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	121.348	-49,4	-18,9	-10,0	25,5	12,7	19,3
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	39.197	-27,8	-29,4	-6,9	-4,9	19,3	-10,2
Garraiobide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	17.947	-27,9	-29,9	-21,4	9,3	10,8	8,6
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.643.568	-8,3	0,9	10,7	0,9	0,9	4,6
Aseguru sarien gaineko zerga	74.176	1,8	-4,6	-3,8	-1,1	3,2	2,4
Joko jardueren gaineko zergak	4.943	---	---	---	---	-46,6	20,6
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	2.521	---	---	---	---	266,7	-16,3
Iraungitako zergak	-9.587	-1,9	0,4	-74,7	-97,6	3.891,3	15,0
<b>ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>5.570.567</b>	<b>-11,7</b>	<b>-3,6</b>	<b>5,9</b>	<b>9,1</b>	<b>2,1</b>	<b>2,3</b>
<b>TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>120.701</b>	<b>0,1</b>	<b>-0,4</b>	<b>3,5</b>	<b>-8,5</b>	<b>10,9</b>	<b>4,7</b>
<b>BERTON KUDEATUTAKO Z/ ITUNDUAK</b>	<b>11.860.194</b>	<b>-2,3</b>	<b>-1,1</b>	<b>3,5</b>	<b>4,7</b>	<b>1,9</b>	<b>3,0</b>
BEZaren doikuntza	1.337.949	-3,8	7,8	5,9	8,5	5,1	3,0
Zerga berezian doikuntza	-247.417	52,6	-57,4	-96,0	-18,9	5,2	-19,9
<b>ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>12.950.726</b>	<b>-1,9</b>	<b>-0,6</b>	<b>3,0</b>	<b>4,8</b>	<b>2,4</b>	<b>2,7</b>

Iturria: Foru Aldundiak.

Zeharkako zergei dagokienez, eta aurreko ekitaldian gertatu zen bezala, lortutako emaitza positiboa izan zen, baina tamaina txikikoa (%2,3). Inflazio baxuak oinarri zergagarrien hazkundera geldotu zuen, baina ekonomia jardueraren susperraldiak beheranzko joera hori konpentsatu zuen. Hazkunde txikiago horretan, bertan kudeatutako BEZaren hazkunde ahula (%0,5) nabarmendu zen, energiaren prezio txikiak nabarmen kaltetuta.

Azkenik, fabrikazioaren zerga bereziek portaera nabarmena erakutsi zuten (%4,6) eta beraren osagai guztiek gehikuntza orokorra izan zuten, salbuespen bakarra alkoholaren kontsumoari lotutako zergak zirelarik. Hain zuzen ere, hidrokarburoek 2015ean baino %4,9 gehiago bildu zuten, gasolina eta gasolio gehiago kontsumitu zelako. Tabako laboreen gaineko zergek ere antzeko hazkundera (%4,2) lortu zuten, erosketak aurreratu zirelako, abenduaren hasieran iragarrita zegoen prezio igoerari aurre egiteko. Azkenik, argindarraren gaineko zerga %4,8 gehitu zen, ekonomiaren bilakaera onari esker, urte zatirik handiengan prezioak nabarmen jaitsi ziren arren.

**Itundutako zergen diru bilketa eta BPG nominala** **31. irudia**  
**Urte arteko aldakuntza tasak eta %BPG**



Iturria: Eustat eta Ogasun eta Ekonomia Saila.

Zergen bidezko diru sarrerak araudiaren aldaketek eta ekonomiaren bilakaerak zehazten dute nagusiki. Hala ere, itundutako zergen diru bilketak gehiegizko erantzuna eman dio ekonomiaren egoerari, hala oparaldietan nola jarduera murriztu denetan. Milurteko honen lehen urteetan, EAEko ekonomia %4 baino gehiago haztera iritsi zen garaian, itundutako zergen bidezko diru bilketak hainbat puntutan gainditu zuen BPG nominalaren hazkunde tasa. 2008an, krisiaren lehen zantzuak agertu zirenean, diru bilketa %6 murriztu zen eta 2009an diru bilketaren galera %15era iritsi zen, BPG nominalaren jaitsiera hirukoiztuz. Ekonomiaren susperraldiarekin, diru sarrerak berriro hazi ziren jarduera baino gehiago, nahiz eta azken bi ekitaldietan hazkunde hori azpitik kokatu den.

Horiek horrela, itundutako zergen presio fiskalak gorabeherak izan ditu urteetan zehar. Gehieneko datua 2007an jaso zuen (%20,3) eta gutxienekoa, berriz, 2009an (%16,3). Geroztik, gora egin zuen eta 2016an BPG nominalaren %18,1ean kokatu zen. Zerga bakoitzaren partaidetza ezberdina izan da: PFEZren diru bilketaren pisua gero eta handiagoa izan den bitartean, bereziki 2009tik aurrera, sozietate zergaren diru bilketa murriztu da. Beraz, bi zerga horien diru bilketaren arteko tartea handitu da. Hain zuzen ere, 2007an BPGaren 3,3 puntuko alde zegoen, baina 2016an 5,4 puntuetara zabaldu da. Bilakaera hori eta bi zerga horien oinarri zergagarriekin lotura duten aldagai makroekonomikoena oso bestelakoak dira, zeren eta soldatapekoen ordainketak eta ustiapeneko soberakin gordinak hazkunde bera izan baitute 2007-2015 epealdian.

**ZERGA NAGUSIEN DIRU BILKETA (%BPG)****29. taula**

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
PFEZ	6,3	6,5	6,0	6,1	6,5	6,6	6,6	6,5	6,8	6,8
Sozietateen gaineko zerga	3,0	2,5	1,9	1,5	1,8	1,8	1,7	1,8	1,5	1,5
BEZa	7,2	6,2	6,0	6,4	6,3	6,4	6,6	7,4	7,2	7,2

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten eta Aurrekontu Egikaritzaren Estatistiken datuak erabilia.


Izan ere, 2007an PFEZren bidez lortutako diru sarrerak BPGaren %6,3 izan ziren bitartean, 2015ean pisu hori %6,8ra arte handitu zen. Hala ere, Espainian datu hori 2007ko %7,5etik

2015eko %7,4ra igaro da. Eurogunean, PFEZren bidez eskuratutako diru sarrerren pisua ere, BPGarekiko, hazi egin zen 2007tik 2015era bitartean, %8,5etik %9,3ra igarota.

Sozietateen zergaren bilakaerari dagokionez, BPGaren terminoetan duen pisua murriztu da. Izan ere, 2007an diru sarrera horiek BPGaren %3aren baliokideak ziren eta 2015ean, berriz, %1,5era mugatu ziren. Pisuaren %50eko jaitsiera Espainian ere gauzatu da, bertan 2007ko %4,8tik 2015eko %2,4ra igarota. Beste aldetik, Eurogunean ere sozietateen zergaren bitartez lortutako diru sarrerrek pisua galdu dute, baina gutxiago. Hain zuzen ere, 2007an beraren pisua BPGaren %3,2 zen, baina 2015ean %2,5era jaitsi zen. Krisiak enpresen kontuetan izan duen eraginak azaltzen du joera orokor hori, aurreko urteetan pilatu zitzaizkien galerak konpentsatzen ari direlako oraindik.

PFEZren eta BEZaren diru sarrerren arteko aldea ehuneko puntutan  
2007-2015 epealdia

32. irudia



Iturria: Eurostat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

BEZari dagokionez, diru sarrerren pisua BPGaren terminoetan berdina izan zen EAEn 2007an eta 2015ean, %7,2. Hala ere, krisian zehar, kontsumoaren jaitsierak BPGaren %6ra murriztu zuen bere pisua 2009an. Datu hori urrun dago Espainiako eta Euroguneako emaitzetatik. Hain

zuzen ere, Espainian BEZaren diru bilketa %5,9 zen 2007an eta %6,5era handitu zen, EAEn daukan pisuaren azpian beti. Aldi berean, Eurogunean, beraren bilakaerak ia ez du inolako aldakuntzarik izan 2007-2015 epealdian, BPGaren 2007ko %6,7tik 2015eko %6,8ra, hauek ere EAEn mailaren azpian daudela.

Izan ere, zuzeneko zerga nagusia, hots, PFEZa, eta zeharkako zerga nagusia, hau da, BEZa, alderatzen badira, begi bistakoa da biztanle bakoitzeko errenta maila altua duten herrialdeek, oro har, gehiago biltzen dutela PFEZren bitartez BEZaren bidez baino. EAEn datuek erakusten dute maila horiek nahiko antzekoak direla eta urte batzuetan BEZaren diru sarrerak handiagoak izan direla.

## 6.2. Euskal administrazioen jardura ekonomikoa

2016an zehar, Eusko Jaurlaritzak kontsolidazio fiskaleko politikari jarraipena eman zion eta defizit publikoa BPGaren %0,6ra murriztu zuen, 2015ean baino hamarren bat beherago. Jaitsiera hori gastu arrunten jaitsierari esker lortu da eta horrek aurrezki gordina handitu du, pausuka balio positibotan finkatzen ari baita.

### EUSKO JAURLARITZAREN ERAGIKETA ERREALAK

30. Taula

BGParen %	2007	2009	2013	2014	2015	2016
1. SARRERA ARRUNTAK	13,2	11,2	12,4	12,9	12,7	12,7
2. GASTU ARRUNTAK	10,6	13,0	12,5	12,8	12,5	12,4
Langileen gastuak	2,5	3,0	3,0	2,9	2,9	2,8
Funtzionamenduko gastuak	4,1	5,2	4,9	5,0	4,8	4,7
Finantza gastuak	0,0	0,0	0,3	0,4	0,3	0,3
Transferentzia arruntak	3,9	4,8	4,3	4,5	4,4	4,6
3. AURREZKI GORDINA (1-2)	2,6	-1,8	-0,1	0,1	0,2	0,3
4. KAPITALEKO SARRERAK	0,1	0,1	0,6	0,4	0,2	0,2
5. KAPITALEKO GASTUAK	1,5	2,1	1,4	1,4	1,1	1,1
Inbertsio errealak	0,5	0,5	0,7	0,5	0,3	0,3
Kapitaleko transferentziak	1,0	1,6	0,7	0,9	0,8	0,8
6. FINANT. AHAL (+) EDO BEHAR (-) (3+4-5)	1,2	-3,8	-0,9	-0,8	-0,7	-0,6

Iturria: Eustat 2007-2015eko datuentzat (Aurrekontu likidazioak) eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza 2016ko datuentzat (Aurrekontu gauzatzearen estatistikak).

Kontu publikoetan 2009tik, hots, krisiaren eragina indartsu nabaritu zen urtetik, aurrekontuak kontsolidatzeko egin den ahalegina hiru puntutik gorakoa da. Emaitza horretan, diru bilketaren susperraldiak eta gastu arrunten euspenak zeresan handia izan dute, nahiz eta finantza gastuak handitu ziren, BPGaren %0,3 izan arte. Bide horretan, kapitaleko gastuak puntu bat jaisteak ere lagundu zuen.

Dagoeneko adierazi denez, EAEko ekonomiak azken bi ekitaldian bizi duen susperraldi sendoa ez da islatu, oraingoz, tamaina bereko diru sarrera publikoen gorakada batean eta itunpeko zergen bidezko diru sarrerak murriztu ziren BPGarekin alderatzen direnean. 2015ean, jaitsiera horrek foru aldundien finantzatzeko ahalmena gutxitu zuen. 2016an, berriz, gastu korronteen eta kapitaleko gastuen jaitsierak finantzatzeko ahalmena hiru hamarrenetan areagotu zuen, BPGaren %0,6ra iritsi arte.

## FORU ALDUNDIEN ERAGIKETA ERREALAK

31. Taula

BGParen %	2007	2009	2013	2014	2015	2016
1. SARRERA ARRUNTAK	21,6	19,0	19,2	19,6	19,3	19,2
2. GASTU ARRUNTAK	19,6	17,7	18,1	18,5	18,5	18,2
Langileen gastuak	0,6	0,8	0,7	0,7	0,7	0,5
Funtzionamenduko gastuak	0,7	0,9	0,9	0,9	0,9	0,8
Finantza gastuak	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1
Transferentzia arruntak	18,2	16,0	16,3	16,8	16,8	16,9
3. AURREZKI GORDINA (1-2)	2,0	1,3	1,1	1,0	0,8	1,0
4. KAPITALEKO SARRERAK	0,2	0,2	0,1	0,1	0,0	0,0
5. KAPITALEKO GASTUAK	1,3	1,5	0,7	0,6	0,6	0,5
Inbertsio errealak	0,9	1,0	0,4	0,3	0,3	0,2
Kapitaleko transferentziak	0,4	0,5	0,3	0,3	0,3	0,2
6. FINANT. AHAL (+) EDO BEHAR (-) (3+4-5)	0,9	-0,1	0,5	0,5	0,3	0,6

Iturria: Eustat 2007-2015eko datuentzat (Aurrekontu likidazioak) eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza 2016ko datuentzat (Aurrekontu gauzatzearen estatistikak).

Udalek azken ekitaldian erakutsi duten portaera ekonomiko egonkorak pentsarazten du 2016an berriro BPGaren %0,3aren inguruko superabita lortu zutela aurrekontuetan, horixe baita aurreko hiru urteetan eskuratu zuten zenbakia. Horri erantzen bazaizkio Eusko Jaurlaritzaren defizitak izan duen murrizketa eta foru alduen finantzazio ahalmenaren igoera oso litekeena da 2016an EAeko administrazioen multzoak aurrekontu saldo positiboan lortzea. Horrek garrantzia handiagoa hartzen du kontuan hartzen bada 2008tik saldo negatiboak jaso direla beti. Ibilbide horretan, diru sarrera arruntak bi puntu baino gehiago jaitziko ziren, gastu arruntak puntu bat eta erdi baino gehiago igoko ziren eta kapitaleko gastuek ia bi puntu galduko zituzten.

**UDALEN ERAGIKETA ERREALAK** **32. Taula**

BGParen %	2007	2009	2012	2013	2014	2015
1. SARRERA ARRUNTAK	4,3	4,3	4,2	4,2	4,3	4,2
2. GASTU ARRUNTAK	3,3	3,9	3,6	3,7	3,6	3,6
Langileen gastuak	1,3	1,5	1,4	1,4	1,4	1,4
Funtzionamenduko gastuak	1,6	1,9	1,8	1,8	1,8	1,7
Finantza gastuak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Transferentzia arruntak	0,4	0,5	0,4	0,4	0,4	0,4
3. AURREZKI GORDINA (1-2)	1,0	0,5	0,6	0,5	0,6	0,6
4. KAPITALEKO SARRERAK	0,6	1,1	0,2	0,2	0,3	0,2
5. KAPITALEKO GASTUAK	1,3	1,9	0,6	0,5	0,6	0,5
Inbertsio errealak	1,2	1,8	0,5	0,4	0,6	0,5
Kapitaleko transferentziak	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,0
6. FINANT. AHAL (+) EDO BEHAR (-) (3+4-5)	0,3	-0,4	0,2	0,3	0,3	0,3

Iturria: Eustat.

Azaldu berri denez, Eusko Jaurlaritzaren egoera eta EAeko gainontzeko administrazioena guztiz ezberdinak dira. Izan ere, Eusko Jaurlaritza ahaleginak egiten ari da defizita gutxitzeko eta erakundearen arteko konpromisoak betetzeko. Aitzitik, foru alduen eta udalen aurrekontu superabitak izaten dituzte eskuarki, saldo negatiboak 2009-2011 hirurtekoan bakarrik jaso zituztelako. Erakunde guztietan kapitaleko gastuak murriztu dira, baina gastu arruntan



portaera ezberdina da. Foru aldundiek beren pisua gutxitu dute krisiaren aurreko egoeraren aldean, baina Eusko Jaurlaritzaren gastu arruntak gora egin zuen krisiarekin eta orain murrizten ari da, finantza gastuek presioa egiten duten arren. Hala ere, jaitsiera hori oso astiro gauzatzen ari da.

**AUTONOMIA ADMINISTRAZIOEN ERAGIKETA ERREALAK****33. Taula**

BGParen %	2007	2009	2012	2013	2014	2015
1. SARRERA ARRUNTAK	23,7	20,5	21,3	21,5	21,8	21,6
2. GASTU ARRUNTAK	18,0	20,6	19,4	20,0	20,0	20,0
Langileen gastuak	4,5	5,2	4,8	5,1	5,1	5,1
Funtzionamenduko gastuak	6,4	7,9	7,7	7,7	7,6	7,5
Finantza gastuak	0,1	0,1	0,4	0,5	0,5	0,4
Transferentzia arruntak	7,0	7,3	6,5	6,8	6,8	7,0
3. AURREZKI GORDINA (1-2)	5,7	-0,1	1,9	1,5	1,8	1,6
4. KAPITALEKO SARRERAK	0,4	0,8	0,8	0,8	0,6	0,3
5. KAPITALEKO GASTUAK	3,6	5,0	3,1	2,4	2,5	2,0
Inbertsio errealak	2,6	3,0	1,7	1,5	1,4	1,0
Kapitaleko transferentziak	1,1	1,7	1,4	0,9	1,1	1,0
6. FINANT. AHAL (+) EDO BEHAR (-) (3+4-5)	2,5	-4,2	-0,4	-0,2	-0,1	-0,1

Iturria: Eustat.

**EUSKO JAURLARITZAREN ERAGIKETA FINANTZARIOAK****34. taula**

BGParen %	2007	2009	2013	2014	2015	2016
1. BALIABIDEAK						
Finantzazio ahalmena (+) edo beharra (-)	1,2	-3,8	-0,9	-0,8	-0,7	-0,6
Pasiboen gehikuntza eta aktiboen murrizketa	0,0	2,2	1,9	1,7	1,8	1,6
Ordaintzeko dauden obligazioak	1,9	2,4	1,2	0,9	0,9	0,9
2. ENPLEGUAK						
Aktiboen gehikuntza eta pasiboen murrizketa	0,6	0,4	0,6	0,8	1,1	1,0
Kobratzeko dauden eskubideak	0,3	1,6	1,0	0,7	0,3	0,3
Aurrekontu superabit/defizita kutxa terminoetan	2,2	-1,2	0,6	0,2	0,6	0,7

Iturria: Eustat 2007-2015eko datuentzat (Aurrekontu likidazioak) eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza 2016ko datuentzat (Aurrekontu gauzatzearen estatistikak).

Finantza eragiketen analisiak laguntzen du ulertzen nola betetzen den funtsen beharra, hala epe laburreko finantzazioarekin, ordaintzeko dauden obligazioen eta kobratzeko dauden eskubideen arteko aldean hautematen baitira, nola epe luzerako finantzazioarekin, finantza aktiboen eta pasiboen aldakuntzetatik eratorria. Hori horrela izanda, Eusko Jaurlaritzaren kasuan, finantzazio beharra epe laburreko zein luzeko finantzazioarekin betetzen da eta beraren kontuek kutxako aurrekontu superabita erakusten dute, 2016an BPGaren %0,7 izan zena.

Foru aldundiek beren kontuetan aurrekontu superabitak aurkeztu dituzten arren, zor publikoa jaulki zuten berriro. Finantzaziora bideratutako diru kopuruek ahalmena gainditu zuten eta diruzaintza saldoa murriztu da, 2016an BPGaren %0,4. Neurri handi batean, erakunde horiek epe laburreko finantzatzaile garbi gisa egin duten paperari esker: kobratzeko dauden eskubideen pisua garrantzitsua da eta azken ekitaldian, ekonomiaren egoera hobetu zen arren, zertxobait handitu zen, %1,4 arte, ordaintzeko dauden obligazioek beren partaidetza urte horietan murriztu duten bitartean (2016an %0,5).

**FORU ALDUNDIEN ERAGIKETA FINANTZARIOAK****35. taula**

BGParen %	2007	2009	2013	2014	2015	2016
<b>1. BALIABIDEAK</b>						
Finantzazio ahalmena (+) edo beharra (-)	0,9	-0,1	0,5	0,5	0,3	0,6
Pasiboen gehikuntza eta aktiboen murrizketa	0,1	0,6	0,5	0,4	0,4	0,4
Ordaintzeko dauden obligazioak	0,8	1,1	0,8	0,8	0,7	0,5
<b>2. ENPLEGUAK</b>						
Aktiboen gehikuntza eta pasiboen murrizketa	0,3	0,4	0,5	0,6	0,6	0,5
Kobratzeko dauden eskubideak	0,5	1,5	1,3	1,3	1,2	1,4
Aurrekontu superabit/defizita kutxa terminoetan	1,0	-0,3	0,0	-0,1	-0,4	-0,4

Iturria: Eustat 2007-2015eko datuentzat (Aurrekontu likidazioak) eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza 2016ko datuentzat (Aurrekontu gauzatzearen estatistikak).

Udalei dagokienez, finantzazioko ahalmena kutzako superabit batera igaro da, baliabideak eta enpleguak orekatuta daudelako, hala epe laburrerako finantzazioan nola epe luzerako finantzazioan.

**UDALEN ERAGIKETA FINANTZARIOAK** **36. taula**

BGParen %	2007	2009	2012	2013	2014	2015
<b>1. BALIABIDEAK</b>						
Finantzazio ahalmena (+) edo beharra (-)	0,3	-0,4	0,2	0,3	0,3	0,3
Pasiboen gehikuntza eta aktiboen murrizketa	0,1	0,4	0,1	0,1	0,1	0,1
Ordaintzeko dauden obligazioak	0,6	0,7	0,4	0,4	0,4	0,3
<b>2. ENPLEGUAK</b>						
Aktiboen gehikuntza eta pasiboen murrizketa	0,2	0,2	0,2	0,3	0,2	0,1
Kobratzeko dauden eskubideak	0,5	0,9	0,3	0,4	0,4	0,4
Aurrekontu superabit/defizita kutxa terminoetan	0,3	-0,2	0,2	0,1	0,2	0,2

Iturria: Eustat.

Azken ekitaldietan, epe luzerako finantza baliabideak lortu izanak bide eman die EAEko administrazioei kutzako superabitak aurkezteko. 2016an ere superabita lortu zela pentsatzekoa da, eragiketa errealen saldo positiboarengatik eta foru aldundiek epe laburreko finantzatzaileak izan arren.

**AUTONOMIA ADMINISTRAZIOEN ERAGIKETA FINANTZARIOAK** **37. taula**

BGParen %	2007	2009	2012	2013	2014	2015
<b>1. BALIABIDEAK</b>						
Finantzazio ahalmena (+) edo beharra (-)	2,5	-4,2	-0,4	-0,2	-0,1	-0,1
Pasiboen gehikuntza eta aktiboen murrizketa	0,2	3,2	2,3	2,5	2,2	2,2
Ordaintzeko dauden obligazioak	3,3	4,2	3,3	2,4	2,1	2,0
<b>2. ENPLEGUAK</b>						
Aktiboen gehikuntza eta pasiboen murrizketa	1,1	1,1	1,1	1,4	1,6	1,8
Kobratzeko dauden eskubideak	1,4	4,0	3,4	2,7	2,4	1,8
Aurrekontu superabit/defizita kutxa terminoetan	3,5	-1,8	0,8	0,7	0,3	0,4


Iturria: Eustat.

### 6.3. EAEko administrazioen zikloaren posizioa

BPG potentzialak datu txikiena jaso zuen 2013an eta harez geroztik igotzen joan da, baina 2017an maila bat jaitsi da goranzko norabidean eta %2,0an kokatuko da kontuan hartu den epealdiaren amaieran. Horixe da datozen orrialdeetan aurkezten den epe ertaineko aurreikuspenetatik eratortzen den emaitza nagusia. Eszenategi makroekonomiko horretan EAEko ekonomia motelduko da, baina gero egonkortuko da. Azken zatian BPG potentzialak (BPG pot) izango duen apaltzea lan faktorearen (L) portaeraren ondorioa da, biztanleria osoaren zahartzearen ondorioz biztanleria aktiboa gutxituko delako. 2016an, pertsona aktiboen kopurua %1,1 murriztu zen eta 2017ko lehen datuek gutxitzeko bide bera seinalatzen dute. Eustatek egin berri dituen biztanleria proiektzioek biztanleria potentzialki aktiboa %1,8 murriztuko dela 2020 arte eta %8, berriz, 2031 arte iradokitzen dute. Beraz, EAEko ekonomiak aurrean edukiko duen arazoetako bat, enpleguaren eskaintza modu egoki batean kudeatzen ez badu, begi bistan geratu da.

**BPG potentziala eta joera osagaiak 1980-2020**  
Urte arteko aldakuntza tasak

33. irudia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak eginia Eustat, INE, EUS21eredua, Valentiako Ikerketa Ekonomikoaren Institutua eta BBVA Fundazioaren datuetan oinarrituta.


Beste aldetik, faktoreen produktibitate totalak (FPT) profil laua aurkezten du eta kapitalaren stocka (K) zertxobait handitu du BPG potentzialari egiten dion ekarpena proiektzioaren epealdian zehar.

Krisiaren urteetan, EAEko ekonomia beraren potentzialaren azpian egon zen, baina 2014tik aurrera, eta neurri batean potentzialak duen iraganarekiko inertiari esker, *output gap* delakoak edo ekoizpenaren arrailak balio positiboak jaso zituen berriro eta azkar handitu zen Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ekonomiak 2015ean eta 2016an izan zituen hazkunde tasekin. Etorkizun hurbilean, arraila hori itxiko da, ekonomia jardueraren aldakuntza tasak motelduko diren heinean.

Kontuan hartu diren urteetan, eta ekonomia potentzialaren gainetik haziko denez, zikloaren saldoa positiboa izango da eta gutxituz joango da *output gap*-a itxiko den heinean. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, saldoa BPGaren %0,2an egonkortuko da epealdiaren amaieran.

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu saldoaren banaketa. 1987-2020  
BPGaren %

34. irudia




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta EUS21 ereduaren datuetan oinarrituta.

Egiturazko saldoaren bilakaerak administrazio baten zerga politikaren norabidea seinalatzen du. 34. irudian ikusten denez, Eusko Jaurlaritzak egingo duen ahalegina garrantzitsua izango dela eta BPGaren puntu batean gauzatzen da 2016-2020 bosturtekoan. Aurrekontuen egonkortasunean onartu dituen erakunde arteko konpromisoak betetzeak saldoa dagoeneko 2019an hutsa izatera eramaten du. Hala ere, egiturazko saldoa oraindik negatiboa da, beraz neurri gehiago beharko dira berau ezabatzeko.

EAEko administrazioen multzoaren egoera ezberdina da. Tokiko erakundeen multzoak, hots, foru aldundiek gehi udalek, 2017an saldo orekatua aurkeztu behar duten arren, erakunde horiek urteak daramatzate saldo positiboak jasotzen. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak defizita eduki arren, EAEko administrazioen saldoa dagoeneko 2016an positiboa izatea aurreikusten da. Behin saldo positibo horrek bolumen jakin bat eskuratu ondoren, egiturazko saldoak ere positiboak izango dira.

**Autonomia Administrazioaren aurrekontu saldoaren banaketa. 1987-2020** 35. irudia  
BPGaren %




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak eginia Eustat eta EUS21 ereduaren datuetan oinarrituta.

Finantza publikoen jasagarritasuna aztertzeke orduan ezinbestekoa da zor publikoa aipatzea. Krisia hasi zenetik kontu publikoek etengabe defizitak jaso izanak BPGarekiko zor publikoaren maila gorarazi du, baina defizitaren helburua betetakoan aurreikusten diren aurrekontu saldoek BPGarekiko zorra jaitsiko dela seinatzen dute. Zorraren gehienezko maila 2017an jasoko da, Eusko Jaurlaritzaren kasuan BPGaren %12,6ra iritsiko baita. Harez geroztik beherantz joango da urratsez urrats. Gehiegizko defizitaren prozeduraren arabera, 2017rako onartu zen kontsolidazio konpromisoak zorraren maila BPGaren %14,7an kokatzen du.

## Eusko Jaurlaritzaren zor publikoaren bilakaera

36. irudia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta EUS21 ereduaren datuetan oinarrituta.

Azken ekitaldietan, foru aldundiek, aurrekontuetan superabita aurkeztu zuten arren, zorra jaulkitzen jarraitu zuten, amortizaziorako behar zen diru kopuru bera gaingiduz, eta saldo bizia handitu da. 2016tik aurrera, zorraren amortizazioa hartutako pasiboak baino handiagoa izango da eta, horren ondorioz, zor biziaren saldoa murrizten hasiko da. Aurreikusten denez, prozesu

horrek jarraipena izango du ondorengo ekitaldietan ere. Administrazio Autonomo osoarentzat, BPGarekiko zorraren ratioa Eusko Jaurlaritzarena<sup>1</sup> baino 3,5 puntu altuagoa izango da.

Zorraren analisi formalaren arabera, jaitsiera horren oinarrian bi arrazoi daude: ekonomiaren hazkundearen tasa erreala interes tasa erreala baino handiagoa izatea eta saldo primarioaren bilakaera. Beraz, jasangarritasunaren arrailak balio positiboak aurkezten ditu, BPGarekiko zorraren maila murriztuko delako.

### **EAEko administrazioen posizio ziklikoaren alderdi metodologikoak**

Produktu potentziala ezin da zuzenean hauteman. Eskura dauden aukera metodologiko guztietatik, europar araudira jotzeak behartzen du Europako Batzordeak garatu duen produkzio funtzioaren metodoa erabiltzera. Hala eta guztiz ere, metodologia hori, eta oro har zuzenean hautematen ez diren aldagai horiek kalkulatzeko osatu diren azterlan eta aplikazio ugariak, estatuei eta administrazio publikoen multzoari ezartzen zaizkie normalean. Administrazio publikoen azpisektoreei eta autonomia erkidego bakoitzari ezarri beharrak zailtasunak ekartzen dizkio aipatu den araudi horren erabilerari eta metodologia erabiltzeko orduan erabaki gehigarriak hartzera behartzen du.

EAEko ekonomiak eta Estatuarenak harremana eduki arren, bi ekonomia horien artean dauden ezberdintasun garrantzitsuek (industriaren pisu handiagoa, ekonomiaren irekiera, eta abar) eta krisiak enpleguan eta beste eremu batzuetan izan duen eragin ezberdinak, BPG potentziala kalkulatzeko orduan puntu gakoak baitira, aholkatzen dute EAEko ekonomiaren berariazko posizio ziklikoa zenbatestea, Estaturako kalkulatu dena zikloaren seinaleztat hartu gabe. Erabili den metodologia Europar Batzordeak garatua da, baina egokitzapen batzuk egin dira zenbatespen zehatzagoak eta EAEko ekonomiaren posizio ziklikoarekin bateragarriagoak lortzeko.<sup>2</sup>

BPG errearen eta potentzialaren bilakaeratik *output gap*-a eratortzen da. Behin produkzio arraila zehaztuta, defizit publikoa osagai ziklikoan eta egiturazkoan banatzen da. Horretarako, beharrezkoa da zehaztea ekoizpen arrailaren eta aurrekontu saldoaren arteko erlazioa. Proiektzioko aurrekontu eszenategia defiziterako ezarri diren helburuak betetzeko joera eszenategi batean oinarritzen da.

---

<sup>1</sup> Zenbaki horiei gehitu behar zaie finantza aktiboen saldoa, historikoki urteko BPGaren %0,2 izan baita Eusko Jaurlaritzaren kasuan eta %0,4, berriz, EAEko administrazioen multzoarenean.

<sup>2</sup> Europako metodologia nola egokitu den azalduta dago honako artikuluan: A. Alberdi et al Posición cíclica, saldos estructurales y escenario presupuestario del País Vasco en el horizonte 2015, Ekonomiaz aldizkariaren 73 zenbakian argitaratua.



Eusko Jaurlaritzarako *output gap*-aren eta aurrekontu saldoaren arteko erlazioa Kalman iragazkiaren eta elastikotasunen metodoaren<sup>3</sup> bitartez zenbatetsi da. Bi kasuetan, emaitza bera lortzen da: aurrekontu saldoaren 0,28 inguru Eusko Jaurlaritzaren sarreren eta gastuen sentikortasun ziklikoari zor zaio. EAEko administrazioen multzorako ratio hori altuxeagoa da, 0,33ra arte iritsiz.

---

<sup>3</sup> ECC/1556/2016 Agindua, irailaren 28koa, 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Jasagarritasunaren garapen metodologikoa zehazten duenari jarraituz, kontuan hartzen dira Foru Aldundiek bildutako diru sarrerak eta eginiko gastuak ere, eta zergen elastikotasunak Estatu osorako kalkulatu diren berberak dira.

## 7. FINANTZA ARLOA

### 7.1. Moneta politika

Izaera politikoko bi gertakari handik baldintzatu zuten 2016. urtea, ekonomian ere eragin garrantzitsua izan zutenak. Alde batetik, Erresuma Batuan Europar Batasunetik irteteko aukerak (Brexit) irabazi zuen ekainean, eta beste aldetik Donald Trump errepublikanoak irabazi zituen estatubatuar hauteskundeak azaroan. Horrek guztiak ziurgabetasun handia eta tentsioak eraman zituen nazioarteko merkatuetara, baina banku zentralen erabakiek, neurri handi batean, neutralizatu zituzten.

Izan ere, Europako Banku Zentralak (EBZ) esku hartze tasa %0,0 ezohikora arte jaitsi zuen martxoan, eta tonu hedakorra areagotu zuen konbentzionalak ez diren neurrien bitartez. Beraien artean, hedatze kuantitatiboko (QE) egitasmoa zabaltzea, bankuetarako epe luzerako finantzazioa eta gordailuetarako interes tasa negatiboak nabarmendu ziren. Baldintza guztiz laxo horiek urteko azken bileran, abendukoan, handitu ziren. Bilera horretan, erakundeak merkatuak harritu zituen espero zena baino gehiago (2017ko abendua arte) luzatu zuelako aktiboak erosteko egitasmoa eta egoerak beharko balu denbora gehiago ere luzatzeko promesa egin zuen.

#### BANKU ZENTRALEN INTERES TASAK

38. taula

	99-02	03-06	07-10	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017 maiatza
Europako Banku Zentrala	3,40	2,40	2,10	1,0	0,75	0,25	0,05	0,05	0,0	0,0
Erreserba Federala	3,75	3,18	1,25	0,25	0,25	0,25	0,25	0,50	0,75	1,0
Japoniako Bankua	0,30	0,20	0,30	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	-0,1	-0,1
Ingalaterrako Bankua	4,90	4,50	2,10	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,25	0,25
Txinako Bankua	---	---	6,1	6,56	6,00	6,00	5,60	4,35	4,35	4,35
Indiako Bankua	---	6,63	6,30	8,50	8,00	7,75	8,00	6,75	6,25	6,25
Brasilgo Banku Zentrala	---	16,4	11,25	11,00	7,25	10,00	11,75	14,25	13,75	10,25

Iturria: Europako Banku Zentrala, Reuters Agentzia eta Espainiako Bankua.

Erreserba Federalak, berriz, interes tasa 25 oinarri puntutan igotzea erabaki zuen, kontuan hartuta lan merkatuaren sendotasuna, ekonomiaren hazkundera eta prezioak %2ko helburura hurbiltzeko eta egonkortzeko bidean lortutako aurrerakada. Neurri horrek erreferentziako tasa %0,5aren eta %0,75aren arteko urkila batean kokatu zuen. Fedaren erabaki hori interes tasen lehen igoera da AEBetan 2016an eta bigarrena hamar urtean. Janet Yellen presiditzen duen erakundeak 2015eko abenduan ekin zion normalizatzeko bideari. Ibilbide hori, ordea, bertan behera geratu zen 2016ko lehen erdian, finantza merkatuetako ezegonkortasunarengatik, eta bigarren erdian Brexitarengatik. Herrialde horretako ekonomiaren eta lan merkatuaren sendotzeak estatubatuar erakunde monetarioa eraman zuen diruaren prezioa beste %0,25 bat igotzera hiru hileko beranduago (2017ko martxoan) eta aurreikusten denez beste bi igoera gehiago erabakiko ditu aurten, 2017ko amaieran tasa hori %1,5ean kokatu arte.

Japoniako Bankuak ezusteko murrizketa egin zuen erreferentziako interes tasan eta %-0,1ean jarri zuen, ekonomia eta inflazioa bultzatzeko asmoz. Murrizketa horren asmoa inflazioaren %2,0ko maila lehenbailehen lortzea zen, horixe baita Shinzo Abe lehen ministroaren gobernuak ezarri duen helburua. Xede hori lortzeko ez da baztertzeko 2017an jaitsiera gehiago onartzea. Neurri hori Europako Banku Zentralak ere erabili zuen 2014an eta esan nahi du herrialde hartako bankuek, dirua jaso ordez, Japoniako Bankuari ordaindu behar diotela funtsak bertan gordetzeko. Japoniako banku zentralak interes tasak murriztu zituen azken aldia 2010ean izan zen, %0,0aren eta %0,1aren artean uzteko.

Ingalaterrako Bankuak aldaketarik gabe utzi zuen bere moneta politika abuztua arte, Europar Batasunean jarraitzeko erreferenduma egin eta denbora gutxi arte. Banku zentralak interes tasak 25 oinarri puntu jaitea erabaki zuen, ekonomia adierazle nagusi batzuen jaitsierari eta Brexitaren ondorioei aurre egiteko. Halaber, 2017ko otsaila arte 60.000 milioiko balioa duten bonu subiranoak erosiko zituela iragarri zuen. Neurri hori izoztuta zegoen 2012tik. Erresuma Batuko interes tasak ez ziren murriztu 2009ko martxotik, hots, finantza krisia bete-betean zegoenetik.

Azaleratzen ari diren herrialdeen artean, Txinako Banku Popularrak interes tasak sei aldiz gutxitu zituen eta kutxa koefizienteak, berriz, bost aldiz 2014ko azarotik 2016ko otsailera bitartean, baina 2016an moneta politika ez aldatzea erabaki zuen. Ekonomia adierazleak egonkortsu izanak joera horri lagundu zion. Brasileko eta Indiako banku zentralek ere politika hedakorrari ekin zioten. Hain zuzen ere, Brasileko Banku Zentralak, bertako ekonomiaren ahultasuna ikusita, bitan murriztu zuen erreferentzia tasa, 2015ean jaso zen %14,25 maximotik

%13,75era. Halaber, eta inflazio altua eduki arren, 2017ko hastapenetan beheranzko lau mugimendu gehiago egin zituen, erreferentziako tasa %10,25ean kokatu arte.

Azkenik, Indian gobernuak apirilean egin zuen lehen murrizketa 2015eko irailetik. Erabaki hori hartzeko arrazoiak 2016ko otsailean inflazioa %5,2ra jaitsi izana, gobernu aurrekontuaren zorpetzea mantendu izana eta gastuaren kontrola izan ziren. Murrizketa horren ondorioz, herrialde horretako esku hartze tasa %6,25ean kokatu zen eta 2014an hasi zen malgutasuneko zikloa berrabiarazi zen.

## 10 URTERAKO ZOR PUBLIKOAREN ERRENDIMENDUA

39. taula

	Errendimendua (%)							Alemaniarekiko aldea (oinarri puntuak)						
	10-11	2012	2013	2014	2015	2016	2017 maiatza	10-11	2012	2013	2014	2015	2016	2017 mai.
Alemania	2,4	1,3	1,9	0,5	0,6	0,2	0,3							
Frantzia	3,3	2,0	2,4	0,8	1,0	0,7	0,7	87	67	49	30	36	47	43
Italia	5,9	4,5	4,1	1,9	1,6	1,8	2,2	347	321	215	134	98	161	189
Erresuma Batuak	2,7	1,9	3,0	1,8	2,0	1,2	1,1	27	53	110	122	133	103	75
<b>Espainia</b>	<b>5,3</b>	<b>5,3</b>	<b>4,1</b>	<b>1,6</b>	<b>1,8</b>	<b>1,4</b>	<b>1,5</b>	<b>289</b>	<b>399</b>	<b>220</b>	<b>107</b>	<b>117</b>	<b>119</b>	<b>124</b>
Irlanda	8,9	4,5	3,5	1,2	1,2	0,8	0,8	646	321	153	70	52	56	47
Portugal	10,2	7,0	6,0	2,7	2,5	3,8	3,1	782	568	410	215	191	357	277
Grezia	23,3	11,8	8,6	9,6	8,4	7,1	6,1	2.087	1.052	663	906	772	690	579
AEB	2,6	1,8	3,0	2,2	2,3	2,5	2,2	16	44	109	163	164	224	190
Japonia	1,1	0,8	0,7	0,3	0,3	0,1	0,1	-138	-53	-120	-21	-36	-16	-25

Iturria: Espainiako Bankua.

Eurogunean inflazio tasa ia hutsala zen, moneta politikak hedakorrak, munduko ekonomiaren hazkunde ahulak zalantzak pizten zituen eta ziurgabetasuna etengabea zen. Testuinguru horretan, inbertitzaileek babes aktiboetara jo zuten, hala nola hamar urterako zor alemaniarra. Hain zuzen ere, Alemaniako *bund*-ak beheranzko lasterketa bati ekin zion EBZ zorra erosten hasi zenean eta bost urtez beherantz egiten pasa ondoren, hamar urterako bonu alemaniarren beheranzko joera areagotu zen 2016ko bigarren erdian, Brexitari garaipena ematen zioten inkestak argitaratu eta gero. Burtsen jaitsierek zor alemaniarra errenta aldakorreko

inbertitzaileen babestokia bihurtu zuten eta ekainaren 15ean mugimendu historiko bat gertatu zen: Europan gehien negoziatzen den zorra eta munduan gehien negoziatzen direnetako bat zeroaren azpitik kotizatu zen. Horrek esan nahi du inbertitzaileek ordaindu egiten zutela zorra edukitzeagatik. Beraz, ordurako zero azpitik kotizatzen zuten 2,8 bilioi eurotik gorako zorrari *bund*-a gehitu zitzaion. Europako lokomotora baino lehenago, Suitzak eta Japoniak kobratu egiten zuten 2025 epe muga zuen zorragatik. Joera horrek urriko hasiera arte iraun zuen eta orduan balio positiboak berreskuratu zituen.

Hamar urterako bonu alemaniarrek izan zuen jaitsierak eragin zuzena izan zuen arrisku sarian. Hamarkada baterako zor espainiarren eta *bund* alemaniarren arteko diferentziala bederatzitik oinarri puntu igo zen, 156 arte, eta 165 puntuetara iritsi zen, urteko maximoen zona baitzen, astebete bat geroago (ekainaren 24an). Ondoren, EBZk ezarri zituen politikei esker eta inbertitzaile pribatuek periferiako bonuak erakargarriagoak ikusi zituztenez, Espainiako arrisku sariak behera egin zuen. 2018ko abuztuaren 18an arrisku saria 100 puntuen azpitik itxi zen, 2015eko apiriletik lehen aldiz. Hala ere, AEBetako hauteskondeek eragin zuten ziurgabetasunak arrisku saria berriro gorarazi zuen, nahiz eta igoera hori tamaina handikoa ez izan. Laburbilduz, 2016an zertxobait gorantz egin arren, 2016an zehar arrisku sari espainiarrek minimoa ere ukitu zuen, 97 puntutan, beraren bonuaren errendimendua %0,880an kokatu zelarik. Periferiako gainontzeko herrialdeei dagokienez, Portugalako arrisku sariak gora egin zuen 357 puntuetara, nahiz eta 2017ko lehen hilekoetan behera egin zuen. Greziakoa, berriz, 690 puntuetara jaitsi zen (2017ko maiatzean 579tan zegoen), 2015eko amaierako 772etatik.


## 7.2. Truke tasak

Euroa nahiko egonkor ibili zen dolar estatubatuarraren aldean 2016ko zatirik handienean, errendimenduak ez zirelako aldatu ez Eurogunean ez AEBetan. Hala eta guztiz ere, urte amaieran joera hori aldatu zen. Izan ere, truke tasaren gorabehera handienak Donald Trumpen garaipenaren ondoren gertatu ziren. Berak iragarri zituen inbertsio publikoko egitasmoek eta AEBetan interes tasak igoko zirelako aurreikuspenek dolarraren kotizazioa bultzatu zuten txanpon garrantzitsuenen aldean. Orobat, Fed erakundeak interes tasak puntu laurden bat igotzeko hartu zuen erabakiak eta 2017an hiru igoera gehiago egongo zirelako aurreikuspenak dolarraren balioa nabarmen handitu zuten eta euroak ia bi urteko truke txarrena izan zuen billete berdearekiko.


**EBZk euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak**  
**Moneta unitateak euro bakoitzeko**

37. irudia


Dolarra




Suitzako frankoa



Libera Esterlina



Yena



Iturria: Espainiako Bankua.

Hain zuzen ere, euroa 1,0394 dolarretara jaistera iritsi zen, 2003ko urtarriletik inoiz izan duen truke tasarik txikiena baita. Hori horrela izanda, 2016an euroak %3,6 galdu zuen dolarrarekiko eta ia %10,5 jaitsi zen 2016an izan zuen mailarik gorenetik, maiatzean 1,1614 dolarren truke erosten baitzen. Halere, joera hori guztiz aldatu zen 2017ko lehen hilekoetan. Trumpek proposatu zuen osasun arloko erreformak pairatu zuen porrotak eta Euroguneko datu onek euroari indarra eman zioten, urteko lehen hilekoetan %5 baino gehiago berreskuratu zuelako.

Horrek bazter batean utzi zuen euroaren eta dolarraren arteko balizko parekotasunaz zegoen eztabaida. Dolarraren balio irabazia diru nagusiekin ere gertatu zen. Dolarraren aldean, yuanak %6,8 ahulago amaitu zuen 2016. urtea eta balio galera hori azken asteetan bizkortu zen, truke tasa 2008tik izan duen minimora eramanez. Euroari dagokionez, diru bakarrak eremua irabazi zion franko suitzarrari eta, batez ere, libera esterlinari, 2016ko amaieran %16tik gorako balio galera izan zuelako.

### 7.3. Balore merkatua

Hala ere, Brexitetik eratorri diren mugimendu guztiek ez zuten ondorio negatiboak ekarri. Izan ere, liberaren balio galera biziak bultzada garrantzitsua eman zien kotizatzen duten enpresa britainiarrei. Horren ondorioz, Erresuma Batuko burtsak %14,4ko irabaziak lortu zituen 2016an, Norvegiako burtsak eskuratu zuen %14,6aren ondoren jaso den bigarren erregistrarik onena baita. Europako burtsak, EBZk joera hedatzaile garbia izan zuen arren, dispertsio esanguratsu batekin itxi zuten. Esate baterako, Italiako burtsa %10,2 jaitsi zen eta Suitzakoak, berriz, %6,8. IBEX 35 indizeak gutxieneko balioa jaso zuen erreferendum britainiarraren ondorengo egunetan eta geroztik %22 irabazi zuen arren, 2016an %2,01eko jaitsiera motela izan zuen. IBEX 35ean kotizatzen duten EAeko enpresa nagusien artean, Gamesak (%21,7) emaitza positiboak izan zituen 2016an eta bai Iberdrolak bai BBVAk %5,0aren inguruko jaitsierak pairatu zituzten. Halere, kotizatzen duten gainontzeko enpresak gehitzen baditugu, emaitza hobea lortzen da. Izan ere, Tubacexen balioa %53,4 igo zen, Tubos Reunidosena, berriz, %47,5, Iberpapelena %32,7 eta CIE Automotiverena, azkenik, %19,9. 2017an, IBEX 35ek goranzko joerari eutsi dio eta maiatzean, 2015eko abuztutik lehen aldiz, 11.100 puntuko langa gainditu zuen, adierazle horren balio ia guztiek, baita bankarenak ere, bultzatuta.

Iparramerikako merkatuek sendotasun handia erakutsi zuten berriro, Fedek moneta politika aldatu zuen arren. Bertako indize nagusiek munduko batez bestekoaren gainetik (%6,7aren eta %4,8aren artean) zegoen errentagarritasuna lortu zuten 2016an. Dow Jones %13,4 igo zen eta S&P, berriz, %9,5. Joera positibo hori azaleratzen ari diren merkatuetara ere hedatu zen, batez ere Amerika Latinokoetara, non MSCI EM Latin America indizea %21,3 igo baitzen. Positiboa baina distira gutxiagorekin izan zen azaleratzen ari diren Asiako merkatuen indizearen bilakaera, %4,5 hazita.

Euriborrak bere historiako maximoa lortu zuen 2008ko irailean, %5,5ean kokatu zenean. Harez geroztik, hipoteken erreferentzia tasak beheranzko joera lasaia baina etengabea bizi du.


2016ko otsailean, eremu negatiboan sartu zen lehenengo aldiz historian eta hamahiru hileko beranduago, 2017ko martxoan, indize horrek oraindik %0aren azpian (Europako interes tasen oraingo maila baita) jarraitzen du. Halaber, oraingoz adituek ez dute epe laburrean inolako igoerarik aurreikusten.

### 7.4. Kredituak eta gordailuak


Interes tasen maila, oro har, apala, fusioak eta erosketak, enpresen berregituraketak eta higiezinaren merkatuaren hobekuntza izan ziren kredituen eskaria bultzatu zuten faktore behinenak. Testuinguru horretan, EBZk martxan jarri zuen aktiboak erosteko egitasmoak, epe luzeagorako finantzazio eragiketek eta gordailuen interes tasa negatiboak (%-0,4) maileguak emateko orduan erabiltzen diren irizpideak lasaitzea ahalbidetu zuten. Horrek emandako kredituak gorarazi zuen.

**Kredituen bilakaera** **38. irudia**  
**Urte arteko aldakuntza tasak**

Arlo publikoari emandako kredituak



Arlo pribatuari emandako kredituak



Iturria: Espainiako Bankua.

Guztira, emandako kredituak %2,2 areagotu ziren eta hobekuntza bai arlo publikoari bai arlo pribatuari bideratutakoetan hauteman zen. Hain zuzen ere, arlo publikoari emandako




kredituak %5,4 hazi ziren 2016an, 2008ko amaieratik jaso den hazkunde txikiena baita. Hala ere, 2016ko ekainean arlo publikoaren zorpetze mailak 8.190 milioi euroko langa gaitua zuen, 1981an hasi zen serie historikoan jaso den gehieneko datua delarik. Dena dela, abendurako, zorpetzea 7.000 milioi euroen azpitik zegoen. Hoberantz egin duen arren, arlo publikoaren oraingo zorpetzea 2007ko amaieran kontabilizatu zenaren %524an dago. Azken urteetako etengabeko defizitak azaltzen du bilakaera hori.


Arlo pribatuak, berriz, %1,8 handitu zituen kredituak, 2015ean hasi zen norabide aldaketa finkatuz. Tasa horrek esan nahi du arloaren zorpetzea 64.566 milioi euroetara iritsi dela. Hala eta guztiz ere, oraingo bilakaera oso urrun dago aurreko zikloan jaso ziren bi zenbakiko gorakadetatik. Izan ere, 2016ko balantze orokorra positiboa izan zen arren, 2016ko azken hiruhilekoan %1,7ko jaitsiera jaso zen, aurreko hiru hilekoetan zegoen mailarekin alderatzen denean.

### Kredituen bilakaera 39. irudia Milioi euro

Arlo publikoari emandako kredituak



Arlo pribatuari emandako kredituak



Iturria: Espainiako Bankua.

Zorpetzeak ekoizpenaren guztizkoa gaitu zuen lehen aldiz 2005etik, baina diferentzia hori gehieneko puntura iritsi zen 2010ean. Hain zuzen ere, emandako kredituen pilaketak %28,5 batean gaitu zuen BPGaren balioa. Krisia une gordinean zegoen eta harez gerotik

zorgabetezko prozesu neketsua eta etengabea hasi zen, bereziki arlo pribatuan. Hala ere, arlo publikoak gero eta finantzazio gehiago behar izan du, eta horren ondorioz BPGarekiko zorpetze maila nabarmen handitu du (sei urteko epealdian %70 baino gehiago handitu da). 2016an, emandako kredituak BPGaren %100aren baliokideak ziren.

## KREDITUAREN BILAKAERA BPG-AREN %TAN

40. taula

	1995	2000	2005	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Arlo pribatua	60,1	80,4	104,2	122,6	122,5	123,3	120,6	112,4	103,7	94,0	91,6	90,2
Arlo publikoa.	4,6	2,3	2,3	2,9	4,2	5,3	5,7	6,4	7,4	8,9	9,6	9,8
Kredituak guztira	64,7	82,7	106,5	125,5	126,7	128,5	126,3	118,8	111,1	102,9	101,2	100,0
BPG	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Espainiako Bankua.

Gordailuek oso bestelako bilakaera izan zuten. 2008an, *subprime* hipoteken krisia lehertu ondoren, Espainiako finantza erakundeak ezin ziren merkatuetan finantzatu eta bankuek eta kutxek gordailuak jaulki zituzten funtsak eskuratzeko. Gordailu horien errentagarritasuna, batez beste, %5,0 izan zen eta Europa osoko errentagarrienak ziren, greziarrak albo batera utzita, %5,3 ordaintzera iritsi zirelako. Zortzi urte geroago, eszenategia guztiz ezberdina da. Estratasak mugatzeko onartu zen legeriaren, arloak bizi duen berregituraketan eta eskatutako kredituen murrizketan ondorioz, espainiar entitateak ziren Europan familiei produktu horren truke gutxien ordaintzen zietenak. Zehatz-mehatz adierazita, Espainiako Bankuaren arabera, familiei gordailuengatik emandako batez besteko tasa %0,08 izan zen 2016an. Tipo hori %0,06ra jaitsi da 2017ko apirilean. Errentagarritasun apal horren ondorioz, inbertitzaileek beste produktu errentagarriagoak bilatu dituzte.

Hain zuzen ere, 2016an gordailuak %1,9 hazi ziren, 2015ean baino 1,4 puntu gutxiago. Eperako gordailuak izan ziren kaltetuenak eta %16,6 murriztu ziren, azken bi urteetako narriadura areagotuz. Izan ere, aurrezkoa kontuetara joaten ari da, produktu malguagoa izateaz gain, gaur egun errentagarritasun handiagoa eskaintzen dutelako. Hain zuzen ere, aurrezki gordailuak %16,3 areagotu ziren, serie historikoan dagoen bigarren gehikuntzarik handiena baita, 2009an jaso zen %23,8aren ondoren. Ageriko gordailuak, 2015ean eskuratu zuten

gorakada apartaren aldean nolabaiteko erritmoa galdu duten arren, %15,0ko igoera garrantzitsua izan zuten. Inbertitzaileen lehentasunen aldaketa horren ondorioz, eperako gordailuak zortzi urteko epealdian aurrezki guztiaren %61,8 biltzetik %34,2 bakarrik batzera pasa da.

**GORDAILUEN BILAKAERA**

41. taula

Urte arteko aldakuntza tasa

	2011	2012	2013	2014	2015	2016
<b>Guztira</b>	-5,0	-3,9	2,5	-2,0	3,3	1,9
Gordailu publikoak	-44,1	-8,1	5,0	6,1	3,0	-0,2
Gordailu pribatuak	-2,4	-3,7	2,4	-2,3	3,3	2,0
Ageriko gordailuak	13,9	19,1	23,2	7,4	19,1	15,0
Aurrezki gordailuak	-14,5	-19,9	-22,9	6,0	16,0	16,3
Eperako gordailuak	-2,4	-6,2	0,5	-10,3	-12,0	-16,6

Iturria: Espainiako Bankua.

**7.5. Familien finantza egoera**

Euriborraren etengabeko jaitsieraren ondorioz, bankuak tasa finkoko hipotekak lehenestera hasi dira, bereziki 2016tik, tasa aldagarriaren kaltetan. Izan ere, Kutxabankek eta Servicios Vascos de Tasaciones (Servatas) elkarrekin urtero egiten duten azterlanaren arabera, iaz EAEn onartu ziren hipoteka eragiketa guztien %44,3 tasa finkokoak edo tasa mistokoak izan ziren. Aitzitik, eragiketa guztien %55 baino gehiago euriborraren bilakaera hartu zuten erreferentziatzat.


Banaketa hori INEk, interes tasaren arabera, Espainia osoan egin ziren hipotekei buruz argitaratu zituen estatistiketan ere hautematen da. INEren datuetan, 2009ko hastapenean, sinatutako hipoteka guztietatik %96,6 tasa aldakorrekoak izan ziren eta 2016ko amaieran, berriz, ehuneko hori %65,0ra murriztua zen. Beraz, amortizazio epealdi osoan zehar kuota bera bermatzen duten maileguak gero eta onartuagoak dira, batez ere oraingoa bezalako testuinguru batean, interes tasak bereziki txikiak direnean.

Orobat, etxebizitzaren EAEko merkatuak 2015ean hasi zuen ziklo aldaketa finkatu dela baieztatuta geratu da, eskariak suspertze nabarmena izan zuelako. Zehazkiago, emandako maileguen diru kopurua %10,3 gehitu zen, gorakada garrantzitsua baita, nahiz eta 2015ean lortutako igoera bikaina (%34,2) baino txikiagoa izan. Halaber, kontratatutako hipoteken sinadura %8,6 hazi zen, aurreko urteetako emaitzaren aldean hazkunde nabarmena delarik, baina gainontzeko autonomia erkidegoetako aldakuntzen aldean atzeko tokoa hartzen duena. Nabarmendu ziren Gaztela-Mantxaren %23,8ko eta Aragoiren %19,3ko tasak.


#### Etxebizitzaren hipoteken bilakaera. Mila

40. irudia

Formalizatutako hipoteken batez besteko zenbatekoa



Formalizatutako hipotekak



Iturria: INE.

Halaber, lehenago aipatu den txostenaren arabera, bigarren eskuko etxebizitzek higiezinaren merkatuari bultzada eman zioten, zeren eta bost urte baino gutxiago duten higiezinaren erosketa %5,0 baino ez baitzen hazi. Joera aldaketa hori batez besteko kontratugilearen perfilera hedatu zen, 2016an 35 urtetik 45era bitartean dauden bikoteak baitira, ohiko bizitegia bigarren eskuko batekin ordezkatu nahi baitzuen.

Estatistika erakunde nagusiek argitaratutako erregistroko datuez gain, EAEko familien egoera finantzarioa aztertzeko orduan baliagarria den beste informazio bat Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkestak (PGDI) eskaintzen du. Beraren diseinuan eta egikaritzan,

erregistroen arazketan, laurogeietako erdialdetik pilatu den eskarmentuak eta erantzunen maila altuak PGDI inkesta oso fidagarritzat eta sendotzat hartzeko balio dute.

Analisia metatze pobrezia adierazleetan fokatuta, begi bistakoa da 2014tik 2016ra doan epealdian EAEko familien errenta mailaren susperraldiak, oro har, hobekuntza ekarri duela pobrezia arriskuan eta ongizate gabezia. Hain zuzen ere, pobrezia adierazlea %1,6ra arte jaitsi zen 2016an, EAEn jaso diren mailarik apalenetara, hots, 2008ko %1,4ra eta 2012ko %1,5era, hurbiltzen ari den zenbakia baita. Datu horrek esan nahi du pobrezia mota hori 34.158 pertsona pairatu zutela 2016an, 2008an zirenak baino %4,0 gehiago bakarrik. Hala ere, zenbaki hori oraindik urrun dago 2012an zeuden 31.094 lagunetatik, horixe baita inoizko kopururik txikiena. Kontrako norabidean, erabateko ongizatea duten, hau da, ondare mailari edo epe ertaineko zein luzeko bizi baldintzei lotutako inolako gabeziarik ez duten, familietan bizi diren pertsonen ehunekoa berriro hazi zen eta berriro gehienezko zenbakia eskuratu zuen 2016an, %42,7 batekin.

**POBREZIAREN ETA ONGIZATE GABEZIAREN ARRISKUARI BURUZKO PDGI ADIERAZLEAK METATZEARI DAGOKIONEZ**  
Familia etxebizitzetan 42. taula

	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	Bilakaera 08-16
<b>Datu absolutuak</b>								
Ongizate gabezia	535.918	355.942	405.306	400.649	380.447	431.618	364.332	-9,1
Pobrezia	76.127	87.542	74.759	32.838	31.094	43.083	34.158	4,0
Ongizate minimoa	1.079.596	1.024.809	1.072.864	1.014.5449	920.132	833.964	862.597	-15,0
Erabateko ongizatea	506.063	689.649	606.012	736.587	870.676	892.547	915.601	24,3
<b>Intzidentzia %</b>								
Ongizate gabezia	25,3	17,2	19,4	18,6	17,5	20,0	17,0	-1,6
Pobrezia	3,6	4,2	3,6	1,5	1,4	2,0	1,6	0,1
Ongizate minimoa	50,9	49,5	51,5	47,1	42,4	38,6	40,3	-6,9
Erabateko ongizatea	23,9	33,3	29,1	34,2	40,1	41,4	42,7	8,5

Iturria: PGDI 1996-2016 eta GZE-GPI 2014.

Beste aldetik, ondareari eta bizi baldintzei lotutako adierazle berariazkoek informazio osagarria eskaintzen dute EAEko familien egoerari buruz. Zehazkiago, EAEko ondare guztiak, 1996tik 2008ra etengabe hazia baitzen, beherakada garrantzitsua izan zuen 2008tik 2016ra bitartean, %11,1, finantza krisiaren ondorioz. 2008-2012 epealdian, beheranzko joera guztiz lotuta dago jabetzako etxebizitzaren balioak izan zuen jaitsierari, baina 2012tik 2014ra bitartean, ondarearen gainontzeko ondasunetara ere hedatu zen, aurrezkira izan ezik. Beraz, 2008 eta 2016 bitartean, lehenengo etxebizitzaren balioa %22,2 murriztu zen, gainontzeko ondasunena %0,4 igo zen bitartean, 2014-2016 epealdian lortu zuten gorakadari esker.

**ONDARE BALIABIDEEN BALIO ESTIMATUA (MILIOI €) ETA ONDAREA GUZTIRA BIZTANLEKO** 43. taula  
Familia etxebizitzetan

	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	Bilakaera 08-16
Ondare baliabidea	65.141	109.564	169.006	251.088	231.339	228.144	223.282	-11,1
Lehenengo etxebizitza	51.615	84.317	142.308	205.520	176.229	170.304	159.968	-22,2
Aurrezkiak	5.079	7.853	8.056	11.826	20.042	24.536	29.449	149,0
Beste ondare batzuk	8.447	17.394	18.642	33.742	35.068	33.304	33.865	0,4
Biztanleria	2.121.577	2.070.400	2.084.181	2.151.785	2.171.254	2.158.129	2.142.539	-0,4
Ondare baliabideak biztanleko	30.704	52.919	81.090	116.688	106.546	105.714	104.214	-10,7

Iturria: PGDI 1996-2016 eta GZE-GPI 2014.

Oso bestelakoa da erreferentzia epealdian pilatu zen aurrezkiaren bilakaera, gora egin zuelako. Bat-bateko krisi ekonomikoak, higiezinaren burbuila lehertu izanak, langabeziaren gehikuntza biziak eta austeritateko neurriek arlo pribatua behartu zuten finantza zorpetzea gutxitzera eta aurrezkiarengatik areagotzera. Ongizatea ziurtatzea, etorkizuneko arriskuak aurreikustea eta erretiroa planifikatzea aurrezteko ahalmeneraren arabera ekintzak dira eta, hori dela eta, ez da harrigarria aurrezkiaren 2008tik 2016ra %149,0 igo izatea.

Desberdintasunaren adierazle nagusiei dagokienez, enpleguaren susperraldiak eta, neurri txikiagoan, kolektibo kaltebera batzuen migrazioak bide eman dute 2012 eta 2014 artean

desberdintasunean bizi zen gorakadaren zati bat murrizteko. Hobekuntza erlatibo hori garbia da aztertu diren hiru adierazleetan: Gini indizea, hiritarren arteko diru sarreren desberdintasuna neurtzen baitu, S80/S20 ratioa, biztanleriaren %20 aberatsenak eta %20 txiroenak eskuratzen duten diru sarrerak lotzen baititu, eta %10 pobreenaren diru sarreren ehunekoaz aztertzen duena. Hiruretan hobekuntza garrantzitsua hautematen da 1996tik 2008ra bitartean, krisi ekonomikoa 2008an hasi zenean bertan behera geratu zena. Adierazleek 2008tik 2014ra bitartean okerrera egin ondoren, 2016an joera txar hori aldatu zen eta emaitza hobea lortu zen guztietan, nahiz eta hiruretako bat bera ere ez zen krisiaren aurreko mailara itzuli.

**EAE-KO DESBERDITASUN ADIRAZLEAK. 1996-2016**

**44. taula**

**Gini koefizientea eta S80/S20 ratioa era persona pobreenen %10ek guztirako diru sarreretan duten parte hartzearen %a**

	Gini koefizientea	S80/S20 ratioa	Biztanle pobreenen %10ren diru sarreren %a
1996	28,0	4,2	3,68
2000	27,3	4,1	3,55
2004	26,0	3,9	3,76
<b>2008</b>	<b>25,2</b>	<b>3,6</b>	<b>3,88</b>
2012	25,3	3,7	3,75
2014	27,1	4,2	3,41
2016	25,8	3,9	3,48

Iturria: PGDI 1996-2016 eta GZE-GPI 2014.

Krisia hasi zenetik desberdintasuna areagotu izana diru sarreren bilakaera ezberdinari, dezilaka sailkatuta, lotuta dago. Izan ere, %80 aberatsenei (D3tik D10era) dagozkien deziletan biztanle bakoitzeko batez besteko diru sarrera arruntak 2008koak baino handiagoak ziren, %3,2aren eta %6,0aren arte handiagoak, alegia. Baina %20 txiroenaren (D1 eta D2) hobekuntza, kasu onenean, %0,7ra iristen da, kalteberenetan %7,2 murriztera iritsiz. Bilakaera hori 2008tik 2014ra bitartean hauteman ziren diru sarrera txikiagoen ondorioa da, bereziki esanguratsuak izan zirenak 2012tik 2014ra bitartean (%-11,5 D1ean eta %-7,8, berriz, D2an). Hala ere, 2014tik 2016ra bitarteko bilakaerak erakusten du lehen deziletako diru sarrerak nabarmen handitu direla (%7,2aren eta %9,9aren artekoak), gizartearen gainontzeko taldeena baino handiagoa, kasu horretan %1,3aren eta %6,7aren artean hazi zelako.


**BIZTANLE BAKOITZAREN BATEZ BESTEKO DIRU SARRERA BALIOKIDEAK, SARREREN DEZILAK KONTUAN HARTUTA**  
 Hileko sarrera garbi arruntak. 45. taula

	2008	2012	2014	2016	Bilakaera 2008-2012	Bilakaera 2012-2014	Bilakaera 2014-2016	Bilakaera 2008-2016
%1-%10 POBREENA(D1)	575	563	498	534	-2,2	-11,5	7,2	-7,2
%10-%20 (D2)	820	816	753	826	-0,5	-7,8	9,8	0,7
%20-%30 (D3)	973	979	930	1.022	0,6	-5,0	9,9	5,0
%30-%40 (D4)	1.137	1.147	1.107	1.181	0,9	-3,5	6,7	3,9
%40-%50 (D5)	1.289	1.304	1.276	1.345	1,2	-2,2	5,5	4,4
%50-%60 (D6)	1.438	1.474	1.441	1.518	2,5	-2,2	5,3	5,5
%60-%70 (D7)	1.608	1.650	1.631	1.704	2,6	-1,2	4,5	6,0
%70-%80 (D8)	1.813	1.881	1.857	1.898	3,8	-1,3	2,2	4,7
80-90% (D9)	2.094	2.190	2.187	2.215	4,6	-0,2	1,3	5,7
%10 ABERATSENA (D10)	3.001	2.943	3.032	3.098	-1,9	3,0	2,2	3,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.475</b>	<b>1.495</b>	<b>1.471</b>	<b>1534</b>	<b>1,4</b>	<b>-1,6</b>	<b>4,3</b>	<b>4,0</b>


Iturria: PGDI 1996-2016 eta GZE-GPI 2014.

**Diru sarrerak bermatzeko errentaren bilakaera eta banaketa (DSBE)**  
 Onuradunak 41. irudia

DSBEren bilakaera



DSBEren banaketa



Iturria: Lanbide.



Nabarmendu behar da diru sarrerak bermatzeko errenta sistema (DSBE), etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) eta gizarte larrialdietarako laguntzak (GLL) egongo ez balira, %10 txiroenaren diru sarrerak %23,3 jaitsiko liratekeela 2008-2016 epealdian, hau da, gorago aipatu den %-7,2 hura baino 16 puntu gehiago. Hurrengo taldean (D2), prestazio horiek lagundu zuten diru sarreren galera zazpi puntu baino gehiago murrizten 2008 eta 2016 bitartean. Horri esker, %-6,4 batetik %0,7 batera igaro zen. Zehazkiago adierazita, 2016an 64.799 pertsonak jaso zuten DSBE, hots, 2015ean baino %1,2 gutxiago. Haietatik, %72,5 autoktonoak ziren eta gainontzeko %27,5, berriz, atzerritarrak.

## 7.6. Gizarte aurreikuspena


Banku sistematik at, interes tasa apalek erakargarritasuna kentzen diete, baita bideraezin bihurtu ere, etekina bermatuta duten aseguru enpresen produktuei eta pentsio funtsei. Hala eta guztiz ere, oraingoz, hori ez da EAEko borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeen (BGAE) kasua. Izan ere, azken datuen arabera, 2016an balantze positiboa izan zuten errendimenduen atalean.

BGAEen ondarea berriro areagotu zen eta, lehenengo aldiz, 24.000 milioi euroko langa gainditu zuen, aurreko ekitaldiko datuak ia 1.200 milioi eurotan gaindituz (2015ean baino %5,2 gehiago). Ondare hori EAEko BPGaren %33,8aren baliokidea da. Ehuneko hori Estatuko sistemetan dagoena (%9,6) baino askoz ere altuagoa da eta hurbil dago 15 kidez osatutako Europar Batasunean dagoen zenbakitik (%34,5). Halere, oraindik oso urrun dago esparru horretan garatuen dauden herrialdeetatik, Suitzan BPGaren %123 eta Australian %118,7 lortu direlako.

Krisiaren eraginak eta zergak gutxiagotzea ahalbidetzen duten ekarpenen muga jaitsi izanak (8.000 eurotik 5.000 eurora igaro zen gehienezko kopurua) ekarpenak erabat murriztu zituzten 2011-2015 epealdian, batez besteko jaitsiera %10,0 izan baitzen, baina 2012an %20,8 arte biziagotu zena. 2016an, banakako kuoten gorakada 350 milioi euroen gainetik (guztizkoaren %51,2 dira) kokatu izanak ekarpenen totala gorarazi zuen, 763 milioi euroetara hurbilduz, hots, 2015eko kopurua baino %1,4 gehiago. Dena dela, datu horiek urrun daude 2007an lortu ziren haietatik, non banakako ekarpenek guztizkoaren %65,3 biltzen baitzuten eta 875 milioi euroetara hurbiltzen baitziren.

## Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE).

42. irudia



Iturria: Euskadiko Gizarte Emendiotarako Borondatezko Erakundearen Baterakuntza.

BGAEek 2016an zehar eman zituzten prestazioek 875 milioi euroko zenbakia gainditu zuten. Diru kopuru horrek esan nahi du entitate horiek bazkideei eta onuradunei 4.750 milioi euro baino gehiago ordaindu dizkietela azken bost urtekoan, EAEn egiten duten gizarte aurreikuspenetarako lana baieztatuz.

Bazkideen kopurua, kontuen zenbakiarekin neurtuta, zeren eta oso zaila baita zehaztea zenbat dauden bikoiztuta edo zenbat bazkide dauden ekarpenak etenda, berriro gutxitu zen 2016an. Katetoria guztiak (bazkideak, enplegua, banakakoak eta ez-diferentziatuak) murriztu ziren, lehenengo aldiz serie historiko osoan. Zehazkiago, bazkideen kopurua %1,1 jaitsi zen, 2015ekoa baino 0,8 puntu gehiago.

## 8. AURREIKUSPENAK

### 8.1. Ingurunerako aurreikuspenak

Munduko ekonomiak bizitasuna berreskuratu du 2017ko lehen hilekoetan eta horrek goranzko berrikusketak ekarri ditu munduko ekonomiaren hazkunderako datozen urteei begira. Hain zuzen ere, NDFk %3,5eko urte arteko tasa zenbatetsi du 2017rako eta %3,6koa, berriz, 2018rako. Ekonomiaren hedatze bizkorragoa orokorra izango da eta ekonomia aurreratueta zein azaleratzen eta garatzen ari direneta hedatuko da. Aurreikuspenen zuzenketa positiboaren arrazoia Europako eta Asiako bilakaera ona da, batez ere Txinako eta Japoniako. Ekonomia testuinguruan, emaitza txarrean lehengaiak esportatzen dituzten herrialdeek pairatuko dute, bereziki Ekialde Hurbilak, Afrikak eta Amerika Latinoak, non produktu horien prezio apalek ekonomiaren hazkundera lastatuko baitute.

**Aurreikuspen ekonomikoak**  
Urte arteko aldakuntza tasak

46. taula

	BPG				Kontsumo prezioak			
	2016	2017	2018	2022	2016	2017	2018	2022
Munduko ekonomia	3,1	3,5	3,6	3,8	-	-	-	-
Ekonomia aurreratuak	1,7	2,0	2,0	1,7	0,8	2,0	1,9	2,1
AEB	1,6	2,3	2,5	1,7	1,3	2,7	2,4	2,3
Eurogunea	1,7	1,7	1,6	1,5	0,2	1,7	1,5	1,9
Alemania	1,8	1,6	1,5	1,2	0,4	2,0	1,7	2,4
Frantzia	1,2	1,4	1,6	1,9	0,3	1,4	1,2	1,8
Italia	0,9	0,8	0,8	0,8	-0,1	1,3	1,3	1,4
Espainia	3,2	2,6	2,1	1,6	-0,2	2,4	1,4	1,9
Erresuma Batua	1,8	2,0	1,5	1,9	0,6	2,5	2,6	2,0
Japonia	1,0	1,2	0,6	0,6	-0,1	1,0	0,6	1,6
Garapen bidean dauden ekonomiak	4,1	4,5	4,8	5,0	4,4	4,7	4,4	4,1
Txina	6,7	6,6	6,2	5,7	2,0	2,4	2,3	3,0
India	6,8	7,2	7,7	8,2	4,9	4,8	5,1	5,0
Errusia	-0,2	1,4	1,4	1,5	7,0	4,5	4,2	4,0
Brasil	-3,6	0,2	1,7	2,0	8,7	4,4	4,3	4,5

Iturria: NDF (2017ko apirila).

Zalantza oraingo bultzadaren iraupenean datza. Bilakaera positiboa iradokitzen duten alderdien artean, ekonomia eragileek ekonomia aurreratuetan irabazi duten konfiantza aipatu behar da. Beste aldetik, hazkundera galgatu dezaketen faktoreen artean, produktibitatearen hazkunde mugatua eta munduko bi ekonomia nagusietako politika makroekonomikoen inguruan piztu diren ziurgabetasunak daude. Izan ere, AEBetako Erreserba Federalak moneta normalizazioko prozesuari eutsiko dio eta zerga politika hedatzaileagoa bideratuko du. Halaber, Txinak beraren ekonomia egitura beste modu batean orekatzeko prozesuari jarraipena emango dio, non zerbitzuen jarduerak eta azken kontsumoan eginiko gastuak pisua irabaziko baitute. Txinako ekonomiak bizi duen aldaketa horrekin batera, barne kredituaren hazkunde bizia dator, etorkizunean finantza egonkortasunean arazoak sor ditzakeena herrialdean bertan eta inguruneko ekonomietan.

Beste arrisku bat ekonomia aurreratuetan bizi diren mugimendu politikoetatik etor daiteke, nazioarteko lankidetzaren ekonomikoaren abantailak zalantzan jartzen dituztelako. Finantza krisiaren ondorengo hazkunde ahulak, klase ertainen erosteko ahalmenaren galerak eta lan merkatuetan dauden egiturazko arazoen aldi askotako lankidetzaz mesfidatia izateko eta protekzionismoa sustatzeko testuingurua sortu dute.

AEBetan, datozen urteetarako hazkunde aurreikuspenek hobera egin dute, orain %2,5aren inguruan kokatu baitira. Goranzko zuzenketa horren atzean hainbat elementu daude, hala nola izakinen zikloaren gorakada, kontsumoaren igoera sendoa eta zerga politikaren etorkizuneko erlaxazioa. Halaber, finantza merkatuen egoerak eta eragileen konfiantza hobetu izanak espero dena baino hazkunde handiagoa ekar dezakete. Estatubatuar ekonomiarentzat egin diren epe luzeragoko aurreikuspenak, ordea, ez dira horren baikorrak, zeren eta biztanleriaren zahartzeak eta produktibitatearen bilakaera ahulak herrialde horretako hazkunde potentziala beheratuko dutela aurreikusten baita.

Azaleratzen eta garatzen ari diren herrialdeei dagokienez, bi joera kontrajarri hautematen dira. Alde batetik, Amerika Latinoko eta Ekialde Ertaineko ekonomien hazkundera beherantz zuzendu da, merkataritza salerosketen terminoetan narriadura pairatu dutelako eta petrolioaren ekoizpena gutxitu delako. Beste aldetik, Txinarako eta Errusiarako aurreikuspenak gorantz berrikusi dira eta bi ekonomia horiek azken hilekoetan aurreikusten zena baino bizkorrago suspertuko dira.

Eurogunean, epe laburrean hazkunde neurritsuko joera aurreikusten da, zertxobait hedatzailea den zerga politika batek, finantzaziorako baldintza hobeez eta euro ahul batek lagunduta.

Aitzitik, eremu horretako herrialde batzuetan bizi den ziurgabetasun politikoak eta Brexitari lotutakoak kalte egingo diote ekonomia jarduerari. Beste aldetik, epe luzean herrialde batzuetan oraindik konpondu ez den gehiegizko zorpetzearen arazoak, faktore demografikoek eta produktibitate apalak hazkundera mugatuko dute.

Espainiarentzako aurreikuspen ekonomikoak (2017ko maiatza)  
Urte arteko aldakuntza tasak

47. taula

	BPG		Kontsumo pribatua		Kontsumo publikoa		KFEG		KFEG eraikuntza		KFEG ekipamenduan	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018	2017	2018	2017	2018	2017	2018
AFI	3,0	2,5	3,0	2,5	0,7	0,6	3,5	2,9	2,8	2,4	4,7	4,0
Axesor	2,8	2,3	2,3	1,8	1,2	1,6	2,8	3,4	2,6	3,0	2,6	3,4
BBVA	3,0	2,7	2,5	2,4	1,0	2,0	3,3	4,5	2,8	4,2	3,6	4,4
Bankia	2,9	2,5	2,6	2,2	1,2	1,3	3,8	4,0	3,2	3,6	5,3	5,0
CaixaBank	2,8	2,4	2,6	2,0	0,8	0,8	3,6	3,5	3,3	3,5	3,9	3,3
Cámara de Comercio	2,8	2,4	2,7	1,8	0,9	0,5	3,4	2,9	2,6	2,0	4,9	5,0
Cemex	2,9	2,4	2,6	2,3	1,1	1,0	4,0	3,9	4,4	4,1	3,4	4,0
CEEM-URJC	2,8	2,6	2,5	2,3	1,4	1,6	3,0	3,1	2,7	2,9	3,6	3,9
CEPREDE-UAM	2,8	2,6	2,7	2,3	1,0	1,4	3,5	4,5	2,8	4,3	5,1	5,5
CEOE	2,5	2,3	2,4	2,2	0,6	0,7	2,9	2,9	2,1	2,5	4,0	4,0
FUNCAS	2,8	2,5	2,4	2,1	0,6	0,6	4,0	3,9	4,0	4,0	4,0	3,9
ICAE-UCM	2,7	2,5	2,8	2,2	1,2	1,2	3,0	3,6	2,7	3,6	3,6	3,9
IEE	3,0	2,4	2,9	2,3	0,6	0,4	2,6	3,8	2,5	2,8	2,7	5,2
Intermoney	2,8	2,3	2,8	2,2	0,8	0,8	2,3	2,3	1,6	1,8	3,2	2,9
Repsol	2,9	2,7	2,8	2,3	1,1	2,1	3,8	4,4	3,6	3,8	4,3	5,6
Santander	2,8	2,2	2,6	2,1	0,7	0,8	3,4	3,6	3,6	4,9	3,1	2,2
Solchaga Recio	3,1	2,7	3,0	2,2	1,0	0,9	3,5	4,0	3,8	4,0	3,4	4,5
<b>Batez bestekoa</b>	<b>2,8</b>	<b>2,5</b>	<b>2,7</b>	<b>2,2</b>	<b>0,9</b>	<b>1,1</b>	<b>3,3</b>	<b>3,6</b>	<b>3,0</b>	<b>3,4</b>	<b>3,8</b>	<b>4,2</b>
Pro memoria:												
Gobernua (17/04)	2,7	2,5	2,6	2,4	0,8	0,7	2,8	2,6	--	--	--	--
Espainiako B. (17/04)	2,8	2,3	2,4	1,6	0,8	0,8	3,3	4,4	3,7	4,4	3,1	5,1
Europar Batz. (17/05)	2,8	2,4	2,5	2,0	0,9	0,8	3,4	3,9	3,0	3,9	3,9	3,7
NDF (17/04)	2,6	2,1	2,6	2,1	0,7	0,7	3,1	2,7	--	--	--	--
ELGE (17/03)	2,5	2,2	2,2	1,6	0,9	1,2	3,6	4,7	--	--	--	--

Iturria: Funcaseko Panela.

Datozen urteetan, Espainia nabarmenduko da ekonomiaren bizitasun intentsuena izango duten herrialdeetako bat izango delako. Funcaseko panelaren arabera, 2017rako BPGaren bizkortzea eta 2018rako moteltze neurritsua aurreikusten da, hurrenez hurren ekonomiaren hazkunde tasak %2,8 eta %2,5 izango direlarik. Enplegu sorrera sendoak, nazioarteko ekonomiaren hobekuntzak eta merkataritza salerosketen igoerak ekonomia jarduera bultzatuko dute.

**Espainiarentzako aurreikuspen ekonomikoak (2017ko maiatza)** **48. taula**  
Urte arteko aldakuntza tasak

	Barne eskaria		Esportazioak ond. eta zerb.		Inportazioak ond. eta zerb.		KPI (urteko batez bestea)		Enplegua		Langabezia (BAI)	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018	2017	2018	2017	2018	2017	2018
AFI	2,6	2,2	4,8	3,4	4,1	2,6	2,0	1,8	2,7	2,2	17,4	15,7
Axesor	2,2	2,2	4,7	4,3	3,6	4,1	2,3	1,9	2,5	2,0	18,0	16,1
BBVA	2,3	2,6	5,8	5,0	4,2	5,2	2,1	1,9	2,4	2,2	17,3	15,6
Bankia	2,5	2,3	5,0	4,2	3,8	3,8	2,2	1,6	2,6	2,2	17,2	15,2
CaixaBank	2,5	2,1	4,6	4,5	3,6	3,6	2,2	1,5	2,4	2,1	17,7	16,3
Cámara de Comercio	2,3	1,9	5,3	5,4	5,6	4,8	2,2	1,5	2,4	1,8	17,6	16,1
Cemex	2,5	2,3	5,3	4,4	4,5	4,6	2,0	1,4	2,5	2,3	17,5	16,1
CEEM-URJC	2,3	2,3	4,9	4,5	3,8	3,7	2,2	1,7	2,6	2,4	17,3	15,1
CEPREDE-UAM	2,5	2,6	5,3	5,0	4,8	5,4	2,0	1,4	2,3	2,1	17,4	15,6
CEOE	2,1	2,0	4,3	3,9	3,3	3,4	2,0	1,1	2,3	2,1	17,5	15,8
FUNCAS	2,3	2,2	4,8	4,7	3,5	4,1	2,1	1,3	2,4	2,0	17,5	15,8
ICAE-UCM	2,4	2,3	5,0	4,0	4,1	4,0	2,2	2,0	2,3	2,0	17,7	15,8
IEE	2,4	2,1	5,0	5,2	3,2	5,0	2,2	1,2	2,4	2,3	17,7	16,4
Intermoney	2,3	1,9	4,5	2,9	3,1	2,2	2,0	1,6	2,6	1,9	17,6	15,0
Repsol	2,6	2,6	4,5	4,6	4,0	4,8	2,1	1,4	2,4	2,2	17,5	15,4
Santander	2,5	2,2	4,7	3,3	3,8	3,6	2,3	1,4	2,3	1,8	17,7	16,2
Solchaga Recio	2,7	2,3	5,3	4,6	4,3	3,8	2,1	1,7	2,6	2,1	17,6	15,9
<b>Batez bestekoa</b>	<b>2,4</b>	<b>2,2</b>	<b>4,9</b>	<b>4,3</b>	<b>4,0</b>	<b>4,0</b>	<b>2,1</b>	<b>1,5</b>	<b>2,4</b>	<b>2,1</b>	<b>17,5</b>	<b>15,8</b>
Pro memoria:												
Gobernua (17/04)	--	--	5,5	4,9	4,3	4,1	--	--	2,5	2,4	17,5	15,6
Espainiako B. (17/04)	--	--	6,1	4,8	5,2	4,4	2,2	1,4	2,6	1,9	17,5	16,0
Europar Batz. (17/05)	2,4	2,2	5,7	4,8	4,8	4,4	2,0	1,4	2,3	2,1	17,6	15,9
NDF (17/04)	2,3	2,0	4,6	4,2	4,1	4,1	2,4	1,4	2,4	1,5	17,7	16,6
ELGE (17/03)	2,3	2,2	4,3	4,4	3,7	4,5	1,9	1,8	2,4	1,9	17,5	16,1

Iturria: Funcaseko Panela.

Enpleguaren hazkundera positiboa izango da. Batez besteko zenbatespenaren arabera, 2017an enplegua %2,4 haziko da eta 2018an, berriz, gehikuntza tasa %2,1era iritsiko da. Horien ondorioz, langabezia tasa %17,5era jaitsiko da 2017an eta beherantz jarraituko du 2018an ere, %15,8aren inguruan kokatu arte. Proiektzio hauek aurreko panelean argitaratu zirenak baino apur bat baikorragoak dira.

## 8.2. EAE-ko ekonomiaren aurreikuspenak

Kanpoko koiuntura horrekin eta argitaratu diren azken ekonomia adierazleekin, EAERako hazkunde aurreikuspenak datozen urteetarako eguneratu dira. Orain aurkezten den eszenategi makroekonomikoa kanpoko aldagai batzuei buruz eginiko hipotesietan oinarritzen da. Aldagai horien artean, interes tasak, truke tasa eta petrolioaren salneurria daude. Orobat, hainbat suposamendu egiten dira EAEko ekonomiaren jardueran eragin handia duten ekonomia eremu batzuen hazkunderaz ere.

Nazioarteko testuinguruari dagokionez, erakunde nagusien aurreikuspenek hazkunde neurritsua seinalatzen dute munduko ekonomiarentzat, urteak aurrera joango diren heinean moteltze arina izango duena. Europako ekonomiarentzat ere hazkunde neurritsua espero da, batez ere Erresuma Batuko erreferendumaren emaitzak sortu duen ziurgabetasunak eragin negatiboa izango duelako. Oraingo bilakaera onaren ondoren, espainiar ekonomiaren hazkundera apalduko dela aurreikusten da: 2016an %3,2 gehitu eta gero, herrialde hartako BPGaren hazkundera %2,7ra motelduko da eta poliki-poliki apalduz joango da %2,0tik hurbil kokatu arte.

Epe luzerako interes tasak pausuka igoko dira aurreikuspenerako kontuan hartu den epealdi osoan zehar, EBZren moneta politika normalizatzeko balizko erabakiarekin bat eginez.

Brent motako petrolioaren salneurriari dagokionez, 2016an upelaren prezioa 40 dolarren gainetik kokatu zen eta petrolioaren salneurriak etorkizuneko merkatuetan proiektatzen den bilakaera kontuan hartuta, aurreikuspen honen gainontzeko denboran 50 dolarren inguruan egonkortuko dela espero da.

## Eszenario makroekonomikoaren hipotesiak (2017ko maiatza)

49. taula

	2016	2017	2018	2019	2020
Epe luzerako interes tasak	0,014	0,019	0,022	0,023	0,024
Truke tasa (euro/dolar)	0,903	0,917	0,925	0,925	0,925
ELGEren BPGaren hazkundera	1,7	2,1	2,2	2,4	2,5
EB28ren BPGaren hazkundera	1,9	1,8	1,8	1,8	1,8
Espainiako BPGaren hazkundera	3,2	2,7	2,5	2,3	2,2
Petrolioaren prezioa (Brent dolarrak/ upeleko)	43,3	54,5	56,8	56,8	56,8

Iturria: Espainiako Bankua, Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Truke tasaren bilakaerari dagokionez, 2016an euroaren balioa dolar bakoitzeko 0,9 eurotan egonkortu zen eta aurreikuspen honetan truke tasa balio horretan mantenduko dela epealdi osoan espero da.

2016rako politika fiskalaz egin diren suposamenduek zehaztu diren aurrekontu egonkortasuneko helburuak beteko direla ziurtzat jotzen dute. Helburu horien arabera, EAEk ezarri duen kontsolidazio fiskaleko norabideak 2019an lortuko du aurrekontuen oreka.

Aipatu diren hipotesien arabera, eszenategi makroekonomikoak, epe ertainean, EAEko ekonomiaren moteltzea eta ondorengo egonkortzea islatzen du. Datozen ekitaldietarako, ekonomiaren hedaldiak jarraituko duela aurreikusten da, nahiz eta perspektibek ekonomia jardueraren hazkunde erritmoa neurri batean motelduko dela iragartzen duten. Izan ere, 2016an %3,1ean kokatu ondoren, BPGaren hazkundera %2,7ra motelduko da 2017an, geroztik %2,0aren zertxobait gaineratik 2020 arte egoteko.

Barne eskaria EAEko ekonomiaren hazkunderaren bultzagile nagusia izango da epealdi osoan zehar, bereziki kontsumo pribatuaren portaerari esker. Izan ere, kontsumo pribatuaren igoera errenta erabilgarriaren gehikuntzaren ondorioa da, lan merkatuaren hobekuntzak lagunduta, eta baita konfiantzaren susperraldiarena ere. Kanpo arloak, berriz, ekarpen negatibo txikia egingo dio EAEko BPGaren gehikuntzari.



Azken ekitaldian, inbertsioaren hazkundera ekipamendurako ondasunetan eginiko kapital eraketa gordinaren bultzadari esker lortu da, baina behin zaharkituta geratu ziren ekipamenduak ordezkatu ondoren, inbertsioa azken eskariaren portaera motelari lotuago haziko da.

**EAE-ko ekonomiaren aurreikuspen ekonomikoak (2017ko uztaila)**  
Urte arteko aldakuntza tasak

50. taula

Urte arteko aldakuntza tasak	2016	2017	2018	2019	2020
<b>BPG</b>	<b>3,1</b>	<b>2,7</b>	<b>2,3</b>	<b>2,2</b>	<b>2,2</b>
Azken kontsumoa	3,0	2,5	2,2	2,1	2,3
Kontsumo pribatua	3,1	2,7	2,3	2,4	2,6
Kontsumo publikoa	2,2	1,7	1,8	1,3	1,2
Kapital eraketa gordina	3,3	3,0	3,2	2,4	2,3
Barne eskaria	3,0	2,6	2,4	2,3	2,4
Kanpo eskariaren ekarpena	0,0	0,0	-0,2	-0,1	-0,2
BPG nominala	3,4	3,9	4,1	4,1	4,1
BPGaren deflatoea	0,3	1,2	1,8	1,8	1,9
Enplegua	1,9	1,9	1,5	1,4	1,3
Langabezia tasa	13,5	11,2	10,7	10,1	9,1

Iturria: Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak.

Kontuan hartu den epealdian, administrazio publikoek BPGaren hazkunderari azken kontsumoko gastuaren bitartez egingo dioten ekarpena txikia izango da. Aurrekontu politikaren nondik norakoak aurrekontu egonkortasuneko eta finantza jasangarritasuneko araudiak zehazten ditu. Araudi horrek, denbora iragankor baten ondoren, 2020an finkatu du ezarritako muga horiek betetzeko beharra<sup>4</sup>: egiturazko defizitik ez aurkeztea eta zor publikoaren bolumena, autonomia erkidegoen kasuan, BPGaren %13 baino gehiago ez izatea eta %3, berriz, tokiko erakundeen kasuan. Horri gehitu behar zaizkio gastu publiko konputagarriaren gehikuntzan ezarri diren mugak, gastu arauan zehaztuak<sup>5</sup>.

<sup>4</sup> 2/2013 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasun eta Finantza Jasangarritasuneko.

<sup>5</sup> Gastu konputagarriaren aldakuntzak ez du gaindituko Espainiar ekonomiaren epe ertaineko BPGaren hazkunderaren erreferentzia tasa.

Prezioei dagokienez, BPGaren deflatorearen aldakuntza tasek gorantz joko dute epealdian zehar, 2016ko %0,3tik 2020ko %2,0aren ingurura, neurri handi batean petrolioaren salneurrirako kalkulatu den bilakaerak baldintzatuta.

Ekonomiaren hazkundeak eragin positiboak izango ditu lan merkatuan, enplegu tasa igoko delako eta langabeziarena, berriz, jaitsiko. Enplegu sorrerak epealdian zehar indarra galduko duen arren, langabeen kopuruak biziko duen etengabeko beherakadak langabezia tasa %10,0aren azpian kokatuko du 2020an. Horixe da, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi honetarako ezarri dituen helburuetako bat.

Eustatek prestatu dituen proiektzio demografikoen<sup>6</sup> arabera, biztanleria potentzialki aktiboa gutxituko da. Denbora tarte luzeago batean, lan eskaintzaren jaitsierak muga bat da EAEko ekonomiaren hazkunde potentzialerako eta, beraz, beraren kudeaketa ezinbesteko kontua da EAEren garapen ekonomikorako, non immigrazioa kontuan hartzeko elementu esanguratsua baita.

Produktibitatea %0,8aren inguruan kokatuko da modu egonkor batean, Frantziarentzat eta Alemaniarentzat zenbatetsi diren zifrekin bat eginez eta Estaturako datuaren gainetik. Berez, tasa hori txiki samarra da, irabazi historikoekin alderatzen bada, eta neurri handi batean kapitalean eginiko inbertsioen faltaren ondorioa da.

---

<sup>6</sup> Eustat. Demografia proiektzioak 2031.